

**2025EKO URRIAREN 22KO BATZAR  
NAGUSIAREN BATZAR-EGUNKARIA  
(ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA  
DE FECHA 22 DE OCTUBRE DE 2025  
(TRADUCCIÓN)**



## AURKIBIDEA

### Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	4
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau “Zorrak geroratzeko prozedura eta zerga bilketaren prozedura.”	4
- EH Bildu taldeko Sarasola Lartategi batzarkide andreak hartu dau berbea	5
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martin batzarkide andreak hartu dau berbea.....	7
- Bizkaiko Talde Popularreko Pagadigorria Wicke batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	9
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	10
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	11
- EH Bildu taldeko Sarasola Lartategi batzarkide andreak hartu dau berbea	13
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martin batzarkide andreak hartu dau berbea.....	15
- Bizkaiko Talde Popularreko Pagadigorria Wicke batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	16
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	17
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	18
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau .. “Landa-inguruneko oinarrizko hornidura-zerbitzuak edo -guneak martxan ipinteko eta mantentzeko neurriak.”	20
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martin batzarkide andreak hartu dau berbea.....	20
- Euskal Sozialistak taldeko Berges Fernández batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	22



- Euzko Abertzaleak taldeko Karrion Lamikiz batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	23
- Bizkaiko Talde Popularreko Pagadigoria Wicke batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	25
- EH Bildu taldeko Llano Lana batzarkide jaunak hartu dau berbea..	26
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martin batzarkide andreak hartu dau berbea.....	28
- Euskal Sozialistak taldeko Berges Fernández batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	29
- Euzko Abertzaleak taldeko Karrion Lamikiz batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	30
- Bizkaiko Talde Popularreko Pagadigoria Wicke batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	31
- EH Bildu taldeko Llano Lana batzarkide jaunak hartu dau berbea..	32
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau “Krisi zentroak.”	33
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	34
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	35
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide andreak hartu dau berbea.....	37
- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea .....	39
- Euzko Abertzaleak taldeko Gómez Devesa batzarkide andreak hartu dau berbea .....	41
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	43
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	44
- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea .....	45
- Euzko Abertzaleak taldeko Gómez Devesa batzarkide andreak hartu dau berbea .....	47
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau “Sukarrieta eta Busturia udalerrien arteko lege-auzia, San Antonio enklabea dala-ta.”	48



- Bizkaiko Talde Popularreko González Diez-Andino batzarkide andreak hartu dau berbea .....	49
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martin batzarkide andreak hartu dau berbea.....	51
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	53
- EH Bildu taldeko López Vázquez batzarkide jaunak hartu dau berbea	54
- Euzko Abertzaleak taldeko Bagan Urriaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	55
- Bizkaiko Talde Popularreko González Diez-Andino batzarkide andreak hartu dau berbea .....	57
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martin batzarkide andreak hartu dau berbea.....	58
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	59
- EH Bildu taldeko López Vázquez batzarkide jaunak hartu dau berbea	60
- Euzko Abertzaleak taldeko Bagan Urriaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	61
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau	62
“Bizkaiko Foru Aldundiaren txostena, Bizkaiko Batzar Nagusiek 2024ko irailaren 1etik 2025eko irailaren 1era bitartean onartutako arauz besteko proposamenak eta mozioak Gobernuak betetzen dituen kontrolatzeari buruzkoa.”	
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Izagirre Loroño jaunak hartu dau berbea .....	63
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	68
- Bizkaiko Talde Popularreko González Diez-Andino batzarkide andreak hartu dau berbea .....	69
- Euskal Sozialistak taldeko Rebollo Frías batzarkide andreak hartu dau berbea .....	71
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea .....	72
- Euzko Abertzaleak taldeko Lamborena Barreras batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	73
- Batzarra amaitu da.....	75



2025eko urriaren 22ko batzarra goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 22 de octubre de 2025 a las 09:00 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andrea: Buenos días, señoras y señores; señora Diputada General; señoras y señores diputados; estimadas y estimados junteros; quienes nos acompañan en las tribunas de personas invitadas, que en el día de hoy son el alcalde de Sukarrieta y vecinos y vecinas de Sukarrieta, por supuesto, compañeros y compañeras de los medios de comunicación, y a todas las personas que seguirán esta Sesión Plenaria vía streaming, buenos días y bienvenidos/as.

Antes de comenzar a tratar el orden del día, como aviso, he de decirles que la señora Saioa Elejabarrieta Amorrortu ha delegado su voto al señor Iker Casanova Alonso.

Dicho esto, comenzaremos a trabajar el orden del día; y para ello, ¿cómo recoge el primer punto, señora secretaria?

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak: Sí, buenos días a todos y a todas.

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.12/E/2025/0001393](#))

**Autor:** Sarasola Lartategi, Arantza (EHB)

**Asunto:** El procedimiento de aplazamiento de deudas y de recaudación tributaria.

**Documento Principal:**

([R.E.12/E/2025/0001393](#)),([R.E.12/E/2025/001864](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (53A), [Enmiendas:](#)

[Admisión a trámite](#) (53B)

**Expediente:** ([12/B/20/0002042](#))

1.- Ekimenari(ei) buruzkoak azertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa ([12/E/2025/0001393SE](#))

**Egilea:** Sarasola Lartategi, Arantza (EHB)

**Gaia:** Zorrak geroratzeko prozedura eta zerga bilketaren prozedura

**Dokumentu Nagusia:**

([12/E/2025/0001393SE](#)),([12/E/2025/0001864S E](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (53A), [Zuzenketa-eskeak:](#) [Izapidetzeko onartzea](#) (53B)

**Espedientea:** ([12/B/20/0002042](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora Sarasola Lartategi, tiene



usted la palabra.

La Sra. **SARASOLA LARTATEGI** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos y a todas.

El mes pasado celebramos en esta Cámara el denominado “pleno de política general” para dar comienzo al curso político. Se trata de una sesión muy importante porque tanto el Gobierno como los grupos que integramos esta Cámara debatimos sobre la situación de Bizkaia, y la lectura que cada grupo hace en torno a los retos que el territorio afronta.

Se trata de un ejercicio de mirar hacia atrás y fijar prioridades de cara al futuro. Este ejercicio de retrospectiva es de vital importancia para poder saber, entre otras cuestiones, en qué hemos acertado y en qué no. En dicha sesión la Diputada General mencionó el fraude fiscal, pero luego no se habló de él, y se trata de un tema muy importante. Creemos que lo que no se puede hacer es que cuando usted está refiriéndose al fraude se refiera incluso con mucha solemnidad a unos hipotéticos agentes que, supuestamente, están en contra de BATUZ, y hacia nuestro grupo...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Perdona, señora Sarasola Lartategi. Estoy convencida de que entrará en el tema ahora mismo, pero este no es el momento; el objetivo de este punto no es debatir con la Diputada General, y no estamos en el Pleno de Política General. Por lo tanto, le pediría que, por favor, entre en el tema y trabaje y defienda su propuesta.

La Sra. **SARASOLA LARTATEGI** andreak: Sí, precisamente lo necesito como introducción, para explicar la importancia que tiene la propuesta de lucha contra el fraude que estamos poniendo sobre la mesa.

Lo que estaba diciendo es que se nos mira, cuando por nuestra parte, y que sepamos, cuando por parte de nadie se ha cuestionado nunca la importancia del sistema BATUZ.

Zerga-iruzurraren auzia osoko bilkurara eroatea ondo ikusten dogu, jakina, baina adierazgarria dala erexten deusagu zordun handiakaz edo hidrokarburoen sektoreko hainbat milioitako iruzurragaz daukagun arazo larria ez aitatzea, delitu fiskala izatera heldu dan iruzurra danean, eta, ostera, Batuz sistemaren aurka ez dagozan balizko edo ustezko jarrerak aditzera emotea. Hori sano esanguratsua eta larria iruditzen jaku, sano modu grafikoan adierazoten dauelako zein dan gobernuaren jarrera eta erabagi politikorik ez dagoala erakusten dauelako benetako delitugile fiskalei aurre egiteko.

Nosotras, sin embargo, y por eso hemos traído aquí la propuesta, sí que queremos hablar de fraude, sí queremos hablar. Por un lado, sobre las personas y deudores/as que no pagan a Hacienda lo que tengan la obligación de pagar, y también sobre quienes ocultan a Hacienda sus bienes y sus ganancias. Nosotras queremos hablar de ello, queremos hablar de qué actitud debe mostrar Hacienda ante esas personas y ante estas prácticas.

Por eso, el año pasado, en el curso político pasado, presentamos una interpelación sobre las empresas del grupo HAFESA. Estuvimos debatiendo sobre la



posibilidad de conceder a las empresas del grupo HAFESA un aplazamiento de sus deudas en Bizkaia, y ahí dijo o mencionó la diputada de Hacienda el Reglamento de Recaudación. Decía que en Bizkaia es posible que un contribuyente que ha cometido un delito pueda aplazar sus deudas y puedan concederse facilidades para su pago. La reglamentación de otros países, de muchos países, en cambio, eso no lo permite, no es posible haber realizado un delito y luego tener facilidades para pagar sus deudas. Se nos decía y se nos dice que la actuación institucional contra el fraude tiene dos vertientes. Una, la prevención, en la que se incluyen diversos ejercicios para facilitar a las personas deudoras o contribuyentes el pago de sus deudas; y la persecución del fraude. Dos partes, prevención y persecución del fraude.

Y, evidentemente, nuestro grupo está de acuerdo con este planteamiento: dar facilidades a quienes manifiestan su voluntad de pagar lo que deben a Hacienda, por supuesto. Pero con quienes manifiestan su voluntad de pagar. Y para ello, el orden de los factores (prevención/dar facilidades – persecución del fraude) en este caso sí que es muy importante, dado que no se puede aplicar la lógica de la prevención en los casos en los que está demostrado que se ha cometido fraude. Es decir, lo que no se puede hacer es poner la alfombra roja a quien haya robado.

Y, por tanto, lo que planteamos es que, tal y como se realiza en el caso de territorios vecinos, no se permita aplazar las deudas a las personas contribuyentes que están inmersas en un litigio por cometer fraude, y para ello habría que modificar el Reglamento de Recaudación. Y también planteamos que se haga público quién de esas personas deudoras perpetuas que aparecen en esa relación de grandes deudores, de esas personas que deben más de 1.000 millones de euros, tienen abierta causa judicial por delito en Hacienda por imperativo legal.

Y en este punto queremos abrir un paréntesis, porque en ese Pleno en el que estuvimos debatiendo sobre el grupo HAFESA, la diputada de Hacienda daba mucha importancia a la práctica de Hacienda. Señalaba que Hacienda informa a la Fiscalía y al Ministerio siempre que existen indicios de delito. Pero es así porque la propia ley te obliga a ello. No es algo que se haga voluntariamente, o en cierto modo, una praxis extraordinaria y justa, sino que lo hacen así porque la ley les obliga a ello.

Bueno, lo que al fin y al cabo planteamos es que...

Iruzur egiten dauena seinaletea baizen erraza da, ordaintzen ez dauena seinaletea, iruzurrak asmatzen ibili barik ez dagozan lekuetan.

Y, para terminar, únicamente he de decir que en relación a la enmienda de Elkarrekin Bizkaia no vamos a aceptar porque entendemos que lo que se propone para saber si puede haber delito se halla en una fase muy inicial. Entendemos lo que ustedes plantean, pero nos parece que quizás lo están planteando en una fase muy inicial.

Y por nuestra parte, nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Sarasola Lartategi.

A continuación, corresponde el turno al grupo que ha presentado la enmienda. Por lo tanto, la representante del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martin, tiene usted la palabra.



La Sra. **DE MADARIAGA MARTIN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos y a todas. Ondoetorri, Sukarrietako bizilagunok.

Nire ustez, argi dago proposamen hau argitaratu dan informazioak sortu dauen kezkan daukana oinarria. Kezka hori taldeetan sortu da, baita gurean be. Informazio horretan adierazoten da zein izan dan, ustez, Foru Ogasuna enpresa jakin batzuei emoten ari izan jaken tratamendua euren zerga-zorrak kudeatzeko orduan. Hainbat kasu jorratu ditugu. Eta begiratzen dauenaren arabera argitaratutako informazioek sendotasun handiagoa edo txikiagoa euki ahal daben arren, informazio horreei buruz hainbat batzordetan eztabaidatu dogun lez, prozedurei buruz behintzat hausnartu ahal izan dogula uste dot, eta Zerga-bilketari buruzko Araudia hobetu leitekela ikusi dogu, kontrolaren eta iruzurraren aurkako burrukearen ikuspegitik.

Eta, Elkarrekin Podemos taldean egin dozuen proposamen hori ikuspegi horretatik aztertu dogu, hain zuzen be. Gure ustez, helburua Foru Ogasunak zerga-iruzurraren aurka dituan politikak hobetzea da, eta horrek eroan gaitu behintzat egin dozuen proposamenari zuzenketa-eske bat aurkeztera.

Guk, Elkarrekin Podemosen, uste dogu zerga-iruzurraren aurkako burrukea justizia sozialaren kontua dala; izan be, iruzurrak eta iges fiskalak zerbitzu publikoek dabezan baliabideak gitxitu besterik ez dabe egiten, eta, beraz, garrantzitsua da praktika horreei aurre egitea. Eta horrek kontrol-mekanismoak indartzea dakar, baina baita gardentasun-mekanismoak be.

Eta, tira, zuk, Sarasola andrea, Dekretua aldatzea proponidu dozu. Hain zuzen be, geroratzeko edo zatikatzeo eskaerak ez onartzeko errazoiak arautzen dauzan 28. artikuluan beste kasu bat gehitzea proponidu dozu. Eta proponiduten dozun kasu barria da eskaerea ez onartzea eskumena daukan jurisdikzioaren aurrean zerga-iruzurragaitik delitu-auziren bat edegita daben zergadunei. Eta, gainera, talde fiskal bat izan ezkerro, ez onartze hori talde osoari apliketea proponidu dozu, eta horretan guztian gu ados gagoz.

Horren haritik, zeozer falta dala uste dogu, zati bat bakarrik ikutu dala esan geinke. Gure ikuspuntutik, 3 hutsune dagoz. Lehenengoa, zure proposamena labur geratzen dala. Auzi penala edo Fiskaltzaren esku-hartzea dagoanean baino ez da apliketan, eta kanpoan ixten ditu hondino judizializau barik dagozan iruzur administratiboko kasuak, baina baita larriak be, adibidez, ikuskapen-fasean dagozanak, Foru Ogasunak zantzu sendoak dituean.

Aldi berean, denporan be hutsunea sortzen dau, hau da, praktikan, iruzurra dagoanean, iruzurra igarten danetik kasua judizializau arte denporea pasau leiteke, eta epe horretan zergadunek zorra geroratzeta eta zatikatzea eskatzen jarraitu leikie, eta onartu egin ahal jake.

Eta, bestetik, uste dogu zure proposamenari segurtasun juridikoa falta jakola, eta hori, gure ikuspuntutik, garrantzitsua da; horregaitik, prozeduran berme-elementu bat sartzea proponidu deusuegu. Zelan lortuko litzateke berme-elementu hori? Izan be, Europako legediaren oinarri diran printzipioak txertatuta, hau da, zatikatzea edo geroratzeta ez onartzea eta zor hori ezin berreskuratzeo arriskuagaz lotzea. Eta, beraz, uste dogu beharrezkoa dala zure proposamenean, esan deusudan moduan, neurriaren irismena zabaltzea eta zeozelako segurtasun juridikoa sartzea. Aldi berean, Europak ezarritako printzipioakaz alkartu leitekez, baliabide publikoak eraginkortasunez babesteko eta iruzurraren aurka burrukatzeo.

Eta horixe da gure zuzenketa-eskean zehaztu doguna. Alde batetik, auzi bat edegi danean eskaerea ez daitela onartu planteetan dogu, baina horrezaz gainera, delitu bat



ete dagoan zehazteko ikerketa- edo egiaztapen-jarduketak dagozanean be ez daitela onartu proponiduten dogu; eta egiaztapen horreek Foru Ogasunak be egiten ditu, administrazio-bidez. Eta, beste alde batetik, idazketan esan dodana erantsita segurtasun juridikoa emoten deutsagu, hau da, ez onartzea izan daitela geroratzek edo zatikatzeak zorra kobretaren eraginkortasuna arriskuan jarri leikien kasuetan.

Gure ustez, iruzur-zantzuak edo ondasunen ezkutitze-zantzuak egoteak, edo ikerketa-prozedura bat edegita egoteak, berez dakar zorra kobretako arriskua, eta zeuk be horrelan adierazo dozu, eta, beraz, ez litzateke epai irmerik behar Administrazioak zor hori kobretako berme-neurriak hartu daizan.

Izan be, funtzionetako modu hori ez litzateke azken orduko barria izango, ez ginateke ezta aitzindariak izango. Europar badagoz iruzurraren eta zerga-igesaren zantzuen aurrean zatikatzerik edo geroratzerik onartzen ez daben herrialdeak, Alemania, Erresuma Batua edo Frantzia, besteak beste; hain zuzen be, horrexegaitik, zorra kobretea arriskuan jarten dalako. Horregaitik da garrantzitsua zati hori idazketan sartzea.

Herrialde horreek guztiek gauza baten oinarritzen dabe euren jarduerara, Europar finantza-interes publikoen babesari buruz eta finantza-kudeaketa onaren eta proporzionaltasunaren printzipioari buruz ezarritako estandarren errespetuan, hatan be, eta horrek euskarri juridikoa emoten dau geroratze edo zatikatze bat ukatu ahal izateko, esan dodan moduan, diru-sarrera publikoak nahita galtzeko arriskua dagoala uste dan kasuetan.

Zure proposamenean planteetan dozun bigarren puntuari jagokonez, hau da, Bizkaiko Ogasunagaz zerga-iruzurraren auzia edegia daben zergadunen zerrendea argitaratzeari buruzko azterketa juridikoa egiteari buruzkoa, zalantza batzuk sortu deuskuz; izan be, zeozelan, auzia edegita dagoala eta epai irmerik ez daukala adierazoteak errabakotasun-presuntzinorako eskubidea zeozelan urratu ahal izango leukela pentsau dogu.

Ikertua ari dan baten izena argitaratzea proponidu dozu. Guk uste dogu egokiagoa litzatekela Bizkaiko Ogasunagaz zerga-delituagaitik kondenauteko zergadunen zerrendea argitaratzea. Eta, hain zuzen be, zordun handien zerrendea argitaratzen danean, zor hori eragin dauen errazoa bereiztu ahal izan daitela eskatu ahal izango geunskio Ogasunari.

Halanda be, zuzenketa-eskean be ez dogu azpimarratu, azterketa juridiko bat egitea proponidu dozuelako, eta hor zalantzak argitu ahal izango jakuz. Esan gura dot ez dogula odolik egingo honegaz, aurkeztu dogun zuzenketa-eskean aitatu ez dogunagaz, hatan be.

Eta, bestetik, adierazo deuskuzu ez dozuela onartuko egin dogun zuzenketa-eskea, baina, tira, nik barriro pentsau daizuela eskatzen deutsut, argudiatu barri deutsudanaren harira.

Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martin.

A continuación, el representante del Grupo Popular Vizcaíno, señor Pagadigorria Wicke, tiene usted la palabra.



El Sr. **PAGADIGORRIA WICKE** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos y a todas.

Tira, ikusi daigun. Bilduk gaur aurkeztu deuskun proposamena, Sarasola andreak egin dauen errazoiaketa, egia esan, askotarikoa da, baina ez dot inondik eta inora argudio sendorik ikusten gure Foru Araua aldatzeko. Besteak beste, hemen argudio politikoak hasi diralako, eta ni ez naz horreetan sartuko, manikeismo bat egiten iruzur fiskalagaz permisiboagoak diranen eta ez diranen artean. Uste dot helburu komuna dala iruzur fiskalaren aurka burukatzea, eta Ogasunagaz dagozan zorrak kobrau daitezcan lortzea, jakina; bide batetik edo bestetik, epe baten edo bestean. Eta horretan danok gatoz bat.

Halanda be, guri ez jaku iruditzen, eta gaur aurkeztu dozun argudioan ez dogu ezer aurkitzen proposamen honen alde bozkatzeko. Besteak beste, hemen 125/2019 Foru Dekretuaren 2 helburu dagozalako, gure ustez, eta horreek argiak diralako geroratzearen prozedura horretan. Euretako bata helburu nagusia da, hau da, kobrotea, ezta? Horretan bat gatoz. Eta, bigarrena, batzuetan ahaztu egiten dogun kontu bat da, hau da, enpresak bizirik irautea. Hau da, Administrazioak finkatzen dauen prozedura horretan, geroratze edo zatikatze horren oinarria diruzaintzako gaitzasun-une baten dagozala egiaztatu daitela da, eta, beraz, hareen ahalmen ekonomikoak bere horretan irauten dauela eta ordaindu ahal izango dauela egiaztatea, ados? Hori da arau horren bigarren helburua.

Eta ezin dogu ahaztu hori. Hau da, Ogasunaren ikuspegitik be, enpresei euren egoera gaintzen lagundu behar deutsegu, eta baita dabezan zorrak ordaindu ahal izan dagiezan be, baita prozedura penala daukienean be, hemen beste gaiaren zatia dalako. Zuzenbide administratiboaren eta zuzenbide judizialaren, zuzenbide penal-ekonomikoaren eta Administrazioaren jardurearen arteko marra finean gagoz. Eta, orain arte, ondo funtzionau dau marra horrek, hau da, beti dagoz egoitza judizialean hartu leitekezan neurriak, Administrazioaren jarduna zeozelan mugatzen dabenak, enpresakaz prozedurearen jarduketei eta hareen zorrari jagokenez. Arabere gehiago, diputadu andreak bere azken berbaldean gogorazio euskun moduan, askotan egoitza judizialean delitu penalaren ondoriozko erantzukizun horreek atzeratzea edo zatikatzea ezarten da.

Halanda ze, gure ustez, funtzionetan ari dan eskema horren helburua, batez be enpresek dabezan zor horreek kobrotea da. Eta, bigarren helburua, enpresa horreek bizirautea, eta gaitasun hori izaten jarraitu dagiela, edo une jakin batetik suspertzea, eta Ogasunari ordaintzeko ahalmen ekonomiko hori izaten jarraitzea. Eta guk, gaur egungo eskemeari, dagoan moduan, nahiko ondo erexten deusagu.

Halanda be, zatikatzeko administrazio-prozedura horren barruan, gure lana da Zerga Administrazioaren barruan prozedura horreek ondo egiten dirala kontroletea, eta ez deusagu inoiz itxiko kontrol hori egiteari. Eta izan dogu kasu bat, zuk aitatu dozuna eta udabarrian prentsan askotan agertu zana. Eta ondo baloretan dira, zuzenbidearen arabera zuzenak dira, araudiaren arabera, eta ondo balorauta dago gaitasun ekonomiko hori, eta, batez be, geroratze eta zatikatze prozeduretan dabezan berme horreek, hori da-eta gaiaren muna.

Elkarrekin Podemosek esandakoari jagokonez, garrantzitsua dala uste dot Administrazioak ordainketa-gaitasun hori berrikustearena. Administrazioa gaitasun hori barik ixtea, esan ditudan bi helburuen kontrakoa dala uste dot, hau da, kobrotearen eta enpresak egoten jarraitzearen helburuak.

Argi itxi gura dot, hedabideetan agertutako atzerapenaren kasu hori benetan ezohikoa dala, eta azalpenak emon euskuezan. Hor baegozan inguruabar batzuk, prozedura administratiboa bera baino politikoagoak eta konplejuagoak izan leitekezanak. Eta hor, gure taldean, erne jarraituko dogu.



Baina ez gagoz ados aldaketa horregaz, ez batean ez bestean. Era berean, Administrazioari enpresen ordainketa-ahalmena baloretako gaitasun hori ez emoteagaz be ez gatoz bat, ezta atzerapenaren eta zatikatzearen tresna barik ixteagaz be.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Pagadigorria Wicke.

A continuación, el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Buenos días a todos y a todas.

Ahaldun jaun-androk, nik, printzipioz, uste neban aurkeztutako mozinoa izango genduala berbabide, hau da, Euskal Herria Bilduk aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena. Tira, ulertzen dot "iruzur" berbea sano ondo datorrela edozertaz berba egiteko, futbolaz izan ezik, harenbaten, baina baita futbolaz be. Iruzurraren idea herrikoi bat dago, zeinetan dana dan erabat iruzurra; eta bada iruzurrari buruzko idea bat, legezko egia, eta horretan zehetasun gehiago emoten da.

Halanda be, Euskal Herria Bilduk aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamenera mugatuta, iruzur fiskala egitegaitik ikertuak diran zergadunen tratamantuan indartze-neurri batzuk proponidu dozuez. Bada, horrek tratamantu arauemailea aldatzea dakar zerga-iruzurra egitegaitik zigor-arloan ikertuak diranek zerga-zorrak atzeratzea edo zatikatzea eskatzen dabenen kasuan. Eta datuak argitaratzea eta azterlan juridikoak bultzatzea be sartzen da horretan, gure Ordenamantuan publizidadea emon dakien espediente horreei.

Tira, iruzurraren aurkako burrukea indartzea eta gardentasun eta zigor sozial handiagoa daben Europako joerakaz lerrokatzea beti da positiboa, jakina, eta hemen aitatu da kasuren bat. Beti da positiboa. Positiboa da bai eredugarritasun publikorako, bai herritarrak edo kasu honetan zergadunak daukan justizia-pertzepzinorako.

Jakina, egin dozuen proposamenaren gaurko idazkerea onartuko balitz, horrek Ordenamantuan hondino ebatzi barik dagozan egoeretan (judizialki ebatzi barik, esan gura dot) ondorio juridikoak aurreratzeke arriskua ekarri lei. Adibidez, ikertua izate hutsagaitik ez onartzea atzerapen-eskaerak, beste barik. Tira, hori..., arean aurrerago ikusiko dogun moduan, zer gertatzen da kasu horretan? Lehenengo eta bat, errubakotasun-presuntzinoa guztiz murriztuta geratuko litzatekela. Eta, hori horrelan izanda, daborduko urratzen ari gara bai Europar Batasuneko legeria, aitatu dogun hori, bai barne-legeria bera be.

Batez be esanguratsua izango litzateke egoera hori, gerora, espedientea ikusi ondoren, atzerapen hori eskatu dauen erakunde hori errubakotzat joko balitz edo jarduketak artxibauko balira. Kalte ikaragarria egingo geuntsan, konpontzen gatxa edo ezinezkoa izango zana. Halanda ze, *non bis in idem* dalakoaren printzipio argiaren erabateko hutsunean eroriko ginateteke; birritan kondenuko litzateke.

Batez be adierazgarria litzateke eztabaida honetan lehenengo puntua, adierazotako testua sartzea, hau da, zerga-iruzurragaitik zigor-auziren bat edegita daben zergadunei zorrak atzeratzea edo zatikatzea eragozten dauena; eta, gainera, hori talde fiskalera



be zabaltzen dozue, eta elementu nahiko garrantzitsu hori aintzat hartu beharra dago. Tira, edozein ikuspegi juridikotatik, benetan, eta arabere gehiago zuzenbide konstituzionalean, idea hori guztiz neurribakoa da, baina guztiz neurribakoa, eta ez leuke eukiko inongo lekurik, inongo bermerik.

Izan be, ze balorazino egin geinke horri buruz? Talde fiskal horri aplikatuko litxakiola zigor bidebako bat, kontuan hartuta erantzukizun penala erabat personala dala eta ondorioak ezin jakezala berehala hirugarrenei helarazo, nahi-ta entearen erantzukizun penala bilatu geinken, baina izugarri ari gara konpliketan hain sinplea dan gai bat.

Ondo. Bigarren puntua. Zergen Foru Arau Orokorren balizko erreforma, proponiduten dozuen azterketa juridikoari jagokonez. Tira, ondo erexten deusat; azterketa juridikoa zilegi da. Hau da, azterketa juridikoa ezin hobeto egin leiteke. Zer aurkituko dogu? Ba, epai irmea izan aurretik edozein datu argitaratzea oraintxe bertan nekez izango litzateke bateragarria dagoan konstituzino-esparruagaz. Eta arabere gehiago, orain emoten ari diran auzitegi txikien epaiagaz beragaz, hau da, guztiz bateratuezinak izango lirateke.

Guk, Talde Sozialistan, ulertzen dogu iruzurrera daren mobimentuakaz kezkatuta egotea, iges egitearen iruzurra izan zein zerga-saihestearen iruzurra izan. Baina, gure ustez, positiboa izango litzateke, edo beharrezkoa izango litzateke, barbarako, beste aldagai batzuk sartzea, zilegi diran beste aukera batzuk, hain intrusiboak ez diranak. Esaterako: zergen kontrola eta kudeaketearen hobekuntzak, edo zergadunei laguntzea eta orientazinoa indartzea, prebentzino- eta komunikazino-plan publikoak, eta administrazinoen artean informazinoa trukatzeko kontrol kurutzatuak. Eta, nire ustez, horreetako asko daborduko martxan dagoz. Tira, eta hoba ez, ikuskapen-eraginkortasunaren gehitzea eta eragingarritasuna. Baina, dinodan hori badaukagula erexten deusat, edo neurri handi baten badaukagula uste dot.

Halanda ze, uste dot proponidu dozuezan neurriek gainditu egiten dabezala gaur egun errespetau behar ditugun mugak. Izan be, ezpabere, ez dakit, hara, une batez pensau eizue, lehenengo berbaldian entzun dodana estrapoletan badogu, idea horreek Ordenamentu Juridiko erkidera eta beste edozein gaira estrapoletan badoguz, pankarta bategaz eta beste zezozer gehiagogaz aterako ginanak kalera hemen berba egin dogun hirurok izango ginan, eta, arabere gehiago, ausartuko naz esaten Pagadigorria jauna be lehena izango zala gugaz etorten. Pagadigorria jauna ez dot ikusten hori ez dan beste lubaki baten; hemen entzun dodana..., tira, nik ez dot ezagutu; eta diktadura odoltsua ezagutu dot. Bardindu egingo geunke? Ez, uste dot gainditu egingo geunkela.

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón.

A continuación, el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka, tiene usted la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora presidenta, y buenos días a todos y a todas: junteros y junteras, periodistas, quienes se han acercado como personas invitadas, así como todas aquellas personas que están siguiendo este Pleno a través de streaming o telemáticamente.



Por tratar directamente el tema, lo primero que voy a comentar es que, una vez analizada la moción, una vez estudiada la moción presentada, así como la enmienda presentada por el grupo Elkarrekin Bizkaia, lo primero que voy a señalar es que no vamos a apoyar la moción. Y tampoco la enmienda, porque no modifica de forma significativa o de modo importante el contenido.

Ez jataz gustau emon diran azalpen batzuk; izan be, beste batzuetan beti azkena izaten naz berba egiten, edo normalean behintzat azkena izaten naz berba egiterakoan. Gaur, oster, uste dot mozinoa bera azaltzen baino beste gauza batzuei buruz berba egiten emon dala hainbat denpora, eta, jakina, esan behar dot, gure ustez, Bizkaian ez daukagula inongo arazo berezirik hidrokarburoen sektoreagaz ezta sektore horretatik sortu leiteken iruzur fiskalagaz be, ezta gitxiagorik be. Eta hori horrelan da Foru Ogasunak egiten dauen lanari esker.

Ogasun diputaduak hainbat berbalditan azaldu dauen moduan, besteak beste, hidrokarburoen sektorea benetan be sano kontrolauta dago, eta etenbako jarraipena egiten jake gordailu fiskalen mobimentuei eta merkaturatutako kantidadeen ezagutzeari. Horrek ez dau esan gura une jakin baten iruzur potentzial edo posibleren bat detektatu ezin danik. Baina halan jazoten danean, Foru Ogasunak atoan jarduten dau. Jarduten dau eta kasuistika zehatz hori ikertu egiten dau. Horrek guri eraginik sortu badeusku edo beste administrazio publiko bati, beste ogasun bat izan bada kaltetua, Fiskaltzari behintzat jakinarazoko deutso, daborduko delituaren helburu izan leitekezan zenbateko ekonomikoak badagoz.

Zentzun horretan, gure ustez, Foru Ogasuna animau egin behar dogu egiten ari dan lan hori egiten jarraitu dagian, zor guztiak zorrotz kontrolau daizan, Bizkaiko administrazio guztiak bardin tratau daizan, eta, hain zuzen be, iruzurren bat egiteko diseinatu egon leitekezan egitura jakin batzuen jarraipen berezi hori egin dagian. Baina, jakina, Bizkaian ez gagoz, edo ez daukagu arazo berezirik sektore horregaz, jarraipen handia egiten jakolako.

Zertaz doa mozinoa? Azalpen batzuen eta besteen artean, egia da azkenean horren mamina azaldu dana. Proponiduten dana da ordainketea geroratzeko eskaerak ez onartzeko beste errazoi bat sartzea, subjektu pasiboak zerga-iruzurrari lotutako delitu-auzirik edegita daukanean. Zuzenketa-eskeak, hasiera baten, irismena zabaldu egiten dau, eta planteetan dau subjektu pasiboa zerga-iruzurraren zantzu batzukaitik ikertua izan ezker be ez daitela onartu eskaerea. Halanda be, gero, egia da idazketan zeozelan mugatzen dana ez onartzearen errazoi kobrantzearen eraginkortasuna arriskuan egon leitekela estimetan dan kasuetara. Eta, azkenik, azterlan juridiko bat be planteetan da, ea posible dan edo egokia dan zerga-iruzurragaitik auziren bat edegita izan leikien subjektu pasiboen zerrendea argitaratzea aztertze.

Gure eretxian, atzerapen-eskaerak ez onartzeko erispide edo errazoi barri lez sartzea eta, hain zuzen be, hori berori izatea ez da zuzena; ez da horrelan izan behar. Eta ez da halan izan behar, asko laburtuta, ze, azkenean, uste dogu ez ginatela errespetetan egongo edozein administraduren errubakotasun-presuntzinoa, zure erispideakaz legez eztabaidatzen egon leitekela likidazioak edo Foru Ogasunaren zerga-erretxiak, batzuetan fede onez, beste batzuetan ez, baina asko fede onez izan leitekez.

Y me ha parecido también curiosa la reflexión que ha hecho Euskal Herria Bildu en relación a la enmienda propuesta por Elkarrekin Bizkaia.

Izan be, beharbada baten bat beste barik ikertua izatea ez onartzeko errazoi lez sartzea alde aurretiazko egoera bat izan leitekela adierazo dau, hasiera-hasierako egoera, baina nik dinodana zera da: nire ustez, aurretiazkoa be izan daiteke baten batek auzi penala edegita euki ahal izatearena be sartzea. Izan be, danok jaubetzen gara, eta ni naz



lehenengoa defendiduten, zalantza barik, Administrazioak errazoi izaten dauela normalean, Administrazioa, emoten dauzan urratsetan eta bere jarduera guztietan, sano bermatzailea da-eta; beraz, segurtasun handiz jokutzen dau.

Baina autortu behar dogu, era berean, kasu batzuetan, nahi-ta gitxienak izan, administrazioak errazoiak daukala edozein erabagitan edo administrazio-ebazpenetan, eta baita zerga-ebazpenetan be. Izan be, zorionez, nik ez dot ezagutzen Bizkaiko Foru Ogasuna tartean egon dan kasurik, ez eta beste hiru lurraldetakoa be ez, foru-lurraldeak eta Nafarroa; baina azken urteetan, azken urtean, egon da kirol profesionalen eta arte eszenikoen profesionalen kasu mediatikoren bat, eta azkenean defendidu egin dira eta Estaduko Agentziak balizko delitutzat jo eban edo jo gura izan eban horretatik errubakotzat jo dira. Hori horrelan izan da. Halanda ze, ordainketa-geroratze guztietan, aldi berean berme nahikoak eskatzen eta ezarten dirala jakinda, eta bermearen nahikotasunaren balorazio hori organo funtzionarioalek egiten dabela jakinda, gure ustez, ez da bidezkoa atzerapen-eskaera bat ez onartzeko errazoi barri hori sartzea, berez, atzerapena bermatuta dagoalako.

Era berean, emon daigun Administrazioak errazoi daukala, eta zerga-delitu bat dagoala dinoan epaile bat be badagoala. Izan be, epaile hori bera da identifiketan edo adierazoten dauena Zerga Administrazioak ze zifra ekonomikoren arabera egin behar dauen ordainarazpena, zer dan bidezkoa eta, aldi berean, epaile hori berori da erantzukizun zibilari erantzuteko zigorraren edo ezarritako isunen ondorio diran zenbateko horreen ordainketea geroratzea emoten ari dana. Halanda ze, hori be Zigor Kodean jasota dago, eta, zalantza barik, gure ordenamentu juridikoak ezin dau kontrakoa esan; arabere gehiago, gauza bera dino.

Eta argitalpenari jagokonez, parametro berberak erabili behar doguz. Gure ustez, ezin da argitaratu ikertuta egotearen edo auzi penal bat edegita egotearen egoera hori, benetan ez litzatekelako errespetauko administrazioaren errubakotasun-presuntziorako eskubidea. Zigortua danean, dana dalakoa izango da, eta argitaratuko da.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lerma Mentxaka. Pasaremos al turno de réplicas. Para ello, la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Sarasola Lartategi, tiene usted la palabra.

La Sra. **SARASOLA LARTATEGI** andreak: Muchas gracias de nuevo, señora presidenta.

Efectivamente, en relación a la moción que hemos planteado, hay dos cuestiones que hay que debatir. Por un lado, el de la presunción de inocencia y, por otro, el de la facultad de cobro, o el de valorar las posibilidades de Hacienda para el cobro de las deudas. Y esas dos cuestiones son las que hemos valorado a la hora de elaborar la propuesta.

Eta, egia esan, sano deigarriak egin jakuz talde ezbardinok errubakotasun-presuntzinoari buruz planteau dozuezan argudioak. Deigarri egin jakuz, izan be, gure proposamenak errubakotasun-presuntzinoaren mugak gaintitu egiten dituala aitatu dalako, konstituzino-mugak, hain zuzen be, gure taldea planteetan ari dana lurralde erkideko araudian dagoana baino askoz be mekanismo bermatzaileagoa danean. Lurralde erkideko araudiaren arabera, Zerga Administrazioak Fiskaltzari, eskumendun jurisdikzinoari, erruduntasun-testigantzea helarazotea nahikoa da geroratzeke edo zatikatzeke eskaera bat ez



daiten onartu. Horregaz nahikoa da zorra geroratzeko edo zatikatzeko eskaera bat ez daiten onartu.

Eta, halanda be, gure taldea planteetan ari dana *check* bikotzeko ariketa moduko bat dala esan geinke. Planteetan ari garana da Administrazioa izan daitela balorauko dauena delitu fiskalaren zantzurik ete dagoan, eta, erruduntasun-testigantzea Fiskaltzari edo eskumendun jurisdikzinoari emoteaz gain, eskumendun jurisdikzino horrek benetan auzia dagoala ondorioztatu dagiala, eta jagokon prozedura edo beharrezko prozedura judiciala zabaldu dagiala. Hori da gure taldeak proponidu dauena eta, hain zuzen be, errubakotasun-presuntzinoari askoz be berme handiagoa emoten deuto erkideko lurraldearen araudiak berak gaur egun daukana baino. Izan be, horregaitik geunkazan zalantzak Elkarrekin Podemosen proposamenaren inguruan. Izan be, Zerga Administrazioak egiaztapen- eta ikerketa-prozedura bat edegita izatea eta delitu-zantzuak dagozala pentsetea nahikoa izan daitela planteetan dau. Halanda ze, benetan, ez doguz ulertu ez Talde Sozialistearen kritikak, ez Euzko Alderdi Jeltzalearenak, ezta, kasu honetan, Elkarrekin Podemosenak be, eta sentiduten dogu. Izan be, zuok planteautakoa eta zuok argudiautakoa ez datoz bat guk planteau dogunagaz. Elkarrekin Podemosek proponidutakoa eta gaur egun erkideko lurraldeko legedian dagoana baino askoz be bermatzaileagoa dan zeozer proponidu dogu. Hau da, pankartaren baten aurrean jartera urten behar bada, ez dakit nor aterako litzateken pankarta horren atzean.

Eso por un lado; y luego, por otro, se decía que si a los deudores que pueden estar involucrados en delitos de cobro se les dice que no aceptaremos las exigencias de aplazamiento de sus deudas, tal vez se comprometería la capacidad de Hacienda para cobrarlas, y no es así. La capacidad de Hacienda para cobrar las deudas es diversa, variada, de gran alcance. Con el resto de deudores, con todos los deudores, normalmente cuando hay deudas, el procedimiento para cobrar esas deudas es solicitar que paguen, y normalmente, todos y todas las contribuyentes pagamos en ese primer punto; todas las y los contribuyentes modestos, cuando Hacienda nos dice que tenemos una deuda, normalmente pagamos. Unos pocos, normalmente, que tienen mucho, intentan no hacerlo. En estos casos, ya existe el procedimiento ejecutivo, se inicia el apremio. Y en estos casos también se cobra. A partir de ese momento Hacienda tiene la posibilidad de embargar los bienes de estos deudores, etc., y poder cobrar las deudas a través de ellos.

Y en este caso, en el que está abierta la causa judicial, en este caso que proponemos, además, a raíz de esa causa judicial, estarían intervenidos los bienes de los y las contribuyentes y estarían muy controlados. Por tanto, sería mucho más fácil para la Administración Tributaria cobrar esas deudas una vez que la causa judicial está abierta.

Y, por último, solo decir que, además de publicar la lista de quienes tienen causa judicial abierta por la realización de un posible delito, lo que estamos planteando es que se haga un ejercicio o un análisis jurídico, precisamente porque ahí sí tenemos la duda de que eso fuera o no constitucional. Por lo tanto, les digo, sinceramente, que no han leído como es debido nuestra propuesta ni nuestra moción, ni la han analizado como es debido.

Y por mi parte, nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Sarasola Lartategi.

Y a continuación, la representante del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.



La Sra. **DE MADARIAGA MARTIN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Uste dot txarto bideratzen ari garala eztabaidea. Uste dot hemendik mezu bateratu bat emoten atera beharko ginatékela, hau da, Bizkaiko Legebiltzarra bat datorrela iruzur fiskalaren aurka burrukatzeko. Ikertuak izaten ari diran zergadunen kasuan (bardin da Foru Ogasuna ikertzen ari dan, gu geu, edo Fiskaltzan auzi penalen bat ete dagoan edegita) geroratzeko eta zatikatzeo eskabideak ez daitezala onartu esaten ari gara. Eta argitaratu daitezala zerga-iruzurragaitik kondenuak izan diran personak, edo horretarako azterlan bat egin daitela.

Foru Ogasunari iruzur egin deusien persona juridikoak edo zergadunak ditugu berbagai. Izan be, ez gara edozertaz ari, edo ez dinogu ustez iruzur egin deusienik Foru Ogasunari. Hori zerga-iruzurrak egitea da, era kontzientean, borondatez, zergen ordainketeari iges egitea. Foru Ogasunari gitxiago ordaintzeko ostendu egiten dira diru-sarrerak, gastu faltsuak autortzen dira, pantaila-soziedadeetan jarten dira, datuak manipulau egiten dira. Eta, nire taldetik behintzat, eskatzen ari garana da horrelango enpresei ez dakiela mesede-traturik emon. Uste dot erraza dala, sano erraza. Ez onartzeko elementu bat sartzea besterik ez da, Foru Ogasuna engainauta sortu daben zor bat geroratu edo zatikatu ahal izateko eskubiderik izan ez dagien.

Halanda ze, hortik abiauta, guk uste dogu garrantzitsua dala elementu hori Araudian sartzea, kontrol gehiago egiteko kontua da-eta. Eta uste dot gaur, barriro esango dot, bat egin beharko geunkela Foru Ogasunari iruzur egitea erabagiten dabenei oztopo gehiago jarri degieguzan.

Esan leiteke errubakotasun-presuntzinoa finantza-interes publikoen babesaren gainetik ipinten dala. Eta hori ez da errubakotasun-presuntzinoaren babesa *versus* finantza-interes publikoen babesa; izan be, errubakotasun-presuntzinoa errespetau behar da, eta, horrezaz gainera, finantza-interes publikoak babestu behar doguz.

Halanda ze, ikuspuntu horretatik, nik, Sarasola andrea, barriro galdetuko deusut. Aitatu dozu gure proposamena ez dala bermatzailea. Baina zeozer izatekotan bermatzailea da, hatan be, eta horixe esan deusugu. Hain zuzen be, elementu bat sartu dogu, Europar Batasunak eta bere xedapenek bermatzen dabena, eta horrexek bihurtzen dau bermatzaile gure proposamena. Hau da, xedapen horreen arabera, zorra kobretako arriskua dagoan guztietan, horrelango neurriak hartu leitekez, hau da, geroratzek eta zatikatzeak ez onartzea erabagi daiteke. Eta ohartxo horrek, hain zuzen be, bermea sortzen dau.

Eta, gure aldetik, horixe esan dot. Proposamena idatzi dozun moduan, ados egon geintek ez alde baten, baina denporearen ikuspuntutik hutsunea sortzen dauela esan deusut, kanpoan ixten ditu ikertuak, eta, batez be, segurtasun juridikorik eza dago. Eta esan deusut, badira European bidea erakusten deuskuen adibideak eta esperientziak. Ez dogu kea asmau behar.

Baina, batez be, kontraesankorra iruditzen jaku dinoskuzunari jagokonez, eta zera da, ez dozue irismena zabaldu gura, ez dala bermatzailea dinozulako; baina bigarren puntuan auzi edegia izateagaitik ikertutakoak zerrenda baten sartzeko eskatzen dozue, eta zerrenda horretan hareen izena eta abizena argitaratuko ei dira. Eta, gure ustez, hori kontraesankorra da, ez dakit azaltzen nazan. Zeozelan, ikertuak izaten ari diran personen kasuan, baina delitua egin daben ala ez jakin barik (horri buruzko behin betiko ebazpenik ez dagoalako), hareen izena argitaratzea proponiduten da; baina ez dogu hori sartu gura, hau da, publiko egingo dogu baina ez dogu sartu gura ez onartzeko elementu lez, zatikatzeo eta zorrak geroratzeko eskaeren artean.



Halanda ze, tira, horregaitik guztiagaitik, ez dogu aurka egingo, baina ez dogu aldeko botorik emongo. Baina, egia esan, barriro dinot, uste dot hemendik, Ganbera honetatik iruzurraren aurkako batasun mezu bategaz atera beharko ginatékela.

Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martin.

El representante del Grupo Popular Vizcaíno, señor Pagadigorria Wicke, tiene usted la palabra.

El Sr. **PAGADIGORRIA WICKE** jaunak: Muchas gracias de nuevo.

Álvarez Castrejón jauna, ez eizu zalantzarik izan: pankarteari jagokonez egongo naz, eskubideak urratzeari jagokonez; ez eizu zalantzarik izan. Egon behar izan nintzanean egon nintzan moduan, barriro egon beharko banintz egongo nintzateke.

Nik barriro esango dot, uste dot argudio guztiak aitatu ditugula. Baina, funtsean, helburuak, zuzenean kontrakoak ez diranak, barriro be planoan jarrita, hau da, helburuetako bat enpresek jarraitu dagiala da helburuetako bat, bere betebeharriskalei aurre egin ahal izateko. Eta geroratze hori Ogasunak euki leikezan mekanismoetako bat da, enpresa horren jarraipenerako eta, azken baten, dituan zorrak ordaindu daizan.

Hau da, gu ez gagoz ados Podemos taldeak esan barri dauen horretan; ez gara kontrako mezua emoten ari iruzurraren aurrean. Nire ustez, sano positiboa dan mezu bat emoten ari gara, hau da, ordenamentu juridikoa Administrazioari iruzurraren aurkako burrukan laguntzeko eta enpresei segurtasun juridikoa emoteko dagoala.

Ez gagoz ados errazoi orokor bat edegiteagaz, hau da, edozein zantzu, egiten dauena egiten dauela, atzerapen horren debeku izateagaz, besteak beste, Administrazioak balorau behar dauelako funtsezko elementu hori, hau da, zorrak itzultzeko gaitasun hori. Askoz okerragoa da, azkenean, bermeak ejekutau behar izatea, edo enpresak likidazioan eukitea, ejekutau eta zorrak kobretan saiatzeko. Nire eretxian, hori printzipio orokor bat da, eta horri buruz egin dogu berba.

Zentzun horretan, askotan aitatu ditugu hemen joerak, Europako Zuzentarauak jarten doguz erreferentzia lez. Egia da Europako zuzentarau batzuen helburua dana Estaduak erispide komun batzuetan sartu daitezala, baina European gai hori zelan tratetan dan agirikoa da. Izan be, Frantzian, talderen batek aitatu dauen moduan, Frantzian, Alemanian, hondinokarren be badago atzeratzeko aukerea. Eta, fiskalidateari jagokonez, jakin badakigu estadu nazionalak desbardinak dirana.

Baina, azkenean, kontua segurtasun juridikoa lortzea da, eta enpresek zor dabena ordaindu dagiela.

Halanda ze, barriro dinot. Batzuetan, era orokorrean “iruzur fiskala” deitzen deutzagun hori (hau da, diru-sarrerak ezkutuan gordetea, edo diferentzia bat, zertan zergapetu behar dan hainbat aldi fiskaletan Soziedadeen gaineko Zerga baten) errekurridu egin leiteke epai hori, eta, azkenean, likidazio hori, izan leiteke urte batzuk geroago errazoa emon ahal izatea enpresei. Enpresa horri lagundu egin deutzagu zorrak geroratzeko edo azken



zorra ordaindu beharrik ez izateko daukan aukeran, epai judizial batek askatu egin dauelako. Beraz, ez dogu uste neurri horrek hobetzen dauenik zerga-zorrak berreskuratzea, kasu honetan funtzionetan ari dan moduan berreskuratzea; ez dogu uste mozino honek benetan hobetuko dauenik eskema hori.

Eta iruzurrei eta hidrokarburoei buruz esan danari jagokonez, Administrazino honek eta beste zerga-administrazino batzuek daben burrukea da hori. Eta BEZaren gordailu fiskalen araudi barrian egin dogun moduan, zergen ordainketea saihesteko aukerak eraginkorrak izan daitezcan mugak jarri behar doguz. Kontua ez da merkataritza-trafikoari segurtasun juridikoko elementuak kentzea, ezpada, tira, enpresek sektore hori garatuz egin leikienaren (hidrokarburoen sektorea, kasu honetan) eta zergen ordainketan benetan aurre egin behar deutesienaren arteko oreka horretan, balantza horretan, Administrazinoak beti izan dagiala abantaila bat zerga-saihestearen aurrean, batez be kasu honetan BEZaren ordainketearen aurrean.

Nire eretxian, urratsak emoten ari gara eta, zentzun horretan, talde hau beti aurkituko dozue horretarako.

Eta une batez zerrendeari buruz berba egin gura dot. Tira, zerrendei buelta bat emon geinkio, ea benetan zelan dagozan, baina gure ustez proposamen hori edegiegia da. Harenbaten dagozan ebazpen judizialei jarraitu egin beharko deutsegu, datuen babesari jagokonez, baina gu prest egongo ginatke benetan pentsetako ea iruzur fiskalaren aurka burrukatzeko iruzurgileei eta epai judiziala dabenei publizidade handiagoa emon behar ete jaken.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Pagadigorria Wicke.

El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Pagadigorria jauna, ez dot inoiz zalantzan ipini beti egongo zarala egia eta errazoia dagozan tokian. Nozonoz erratu egin zaitekezan arren, baina gitxitan, besteok lez.

Ondo. Ez dakit, hau ez da iruzur fiskalaren burrukearen alde eta aurka dagozanen arteko liskarra. Ze zorakeria da hori? Iruzur fiskalari aurre egiteko modurik onena norberaren egintzen segurtasun juridikoa bera da; izan be, ostean, edozein jarduketa balio barik geratuko litzateke, eta, orduan, iruzurgileek txantxak egingo leukiez, atetik, hau da, barre-karkaxada galantak egingo leukiez, jakina baietz, inongo zalantza barik.

Hara, hasteko, zure proposamenaren egungo idazketeak judizialki hondino konpondu barik dagozan egoeretan ondorio juridikoak aurreratuko leukez, horrelan, dinodan lez . Eta judizialki erabagi behar da, azken unean, gai administratibo hutsa ez ete dan. Azkenean, epaileak amaituko dau, eta epaileek adierazoko dabe euren asmoa, epai baten bidez.

Halanda ze, hasteko, ordenamentuan dagozan neurriak hertsatzaileak



badira, azken baten ebatzi barik dagozan egoerak baliobakotzerainokoak badira, eta kalteak eta galerak eragiten badabez, gero ordaindu beharko diranak, beste barik, jakina, horrek ezin dau inongo lekurik euki. Arabere gehiago, adibidez, zein segurtasun juridikoko mezua bialdu geinkio edozein zergaduni?

Edozein zergapekok, une jakin baten 120.000 eurotik gorako desfasea izan badau be, zantzu errazoiakaitik, Fiskaltzan amaitzea eragiten dau. Zantzuak, ez froga zehatzak, ezpada zantzuak. Une horretatik aurrera, hor gagozanean, ezin da geroratu, ez dago beste inongo egoerarik.

Halanda ze, gero artxibetan bada, edo, beste barik, epaiketan errubakotasuna egon ezker, zelan egingo dogu hori? Zelan zuzenduko doguz aurreratu ditugun kalte horreek? Administrazioen aldetik jagokon kalte-ordainaren bidez. Izan be, Administrazioak bermatzailea izan behar dau, baina bermeak ez dau prozedurea baliobakotu behar. Hemen, jakina, Ganbera honetan ez dago iruzur fiskalaren aldeko inor.

Baina, esango dot, bai, burutazinoak egon badagoz, baina nozean behin entzuten diran berba potoloak, egia da, eta harenbaten eztabaidearen berotasunean esaten diranak. Mesede-tratua entzun barri dot. Iruzur eginda, iruzur eginda, horrelan, nahita iruzur eginda; hau da, asmo txarragaz. Mesede-tratua. Zer da mesede-tratu hori? Ez dakit, uste dot hortik ari garala entzuten. Zer da mesede-tratu hori? Zergadun batzuei mesede-tratua egiten al jake? Zergadun batzuei mesede egiten jakela ulertzen badozue, badakizue ze bide jarraitu behar dozuen. Hori jazoten bada, zergadun batzuei tratua mesedegarria emoten bajake joan zaiteze egoera hori salatzen.

Halanda ze, sistema bat planteau behar dogu, non positiboa eta beharrezkoa dan jagokozan neurriak sartzea. Guk neurri batzuk proponidu doguz gure ordenamentuan, mekanismoak egon daitezcan, eskakizun indartuak, bermeak, ikuskapenaren kontrol indartua, bideragarritasun-neurriak. Horrelan esanda, neurri lasaiak dirala emoten dabe, hau da, ezer proponiduko ez bagendu lez. Ikerketa baten sartuta dagoanaren alde aurretiko fusilamentua be proponidu geinke; izan leiteke, baina ez dakit fusilau egingo dabenari gustauko litxakion. Ez dot uste.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Álvarez Castrejón.

A continuación, el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka, tiene usted la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, muchas gracias de nuevo, señora presidenta.

Nik ez daukat zalantzarik, nahi-ta lehenago adierazo dodan ez jatala gustau Ganbera honetako kideren baten lehenengo berbaldia. Ez dot zalantzan ipinten mozinoa aurkeztu dauenaren helburua bide onean beste ekarpen bat gehiago egitea dala, iruzur fiskalaren aurka lan egiteko. Baina gure taldean neurri hori ez dala egokia uste dogu, okerra dala. Baina, jakina, erabat ados nago, nire aurretik berba egin dabenek adierazo daben modu berean, danok atera beharko ginatékela Ganbera honetatik mezu beragaz, eta bat gatzala danok iruzur fiskalaren aurkako burrukearen alde, eta iruzur fiskalaren kontra. Ez dot zalantzan jarten hori danik Ganbera honetako edozein kideren borondatea eta asmoa. Uste dot horretan ari garala danok.



Transmitidu gura izan dodan beste idea bat da, batzuetan, nahastu egiten dirala uste dot...; azaltzen dogun moduaren arabera, atzerapen bat eskatu ahal izatea tratu berezi bat emoteagaz edo baten bati mesedezko tratua emoteagaz nahasten dala uste dot eta, jakina, azkenean azaltzen badogu edo iruzurgile potentziala dala identifiketan badogu, itzelezko iskanbila sortuko dogu. Baina jarri daigun adibide lez Unai Lerma, ni neu. Atzerapena eskatzea bururatu ahal jat, baina zorionez niretzat, ez deustie emongo, ez diralako baldintzak emoten. Hau da, aldi baterako ordaintzeko ezintasuna egotea oinarritzina da; eta gero, azterketa bat egin ostean, ordaintzetea egin leitekela ikusiko da. Baina ordaintzeko ezintasuna egon behar dau eta, horretarako, dokumentu batzuk behar dira; gogoan ditudanen artean, soziedadeen urteko azken bi kontuak, etab., etab. Izan be, azkenean, geroratzea ez da Urliari, Berendiari edo enpresa bati edo beste bati egiren jakon mesede-tratua, ezpada Ogasunak zorra kobrauko dauela bermatzeko modu bat; beste epe batzuetan egingo dau, baina zorra kobrauko dauela bermatzeko modu bat da, eta, lehen be adierazo dan moduan, jarduera ekonomikoak aurrera jarraituko dauela bermatzeko modua.

Berba gitxitan, ez gatoz bat neurriagaz; izan be, gure ustez, ez dau errespetetan errubakotasun-presuntzinoa, balizko delitu penala egiteagaitik auzi bat edegita eukiteak edo, arabere gehiago, ikertua izateak Ogasunean beste geroratze batzuk edo ordaintzeta-geroratze bat onartzeko aukerarik ez izatea badakar. Horrezaz gainera, azpimarratu gura dot, administruak errazoirik ez daukanean, esan daigun, eta zigortua danean, eta delitu fiskal bat benetan gertatzen danean, epaileak berak erabagiten dauela zein dan zenbatekoa, ordainarazo behar dan zenbatekoa, zelan ordainduko dan, atzerapenik dagoan ala ez. Eta, alde horretatik, inguruabar horreek guztiak ez ditu Foru Ogasunak onartzen, hori egia da. Izan be, zor hori ordaintzeko modua epaileak erabagiko dau.

Eta argitalpenari jagokonez, benetan zigorra dagoanean, delitu fiskal hori argitaratu egiten da. Beste kontu bat da ez dala argitaratzen gure eskumeneko zerga-arloko gure ordenamentu juridikoak dinoalako, ezpada Podere Judizialaren Lege Organikoan adierazoten dan moduan. Estaduko Aldizkari Ofizialean hainbat informazino eta datu argitaratzen dira, iruzurgilea nor dan, delitua nork egin dauen, zein dan delituaren kalifikazino, eta, jakina, baita ezarritako zigorrak be.

Amaitzeko, barriro dinot uste dodala danok batera ateraten garala, hau da, ez dodala zalantzan ipinten Ganbera honetako kide bakar baten borondatea, eta danok gagozala iruzur fiskalaren aurkako burrukearen alde, eta horretarako gure aldetik onena emoten saiatzen garala. Eta Foru Ogasuna animau gura dot lanean jarraitu dagian, orain arte egin dan moduan, zerga-zor guztien kontrol zehatzagaz, administruaei eta administrau guztiei tratu bardina emonda, eta iruzurren bat sortu leikien egiturei jarraipen berezia eginda.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lerma Mentxaka.

Y una vez finalizado el debate, someteremos a votación la moción. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 48 votos. Han sido 13 votos a favor; han sido 33 votos en contra y 2 abstenciones. Por lo tanto, no se aprueba la moción.

El segundo punto del orden del día.



La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.12/E/2025/0001406](#))

**Autor:** De Madariaga Martin, Eneritz (GM/TB-EB)

**Asunto:** Medidas para la puesta en marcha y mantenimiento de servicios o puntos de abastecimiento básicos en el medio rural.

**Documento Principal:**

([R.E.12/E/2025/0001406](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (54A)

**Expediente:** ([12/B/20/0002052](#))

2.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa ([12/E/2025/0001406SE](#))

**Egilea:** De Madariaga Martin, Eneritz (GM/TB-EB)

**Gaia:** Landa-ingurune oinarriko hornidura-zerbitzuak edo -guneak martxan ipinteko eta mantentzeko neurriak

**Dokumentu Nagusia:** ([12/E/2025/0001406SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (54A)

**Espediente:** ([12/B/20/0002052](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, la representante del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martin, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTIN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Tira, joan den bagilaren 25eko Kontroleko Osoko Bilkuran adierazo genduan moduan, Bizkaiko landa-eremuetako udalerrri askok ez dabe bermatuta elikadura lako oinarriko eskubide bat izateko aukerea. Eta, horregaitik, mozino bat planteetan ari gara, hain zuzen be, arazo horri konponbidea emotea helburu daukana.

Elkarrekin Podemosek bermatu gura dau persona guztiek, Bizkaiko herri guztietan, oinarriko elikadura-hornidurarako zerbitzu bat, denda bat, gune bat izan dagiela. Horregaitik, gure proposamenaren lehenengo puntuan proponidu dogu Aldundiak, Eskualdeetako Landa Garapenerako Programen esparruan, zerbitzu hori ez daben landa-ingurune guztietan zerbitzuak edo elikadura-guneak martxan jartea bultzatu dagiala.

Hara, Bizkaia osotzen daben 113 udalerrietatik 78 5.000 biztanle baino gitxiagoko udalerrriak dira. Herri horreek landa-eremuetan dagoz, eta horreetako batzuek oinarriko zerbitzu batzuk dabez, esaterako, eskolak, farmaziak eta kontsultategiak. Halanda be, biztanleriaren sakabanatzeak gora egin ahala, eta biztanleria-kopuruak behera, behera egiten dabe udalerrriak bizilagunei eskaintzen deutsezan zerbitzuak be. Eta horixe da, hain zuzen be, herri gehien-gehien kasua: sano txikiak dira eta landa-inguruetan dagoz, eta horreetako askok ez dabe dendarik edo oinarriko elikagaiez hornitzeko lekurik.

Izan be, halan autortzen dau Euskal Autonomia Erkidegoko landa-ingurunearen karakterizazio-lanak, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 7/2022 Legea aplikau zanean egin zanak. Eusko Jaurlaritzak Foru Aldundiakaz batera egindako lan horretan adierazoten da Bizkaiak arreta bereziko eremu lez katalogautu dagozan 94 landa-eremu dituala. Zer esan gura dau horrek? Horrek esan gura dau, 94 eremu horreetan, landa-eremuetako 17 udalerrigaz bat egiten daben horreetan, Bizkaian, beharrezkoa dala esku hartzea alderdi batzuk hobetzeko.



Baina, hain zuzen be, nik bizi-kalidatea eta bizilagunen ondoizatea hobetzeko esku hartu behar izateari emon gura deutsat lehentasuna. Helburua, hain zuzen be, bizi-kalidate ona ziurtatzeko beharrezkoak diran azpiegiturak, zerbitzuak eta ekipamentu publikoak hobetzea da, eta ez dabe oinarritzko produkturik lortzen; izan be, nire ustez, guztiok bat egingo dozue nigaz, argi dagoalako bizi-kalidatea ahuldu egiten dala.

Eta kontua ez da guk dinogula, ez da Elkarrekin Podemosek bakarrik dinoala, ezpada karakterizazio-lan horretan horrelan jasoten dala. Zonaldeen kalteberatasun-mailea kalkuletako eta bizi-kalidatearen mailea kalkuletako neurketa-adierazleetako bat txikizkako saltokien edo jatetxeen kopurua da, hain zuzen be. Hau da, besteak beste, elikadura- edo edari-produktuak saltzeko saltokirik dagoan ala ez baloretan da.

Ba, txostenak ondorioztatzen dau 94 eremutan ez dagoala bermatuta elikagaietara heltzeko aukerea. Eta horrek erakundeen inplikazioa eskatzen dau, baita Foru Aldundiarena be. Eta eskatzen deutsaguna da zerbitzu horreek edo elikadura-gune horreek martxan jartea bultzatu dagiala zerbitzu hori ez daben landa-ingurune guztietan.

Zer propositu dogu denda horreek martxan jarri daitezcan laguntzeko? Aldundiak laguntza ekonomiko zuzena zabaldu dagiala, baina, batez be, aldizkakoa, lokala martxan jarten laguntzeko ez ezik (hori guztia daborduko badago-eta), salmenta-puntu horreek mantendutecan laguntzeko be.

Ezinbestekoa da Aldundiaren aldizkako laguntza ekonomikoa. Hara, errentagarritasunik eta bideragarritasun ekonomikorik eza da denda gehienak ixteko errazoi nagusia, baita zerbitzu hori ez emoteko funtsezko errazoi be. Argi dago eskaria txikia dana. Biztanle gitxi gara herrietan, gehienak edadekoak dira. Salmentak txikiak dira. Kontsumoa mugatua da, eta kostu finkoak sano altuak dira: errentea, argia, aseguruak, baimenak.

Jakina, diru-sarrerek ez dabez gastuak ezelan be konpentsetan, oinarritzko produktuetan aldea sano txikia dalako. Horregaitik erakunde guztien inplikazioa garrantzitsua da, baita Aldundiarena be. Eta, horretarako, gauza bat ulertu behar da: zerbitzu publiko bat dogu berbabide, beharrezko inbersino publiko bat, ez da gastu bat. Inbersino horrek, gainera, ondorio positibo ugari dakar herrietan: personen bizi-kalidatea hobetzen dau, edadekoen autonomia bultzatzen dau, landa-ingurunean biztanleria finkatzen laguntzen dogu, ekonomia bultzatzen dogu, enpleoa sortzen dogu, ibilgailu pribaduan egiten diran joan-etorriak murrizten ditugu, eta, batez be, landa-eremuko biztanle guztiei oinarritzko elikagai-produktuak eskuratzea bermatzen deutsegu.

Horren haritik, ezinbestekotzat jo dogu, gainera, aldi berean etxez etxeko banaketa-zerbitzua izango daben denda fisikoak martxan jarrea, landa-ingurune errealitate demografikoa kontuan hartuta. Izan be, landa-ingurune zati handi bat edadekoa da, eta ez dauka beti mobiduteco gaitasunik edo aukerarik, eta etxez etxeko zerbitzuak persona guztiei helduko jakela bermatzen dau.

Amaitzeko, landa-ingurune biztanle gehienek, lana dabenak, landa-eremutik kanpo lan egiten dabenez, eta, gainera, herrietan elikagai-hornidurarako zerbitzurik ez dagoan ezker, asteko edo hileko erosketea herritik kanpo egitea dakar horrek, lanetik hur, eta askotan, merkataritza-gune handietan.

Eta, ohitura horreek aldatzen joan daitezcan, Aldundiak landa-garapeneko alkatteakaz lankidetzan jardun dagiala propositu dogu, beharrezkoak diran baliabide tekniko eta ekonomikoakaz, tokiko eta hurbileko kontsumoa sustatzeko kanpaina bat abian jarteko, landa-ingurunean kontsumo-ohiturak aldatzen laguntzeko. Jakina, tokiko kontsumoari balioa emoteaz gain, tokiko produktuari be balioa emongo deutsan kanpaina.



Gobernuari eusten deutsien taldeek gure proposamenari zuzenketa-eske bat aurkeztu deutsie. Atzo ez dogula onartuko aurreratu neutsuen. Nire ustez, planteetan dozuena daborduko martxan dagozan gaiak dira. Lehenengo puntuari jagokonez (salmenta-gunerik ez daben udalerriak identifiketea), hori lehen aitatu dodan karakterizazino-azterlanean egin zan. Eta erakundeen arteko lankidetzeari jagokonez, horixe berori egiten da, landa-garapeneko programara doazan funtsek jarduera horreek jasoten dabez. Apur bat harago joateko eskatzen ari gara.

Gure aldetik, besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martin.

El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Berges Fernández, tiene usted la palabra.

El Sr. **BERGES FERNÁNDEZ** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos y a todas. Y muchas gracias de corazón, señora De Madariaga.

Bai. Eskerrik asko, De Madariaga Martin andrea, gaur proposamen hau hona ekarteagaitik. Izan be, uste dot proposamenaren asmoa dala gure landa-ingurune edo udalerrri txiki askok dabezan beharrak ikusarazotea eta agirian jartea.

Arretaz irakurri ditut bai itaunetik eratorritako mozinoa, bai itauna bera, baita diputadu jaunaren erantzuna be. Eta gai honetan guztian garrantzitsua iruditzen jatan informazino bat emon gura deutsuet, edo behintzat saiaturko naz emoten. Jakin badakit udalerrri txikietako biztanleek zuok dinozuenari eutsi egiten deutsiela aitatu ez dozuen zeozeri esker, bizilagunen alkartasunari esker, hatan be. Berba ederra.

Udalerrri txikietako bizimodua sinisten dozuena baino desbardinagoa izan leiteke, gauza onakaz eta txarrakaz, bizitzan danagaz jazoten dan lez. Udalerrri txikiek, euren udalakaz, ahal daben guztia egiten dabe, eta askotan ahal dabena baino gehiago. Berba egitea eta alkateak ezagutzea besterik ez dago. Eta Bizkai osoko batzarkide nazan arren, Enkarterri aitatu dozun ezker, nire eskualdea, eta nobleziak halan behartzen dauelako, Enkarterrien nobleziak berak halan eskatuta, bertan dagozan alkate jaun-andrak aitaturko deutsuedaz. Euskadiko mendebalde urruna dan Lanestosan alkate andra aparta dago, Belen; Gordexolan, Angela; Galdamesen, Raquel; Artzentalesen, Josu; Sopuertan, Agustin; Turtziosen, Jose Manuel; eta Karrantzan, Raul, bakotxa bere kolorekoa, eta bere idea politikoakaz.

Esan dodan moduan, Karrantzan Raul dago, bere 44 auzo edo landa-inguruneakaz. Gogorazoko deutsuet Karrantza Bizkaiko lurraldearen %20 dala. Tira, ez ditut Karrantzako auzo eta landa-ingurune guztiak aitaturko, baina sano interesgarria da bisitan joatea, hori seguru. Baina 44 landa-ingurune eta auzo dituala esan ondoren, non ipini geinke salmenta-gunea? Horreetako 30ek, gitxienez, salmenta-gune horretara joan beharko leukie, ibilgailu pribaduan. Eta, autoa hartzen daben ezker, supermerkadu handira joaten dira, zuk ondo dinozun moduan, 10 edo 15 minutura dagoan supermerkadura.

Alkate batzukaz egin dot berba gai horren inguruan, guztiakaz bat egiten dot-eta Enkarterriko Mankomunidadearen bileretan. Eta danok dakigu lehen aitatu dodan alkartasun hori ez dala udalerrri bereko bizilagunen artean bakarrik jazoten, ezpada inguruko udalerrietako bizilagunen artean be. Eta horren adibide bat da, eta esango deutsuet,



uri-hondakin solidoen tasa barriak horrenbesteko garrantzia daukan ezkerro, eta tasa horren igoerea hain modan dagoan ezkerro, Karrantzak Balmasedak beste edukiontzi izan leikezala gitxi gorabehera, biztanleriaren ia erdia daukan arren. Baina Balmasedan uri-hondakin solidoen edukiontzien arteko distantzia 200 metro ingurukoa da, eta Karrantzan 2 kilometrokoa, 10 aldiz handiagoa. Halanda be, Balmasedako eta Karrantzako biztanleok gauza bera ordaintzen dogu biztanleko, bilketan eta tratamentuan. Alkartasuna, baita udalerrien artean be.

Jakin badakigu auzokideen arteko alkartasunak, eta inguruko auzo eta udalerrien arteko alkartasunak, gertuago, indartsuago sentiduarazoten gaituana. Eskatzen dituzun oinarrizko elikagaiak saltzeko guneak jartea sano gatxa da, gure ustez, eta esango deusut zergaitik. Izan be, asteen, hamabostean behin edo hilean behin egiten dan erosketa handia, zuk ondo esan dozun moduan, supermerkaduetan egiten da. Horniduteko gaiztasun handia dago, eta udalerrri horreetaraino eroaten diran produktuen prezioa garestia da, eta salmentak urriak dira; izan be, merkataritza-gune handietan egindako erosketa handian ahaztu dana baino ez da erosten, edo premina sano zehatzak dagozanean.

Hori guztia esanda, aitatu dozun moduan, zuzenketa-eske bat aurkeztu dogu, talde Nazionalistegaz batera, eta bi puntuz osotuta dago, gure eretxian, ezinbestekoa dalako identifiketea eta alkarlanean aritzea. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusie oinarrizko elikagaiak saltzeko gunerik edo antzeko zerbitzurik ez daukien udalerrriak identifikau daizala. Eta Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusie erakundeen artean lankidetzan jarduteko, oinarrizko elikagaiak saltzeko gunerik edo antzeko zerbitzurik ez daukien udalerrietan halakoak ipinten laguntzeko.

Jarrita neukan, oraintxe bertan jakin dot-eta mozinoa ez dala onartuko, baina jarrita neukan eta esango deusut, ontzat emon ezkerro mozino hori onartu egingo dogula, eta ez bada onartzen, ba ez dogula onartuko.

Halanda ze, azken finean, eskerrik asko zure arretegaitik, eta arreteja jarri deustanari eta ulertu deustanari, arabere gehiago.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Berges Fernández.

A continuación, el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Karrion Lamikiz, tiene usted la palabra.

El Sr. **KARRION LAMIKIZ** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta. Diputados/as, junteros/as, personas invitadas en el día de hoy, buenos días a todos y a todas.

Esta moción que hoy debatimos, presentada por Elkarrekin Bizkaia, aborda un tema muy importante, a nuestro entender: el de garantizar la calidad de vida y los servicios básicos de los y las vizcaínas que vivimos en entornos rurales. Y tengo que decir que es de agradecer el tono constructivo que han tenido ustedes en un tema tan importante como este.

Que el núcleo rural subsista. Y no se trata únicamente de un problema o, mejor dicho, de una tarea de los pequeños municipios. Se trata también de una función de diferentes instituciones. Y, además, se trata un asunto que afecta al futuro de Bizkaia. No hay equilibrio territorial si los pueblos se vacían. Y no hay una sociedad cohesionada si existe una



población sin servicios básicos. Pero eso no pasará en Bizkaia, ni ocurre en Bizkaia, porque las instituciones están trabajando en ello. En este caso, la Diputación Foral de Bizkaia, junto con otras instituciones, está trabajando por una Bizkaia avanzada, equilibrada y cohesionada, tal y como aparece en el programa de gobierno Bizkaia Denontzat. Desde el Partido Nacionalista Vasco compartimos el objetivo principal de la moción, que es garantizar los alimentos básicos de la población rural y garantizar también el acceso a otros servicios. Pero pensamos que tiene que ser de forma regular y digna, y de otra manera.

Pero, desgraciadamente, hoy tenemos que rechazar la moción que se ha presentado, y lo siento mucho, porque la discrepancia viene en el “cómo”. Nosotros y nosotras proponemos un enfoque práctico y coordinado adecuado a la realidad y a la competencia de cada institución, porque creemos que es más eficaz, más adecuado y realmente pensamos así. Entendemos que los pueblos pequeños son una parte muy importante de Bizkaia. Para nosotros y nosotras es “Herri txiki, aukera handi” y, además, la Diputación tiene un programa para la mejora de los servicios del pueblo y apoyarlos, y que actualmente ya está en marcha en algunas comarcas. Ese es también un claro ejemplo de la Diputación Foral de Bizkaia en favor de los servicios de los pueblos pequeños que tenemos en marcha a día de hoy. Es decir, la Diputación está ya trabajando en esa cuestión.

Dicho esto, creemos que es fundamental conocer la realidad y la situación de cada pueblo antes de actuar. Porque cada pueblo, cada pequeño pueblo es, además, un mundo. Por ello, en la enmienda que hemos presentado junto con el Partido Socialista hemos dicho que la Diputación Foral de Bizkaia analice e identifique aquellas localidades que no dispongan de puntos de venta o servicios similares a lo largo de Bizkaia. Parece que es simple, pero no lo es; es básico y fundamental. Porque con dicho análisis tendríamos una fotografía real, porque primero hay que dar un paso antes de dar el siguiente.

Entendemos que hay que analizar bien la realidad, dónde está el vacío, qué necesidades hay y qué modelo es el más adecuado para poder canalizarlas en cada pueblo. Porque no sirven las mismas fórmulas para todo. Algunos pueblos abren un pequeño comercio un par de días a la semana. Y en otros, junto al bar hay un pequeño comercio integrado. En otros, los puntos de venta se van moviendo de pueblo en pueblo; y en otros, también hay puntos de venta que carecen de personas. Tenemos numerosas opciones diferentes. Creemos que el primer paso debería ser analizarlas y ver cuál es la más adecuada en cada pueblo. Tal y como he dicho, existen posibilidades. Analicémoslo.

El segundo punto que proponemos en la enmienda se basa en la colaboración interinstitucional y, sobre todo, en lo local. Es decir, que la Diputación Foral de Bizkaia promueva la colaboración interinstitucional para facilitar la instalación de puntos de venta básicos de alimentos o similares en aquellas localidades en las que no existan. Colaboración. La Diputación Foral debe realizar una labor de apoyo, coordinación y promoción. Pero son los ayuntamientos y los agentes locales los que mejor conocen su realidad. Y el Gobierno Vasco es el órgano competente en desarrollo rural. La viabilidad de este tipo de proyectos también es fundamental, es un tema muy importante porque sin viabilidad no hay futuro. Todos somos conscientes, y ya se ha comentado, de la dificultad que presenta abrir una tienda en un pequeño pueblo como esos y ofrecer ese servicio. No resulta nada fácil.

Por consiguiente, pensamos que el proyecto en sí debe ser viable, ya que es inútil abrir, mantenerlo durante un corto periodo de tiempo con la subvención pública y que cuando estas finalicen, el proyecto quede al margen y quede cerrado el servicio. Eso no ayuda a nadie, ni al comerciante, ni a la persona que ha puesto en marcha el proyecto, ni al ciudadano o ciudadana, ni tampoco al pueblo. Para poner en marcha este tipo de proyectos la Diputación tiene que ayudar, y ayuda, tal y como comentó el diputado Ager Izagirre, a través de subvenciones para la adecuación de las infraestructuras municipales y ofreciendo diferentes



asesorías jurídicas, entre otras medidas. Y al margen de la Diputación, existen también otras instituciones que colaboran y tienen competencias, es decir, como el Gobierno Vasco, a través de su programa Erein o Leader, dependiendo de la localidad en la que nos situemos.

Pensamos que la Diputación debe participar y, como he comentado, participa, dentro de sus posibilidades, pero siempre con sentido y responsabilidad, como se ha hecho hasta ahora. Por eso, desde el Partido Nacionalista Vasco hemos manifestado y propuesto lo siguiente en nuestra enmienda. Primero identificarse, luego planificar y por último, o después, actuar. Uso eficiente y equitativo de los recursos públicos y colaboración interinstitucional para la mejora de la vida en el medio rural.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Karrion Lamikiz.

A continuación, el representante del Grupo Popular Vizcaíno, señor Pagadigorria Wicke, tiene usted la palabra.

El Sr. **PAGADIGORRIA WICKE** jauna: Muchas gracias. Buenos días de nuevo.

Tira, ikusi daigun. Labor esanda, mozino honen helburua, egia esan, aurrean dogun arazoa, nire ustez, gizarte-koherinoa da, hau da, Bizkaiko gizarte- eta lurralde-koherinoa. Bai bagileko Osoko Bilkuran, bai gaur, hainbat erakunderen laguntza, programa eta erantzukizun partekatua aitatu dira, izan behar daben gizarte-koherino hori babesteko; batez be, nire ustez, Bizkaiko udalerrien %70 baino gehiagok biztanleriaren %10 daukie, eta horreei zuzenduta dago. Uste dot 40 bat udalerrik 1000 biztanle baino gitxiago dabezala. Halanda ze, Aldundiaren ikuspuntutik, guztiz zeharkakoak izan behar dau, hau da, garraioa berbabide dogunean, enpleoa dogunean berbabide, eskualde-funtsak ditugunean berbabide, industria-lurzorua dogunean berbabide, biztanleria finkatzea dogunean berbabide, hori guztia landa-garapena da, eta hori guztia gizarte-koherinoa da.

Aldi horretatik, ni ados nago, gu ados gagoz hemen izan diran berbaldi batzukaz. Ez deusku asko balioko saltokiak edegiteko ia kirurgikoa dan jarduera bat egitea hilebete batzuk barru itxi egingo badira; ze, mozinoak iradokiten dauen moduan, lokala ez ezik, gastuak be finantzautu egon arren, adabaki bat dala uste dot, eta begirada arean globalagoa izan behar dogulakoan nago. Eta gure ustez, funtsezkoak dira udalak. Udalak eta mankomunidadeak udalerrri horreetan jazoten dan edozein ekintzaren ardatza izan behar dira, landa-ezaugarriak dabezalako, euren udalerrien errealidade sozioekonomikoa eta soziala ondoen ezagutzen dabenak diralako. Euren bultzatu behar gaitue Lanestosan erabagi bat hartzera eta Balmasedan beste bat; tira, Balmaseda ez da kasua..., errealidadea guztiz desbardina dan beste udalerrri baten beste erabagi bat hartzera.

Halanda ze, nire eretxian, udalen lankidetzaren zati hau, eta Aldundiak benetan egin behar dauena, udal horreen ideei arreteta jarrea da, arazo zehatzak konpontzeko. Izan be, koherino sozialaz gain, edadekoen errealidade sozialaren alde dago, hau da, udalerrri horreetako batzuetan erabat isolatuta bizi dan jentearena.

Halanda ze, arazoari aurre egiteko modu batzuk dagoz, eta ez dogu uste, tira, mozinoak lortu gura dauena, hau da, denda horreek martxan jarrea edo zabaltzea beste



barik arazoari aurre egiteko modua danik (etxez etxeko banaketea izan leiteke, udalerrien arteko konponbide klasikoa dana). Eta tokiko eta hurbileko kontsumoa sustatzeari jagokonez, ba bai, horretan beti egongo gara ados.

Nire eretxian, gu gehiago gatoz bat osoko zuzenketa-eskeagaz, hau da: argi eta garbi identifikatu daitezala benetan arazo bat daben udalerriak, elikagaien salmenta-gunerik ez dabenak, eta dagozan programa guztien arabera, eta dagozan erantzukizun instituzional guztien arabera, plan bat egin daitela edo plan bat prestau daitela, udal horreen bitartez, arazoa arindu daiten. Guri gehiago gustetan jaku 2 alderdiek aurkeztu daben mozino hori, benetan uste dodalako daukagun arazo bat bideratzeko modurik osoena dala, gizarte-kohesinoa eta lurralde-koehesinoa deitzen dan arazo bat, eta ikuspuntu askotatik Aldundiak jorratu behar dauena.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Pagadigorria Wicke.

El representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Llano Lana, tiene usted la palabra.

El Sr. **LLANO LANA** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta.

Aurreko hizlariak adierazo daben moduan, kasu honetan Elkarrekin Podemosek itaunetik eratorritako mozino bat aurkeztu dau, Ganbera honek Foru Aldundiari, Foru Aldundi honi, eskatu degion oinarritzko elikagai-zerbitzu edo elikagai-gune bat martxan ipini dagiala horrelangorik ez daben landa-inguruneetan, hori abian jarteko eta funtzionetako laguntza ekonomikoa emon dagiala, eta tokiko eta hurbileko kontsumoari buruzko kanpaina bat abiarazo dagiala, baita landa-ingurunean be.

Joan dan bagilaren 25ean Abellanedan egin zan Kontrolerako Osoko Bilkuratik hona, arlo horretan, zorionez, barrikuntzak izan ditugu, eta zorionez dinot, baina ez Foru Aldundi honen barrikuntzak, nahi-ta Herri Administrazino eta Erakunde Harremanetarako diputaduak jarrera dialektikoa izan; barrikuntzak, ostera, kasu honetan, Eusko Jaurlaritzatik datoz. Landa Garapenari buruzko 7/2022 Legea azaltzeko, joan dan irailaren 30ean, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, alde batetik, Landa Garapenerako 2030erako Estrategia onartu eban, bai eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak aurkeztutako Lurralde Garapenerako Programea be. Abian jarri beharreko lehen ekimenetako bat Erkidegoko hainbat udalerritan kutxazain automatikoak ezartea izango da, Berosi ekimenaren barruan.

Bi dokumentuek, esan dodan moduan, Landa Garapenerako Estrategiak eta Lurralde Garapenerako Programak, hainbat helburu daukiez:

Landa-inguruneke ekintza publikoa zeharka antolatzea lurralde-antolamentua, trantsizino ekologikoa, etxebizitza, mobikortasuna, osasuna, barrikuntzea eta gizarte-koehesinoa lotuta, hori guztia landa-eremuetan bizi diran edo bizi garan personon bizi-kalidatea hobetuz. Eta horretarako, eta hori garrantzitsua da, oinarritzko eskubide eta zerbitzuen bardintasuna bermatu beharra dago, dibersifikazino ekonomikoa eta barrikuntzea bultzatu, eta ingurune naturala eta kulturala babestu.



Tresna horreek, hau da, Landa Garapenerako Estrategiak eta Lurralde Garapenerako Programeak, gure lurralde osoan antzeko zerbitzu-eskaintzea bermatu beharko leukie, landa-garapenerako eskualde-programak garatzeagaz batera, foru-aldundiakaz, landa-garapenerako agentziakaz eta toki-erakundeakaz lankidetzan, jakina. Asmo txalagarria, baina landa-ingurunea aspalditik dago eredu hori finkatzeko itzaroten; izan be, persona fisikoei, juridikoei eta udalei laguntzak emoteko deialdiak bata bestearen atzetik egin arren, gure landa-ingurunea hondino be despopulazioaren, ehun ekonomikoaren galerearen, gazteentzako lan-aukeren, hezkuntza-eskaintzearen, zerbitzu farmazeutikoen, espezialidade mediko edo terapeutikoen eta elikadura-eskaintzearen lekuko mutua da.

Etxe honetan, benetan, sare publikoa eraldatzeko eta gure lurraldeko egoera ekonomikoa indartzeko bagagoz, bizkaitar guztien bizi-kalitatea hobetzea badogu helburu, posta-kodea edozein dala be, joan dan astean gobernu-taldeko taldeetako kide batek Batzordean aitatu eban moduan, ezin dogu gauza bera egiten jarraitu, emaitza berberak edo apalak lortzeko. Gure landa-inguruneetako biztanleen bizi-kalitatea benetan hobetzen lagunduko daben udal-ekimenak edo ekimen personalak aldatu, birbideratu, sustatu eta era positiboan diskriminatu beharko ditugu.

Justizia materialaren printzipioa da kasu bardinak modu berean tratetea, baina desbardinak diran kasuak desbardin tratetea. Izan be, Abandoko barrutian merkataritza-establezimentu bat desagertzea lastimea izan leiteken arren, Ubiden, Lanestosan edo Ean dagoan merkataritza-establezimentu bakarra desagertzeak berak hainbat kilometroko lekualdatzeak egitea, kaleetako argiak itzaltzea, gizarte-harremanak eragozteak eta berez mugatuta dagoan bizitza sozio-ekonomikoa pobretzea dakar, landa-ingurune horreetan establezimentu bat ixteak dakarzan ondorio personalez gain. Maileguak, hipoteken itzulketak eta ondorio horreek guztiak era personalean asumiduten dira, bideratuezintasun ekonomikoagaitik eta merkataritza-jardurearen. bideratuezintasunagaitik.

Hain zuzen be, Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta foru-aldundiek hainbat laguntza-deialdi egin dabez landa-garapenerako agentziakaz eta udalakaz lankidetzan. Adibidez, Leader laguntzak. Laguntza horreetako bat espazioak gaitzeko neurriei buruzkoa da, itzuli behar ez diran dirulaguntza lez, eta onuradunak persona fisikoak, juridikoak, publikoak edo pribaduak izan leitekez. Neurri hori mozinoan eskatutakora hurbildu leiteke, merkataritza-establezimentu horreen mantentzea baztertuko ez balitz. Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapen eta Enpleo Sailak emoten dituan laguntzak izan geinkez berbabide, ekintzailetzarako, merkataritza-publizitaterako, kontratazinarako edo negozioak eskualdatzeko. Edo, arabere gehiago, udal-eskumeneko inbersinoei buruzko Foru Dekretua bera, erabilera edo zerbitzu publikoei lotutako azpiegiturara bideratua, mozino hori betetea be ekarri leikelako interpretazio zabalago bat egin ezker, edo diruz lagundu leiteken egitatea zabaldu ezker, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen oinarriko eskumenak sartzeaz gain (diputaduak 16. artikulua aitatu eban), ETELeK berak arlo horretan jasoten dauzan eskumenak be sartzeko, bide batez, gai honetan gehiago gustetan jakuna, udalen eskumenak zabaltzen ditualako.

Hori gitxi balitz, jarduera ekonomikoa eta kontratazinoa sustatzeko udal-laguntzak aitatu geinkez, baita hainbat udalerrik udal-lokalak errentan hartzeko, taberna-dendak eta harategiak hartzeko egin dabezan lizitazioak be. Izan be, udalek gai honetan dabezan inbersino-lehentasanak bideratu lekiezalako eta bideratu behar dabez; ezin ditugu adinbako lez tratau, bizilagunen aldarrikapenen hartzaile nagusiak diranean. Era beran, Gobernuak EH Bildugaz daukan aurrekontuen akordioaren ondorioz, zuzeneko salmentarako denda bat martxan jarrea adostu da, Urremendi Landa Garapen Alkarteak garatu beharreko Jakigune proiektua garatzeko, edo elikadura merkaduen azpiegiturak barritzeko.

Tira, laguntza publikoen deialdi batzuk zehaztu ditut, baina barriro dinogu, hornidura-zerbitzu eta/edo hornidura-guneak ez dagozan lekuetan martxan jarrea



garrantzitsua da, baina garrantzitsuagoa da horreei eustea; horixe da lehentasuna, eta dirulaguntza publikoen deialdien defizit handia da hori.

Nada más.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Llano Lana.

Pasaremos al turno de réplicas. Para ello, la representante del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martin, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTIN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Lehenengo eta behin, eskertu eta autortu gura dot planteau dogun proposamenak sortutako interesa eta horri buruz eztabaidatzen ari garan modua. Autortu beharrekoa dala iruditzen jat. Fernández jaunak be...; "ba, oso ondo, oso ondo" esan deusats nire buruari. Benetako interesa iruditu jat gaur hemen erakutsi dauena. Aspaldi ez neban ikusten eta eskertu gura dot.

Gai batzuk era positiboan be berreskuratu gura dodaz, gaur hemen atera danetik. Fernandez jaunak aitatu dauen zatia berreskuratu gura dot, hau da, askotan auzotarren alkartasunagaz konpontzen dala hori, baina ez bakarrik gauza bera ordaintzen dogulako, ezpada auzokoak garalako bizilagunaren erosketea egiten dogunak. Geuk daroagu auzokoa medikuanera, geuk... Horixe da herrietan bizilagunon artean funtzionetan dauen alkartasuna. Halanda ze, eremu publikoan horri autortzea eta konponbidea be emon behar jakoz.

Karrion jaunak esan dau, edo zuk, ez dakit, udalek ahal dabena egiten dabela, udal txikiek, eta egia da; ahal dabena egiten dabe daukiezan baliabideakaz. Eta, jakina, ez da gauza bera Karrantzarako konponbide bat emotea, edo Lanestosarako konponbide bat emotea; eta ez da gauza bera Lanestosarako edo Muruetarako konponbide bat emotea, herrien konfigurazioa guztiz desbardina dalako. Eta horrexegaitik ari gara hori proponiduten, mozino honek ahalbidetu egiten dauelako heltzen ez dan lekuetara heltzea. Eta, esan dozun moduan, "sano gatxa da konponbide bat emotea, egoeren aldakortasuna sano handia dalako". Jakina. Izan be, heltzen ez garan horretarako beste aukera bat emoten saiatzen ari gara.

Argi daukagu gauzak egiten ari dirana, eta zati hori onartzen dogu. Argi dago dirulaguntzak dagozana lokalak konpondu ahal izateko. Argi dago udalek ahaleginak egiten dabezana lokal horreek erabili ahal izan daitezana, eta hori kudeatuko dauen personearentzat merkeena izan daiten; errenteari laguntzen jako, argia ordaintzen be laguntzen jako. Ados, baina barriro dinot, egoera batzuetan hain da defizitarioa ze, zerbitzu hori manteniduteko erakundeen laguntzarik euki ezik erabat bideratuezina dan. Ez dau inork garatuko, inor ez da zulo baten sartuko. Zenbat aldiz ikusi dogu, zenbat herritan ikusi dogu auzokide batek denda bat zabaltzen dauela, eta zor pila bategaz amaitzen dauela? Herri horreetan bideragarria ez dalako.

Horregaitik, argi itxi gura dot, horri buruz berba egiten dogunean, zerbitzu publiko bati buruz ari garala ulertu behar dogula, Bizkaibus pasetan danean edo medikuarenera goazanean lez. Oinarrizko zerbitzu publiko batez ari gara, eta ikuspegi horretatik ulertu behar dogu. Halanda ze, nire ikuspuntutik, garrantzitsua da urrats barriak emotea. Eta zera esan dozue: "tira, zuok proponidu dozuen horretan daborduko aurrera egiten



ari gara". Zuon proposamenean ez dator herrietan emon geinkezan erantzunak zeintzuk diran aztertuko dogula. Ez zarie hori proponiduten ari. Proponiduten ari zariena zera da: ikusi daigun zein herritan dagoan dendea edo non ez dagoan dendarik. Eta nik dinodana da azterlan hori daborduko Hazik egin ebala landa-eremuen karakterizazioa egin ebanean. Badakigu non dagoan, aldaketaren bat egon leiteke, baina nahiko eguneratua da. Azterlan hori 2022an egin zan; ez dinogu orain dala 10 urte egin zanik. Beraz, hori badakigu. Badakigu, gainera, zergaitik ez dagoan dendarik edo hornidura-gunerik herrietan, eta horrek zerikusia dauka ekonomikoki errentagarriak ez izateagaz.

Aldundiak badaukaz mekanismoak zati horretaz arduratu ahal izateko. Ez modu eskusiboan, horrelan izan behar ez badau, ondo. Tira, egin daigun Eusko Jaurlaritzagaz koordinata, egin daigun udalakaz koordinata, baina pentsau daigun zerbitzu publikoa dala, eta erakunde publikoek emoten daben zerbitzu-zorroaren barruan eukiten hasi behar dogula. Hori da aldatzen hasi behar dogun txipa.

Halanda ze, erexten deusat 3 elementu dagozala eta norabide onean goazala eta, izan be, alkarregaz joan gaitkezala erakusten dabe. Izan be, gure proposamena Landa Garapenerako Euskal Legearen helburu estrategikoakaz lerrokatuta dago, ezta? Izan be, landa-biztanleriaren ondoizate-mailea eta uri-biztanleriaren ondoizate-mailea bardindu gura dira. Halanda ze, gure helburua da, tira, horrek laguntzen dau. Landa-ingurunean despopulazioa eta zahartzea lehengoratzen be laguntzen dau. Era berean, proposamena bat dator Gobernuak ustez ezarritako helburuakaz. Aitatu dozu, ezta? Gizarte- eta lurralde-kohesinoaren alde egitea; ba honek, hain zuzen be, lagundu egiten dau horretan. Eta Etenbako Arretako Guneakaz be lerrokatuta dago, 23an eta 27an sinatu diranakaz. Hau da, nire ustez, badagoz elementuak, eta Aldundiak egiturea eta tresnak ditu hori aurrera aterateko.

Besterik ez, eta, tira, zuon aldeko botoa espero dot.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martin. A continuación, el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Berges Fernández, tiene usted la palabra.

El Sr. **BERGES FERNÁNDEZ** jaunak: Muchas gracias, mahaiburu andrea. Buenos días de nuevo.

Tira, lehen ondo azaldu dodan moduan, ekimen hau udaletatik bertatik sortu behar da, eta zehaztu egin gura dot. Guk erakunde honetatik egin geinken ahalegina egiten dogu, baina udaletatik bertatik sortu behar da; izan be, ondo esan dozun moduan, udal bakotzak eskaera batzuk ditu, eta alkate bakotzak eta udal bakotzeko ordezkariak eskari desbardina dabe antzeko zerbitzuetarako. Bide batez, eta ez ahaztearren, eskerrak emon gura deusudaz eztabaidan izandako tonua eskertu dozulako. Enkarterrin gagoz, eta hori igarten da.

Orain dala urte batzuk hornidura-zerbitzurik ez dagoan lekuetan azterlan bat egin zala aitatu dozu, baina, jakina, non ez dagoan jakin geinke, non ez dagoan, baina ez dakigu non eskatzen deuskuen laguntzeko sortu daiten. Eta hori udaletatik bertatik sortu behar da. Hori udalak, alkateak jakinarazo behar deusku; daukiezan beharrak, daukiezan aukerak, Aldundiak erabilten ez dan lokal bat ete daukan bertan eta denda bat jarteko aukerea emoten dauen, bide batez, danetarik saltzen dauen denda bat. Izan be, jakina, oinarritzko zerbitzuetarako janari-denda bati buruz ari gara, baina ezin dogu herri guztietan euki Bilbo erdian dagoana.



Hau da, herri guztietan ezin da farmaziarik euki, eta hori be preminazkoa da, farmaziak eukitea. Eta auzokoak dira auzokoarentzat Sintron erosten doazanak, bera ezin dalako joan; aitatu dozun alkartasun hori, eta neuk be aitatu dodana. Udalerrri guztiok ez daukagu zapatari bat, baina badakigu auzoko batek oinetakoak konpontzen dituana. Udalerrri guztiok ez dabe tailer mekaniko bat, tailer elektriko bat; udalerrri guztiok ez dabe erropa-dendarik; udalerrri guztiok ez dabe burdindegirik. Baina esan deutsudan alkartasun horri esker (hain da zabala ze berba hori), auzokoari zera esateko konfiantzea dago “aizu, Lanestosatik Zallara edo Balmasedara bazoaz, ardura deutsu eroste... tori zerrendea”, eta igongo deutsut. Ez dakit, ohikoa da eskualdekoak merkataritzagune handietan ikustea. Baten bat erosten doanean, kontu bi eskatzen ditu “hori guztia ipini eidazu niri, eta beste hori kobrau eidazu aparte”. Eta, izan be, badakigu heldu ezin dan udalerrri horreetako bateko auzotar batentzat dana.

Halanda ze, besterik ez. Eskerrrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Berges Fernández.

El representante del grupo Nationalistas Vascos, señor Karrion Lamikiz, tiene usted la palabra.

El Sr. **KARRION LAMIKIZ** jaunak: Muchas gracias de nuevo, señora presidenta.

Bueno, lo primero que ha quedado claro es que el acceso a los alimentos básicos y otros servicios en los pequeños pueblos rurales es un tema importante para todas las personas que estamos aquí, para todas. Por eso quisiera insistir en que la diferencia entre nosotros y nosotras no está en el objetivo, sino en el método, y los métodos pueden ser varios, y el objetivo es común. En este caso, compartimos el objetivo: garantizar una vida digna en todos los pueblos; en este caso concreto, el acceso de la población rural a los alimentos básicos y otros servicios. De una manera adecuada y regular.

La cosa es, como ya he dicho, cómo lo conseguimos. Antes no lo he dicho, pero también es cierto que la Diputación Foral de Bizkaia también promociona los productos locales y la compra de proximidad, a través de nuestros mercados locales. No en los comercios; no en los comercios, porque la competencia es del Gobierno Vasco en este caso, y en eso es en lo que trabaja el Gobierno Vasco. En este caso, cuando hablamos de un tema tan importante como este y de pueblos pequeños, no queremos generar grandes expectativas y queremos poner en valor y poner en marcha la realidad. No podemos decir aquí cosas que, en realidad, no se pueden poner en práctica en esos pequeños pueblos. Proponemos políticas reales responsables y prácticas. Para ello, como ya he comentado en la primera intervención, en primer lugar, los datos, el diagnóstico, una planificación; y, después, las acciones, teniendo en cuenta la realidad de cada comarca y pueblo, puesto que tenemos tantas realidades como pueblos.

Para ello contamos con una herramienta importante que se ha puesto en valor. Planes de desarrollo territorial y comarcal. Los ayuntamientos son parte de estos planes de diseño de cada comarca y participan en su desarrollo y elaboración. Y en eso se establecen las líneas prioritarias, en los servicios del medio rural y en la calidad de vida. Todo ello al amparo de la Ley de Desarrollo Rural. Además, esta planificación cuenta con una ayuda económica a través de las líneas de ayuda Erein Leader, la ayuda a la infraestructura que



dispone la Diputación Foral de Bizkaia, y otras posibilidades para que todo esto se vaya desarrollando. Y en Bizkaia sí existe una subvención a través del convenio Bizkaimendi. Capacidad de los propios ayuntamientos para poner en marcha proyectos y acciones de este tipo. Y hay algunos ejemplos, por decir uno, aquí cerca, hace poco ha tenido lugar la reapertura de la Herriko Taberna, en el pueblo de Kortezubi, un pequeño pueblo de menos de 500 habitantes. Y dentro de la Herriko Taberna, el Ayuntamiento ha decidido poner un comercio pequeño para que estos productos puedan venderse y poder cubrir esa necesidad.

Por eso, en cada pueblo tendremos que ver qué es lo que realmente se necesita. Y por eso decimos que hay que hacer un diagnóstico en que se recoja en qué localidades no existe ese servicio y, después, en qué localidades sería más adecuado. A veces, igual es un pequeño comercio; otras veces, dentro de los bares del pueblo hay un lugar donde vender los productos; en otros casos, ir vendiendo con una furgoneta o un vehículo móvil por los pueblos. O quizás, en otros lugares hay un lugar sin personas físicas donde se venden productos. Por eso, nosotros y nosotras, desde el Partido Nacionalista Vasco, entendemos que la Diputación Foral de Bizkaia está haciendo política de una manera integral, con una visión integral, y sobre todo, en este caso, con la colaboración institucional de pueblos pequeños, instituciones y agentes que están funcionando y trabajando conjuntamente, escuchando la voz de los propios pueblos y trabajando con ellos.

Aunque hoy no se apoye su moción ni nuestra enmienda, creemos que la Diputación está en el buen camino, en ese camino, que seguirá por ese camino, y vamos a ser compañeros de viaje de este tipo de servicios en los pueblos pequeños. Entendemos que el medio rural es una oportunidad por la que seguiremos trabajando con prudencia y responsabilidad. Por una Bizkaia cohesionada y equilibrada en la que también los pueblos pequeños tienen opciones, y seguiremos así porque creemos verdaderamente en ello.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Karrion Lamikiz.

A continuación, el representante del Grupo Popular Vizcaíno, señor Pagadigorria Wicke, tiene usted la palabra.

El Sr. **PAGADIGORRIA WICKE** jaunak: Buenos días de nuevo.

Tira, nik, arin-arin, minutu baten, esan gura dodana... Egia da lehen arean Enkarterriko eztabaidan geratu garana, igarri barik, Enkarterriko foku horretara ekarri gaituzuelako hona; eta eskualde hori, nik beti esan dodan moduan, oso errebindikatzaila da, hainbat mendetan oso errebindikatzaila izan da, eta batzuetan beste udalerrri batzuen aldean behar ez dan moduan bideratzera erooten gaitu horrek eta, azkenean, ez dogu ahaztu behar Bizkaiak 113 udalerrri dituala, nik ez dakit zein dan estimazino zehatza, baina benetan udalerrri landatarrak %70 inguru izango dira.

Jakina, landako egoerea, edo landakoa izateak Bizkaiko eskualdeetan dakarzan arazoak zelan bizi diran, desbardina da. Horregaitik, guk, lehen aitatu dodana, ez dot esan barik itxi gura Aldundi lez betebeharrak ditugula eta Batzar Nagusi lez betebeharrak ditugula. Hau da, hemendik Aldundiari beren-beregi eskatu beharko geunskio jarraitu dagiala mapa bat egiten. Mapa horrek egon behar dau, ni guztiz bat nator, eta guztiz horniduta egon behar dau udalen input horregaz, baina udalerrri edo eskualde bakoitzaren beharren mapa hori



egin behar da: non dagozan mankomunidadeak, non ez, zelan konpondu leiteken egoera bat. Nire eretxian, zati baten baino ez dago eginda lan hori, baina uste dot garatzen jarraitu behar dogula, eta, beraz, gu beti aurkituko gaituzue edozein neurritan, bai aurrekontuari jagokon neurrietan edo beste edozein eratakoetan, mapa hori lortzen saiatu gaitzean. Eta gero, kirurgikoki esan beharko diran neurriak. Egia da, eta esan gura dot, horrelan pentsetan dodalako, ez? Hau da, Bizkaiak lurralde-konfigurazino konplejua dauka, eta gero eta despopulazino handiagoa dago. Sano gatxa da urte asko daroazan egoerea lehengora itzultzea, mundu mailako prozesu globala dalako. Baina, tira, azken baten, gaur danok era positiboan egin dogun moduan, Aldundiak lan egin behar dau gizarte- eta lurralde-koehesinoaren alde, eremu horreetan bizi diran bizilagun horreek zerbitzu-maila bat izateko gaitasunaren alde, nahi-ta ez dan izango inoiz landa-eremukoak ez diran udalerrietakoak modukoak.

Behinik behin, eginbehar asko ditugu, eta gu beti aurkituko gaituzue neurrietan. Baina gaur ezin dogu elikaduraz, burdindegiaz, farmaziaz berba egin. Ikuspegi orokorragoa izan behar dogu, gure ustez, eta apur bat gehiago elementu guztiakaz, eta, batez be, daborduko martxan dagozan funts eta ekimen guztiakaz, azkenean guztiok gura dogun helburua bete dagien, hau da, gizarte- eta lurralde-koehesino hori.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Pagadigorria Wicke.

Y el representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Llano Lana, tiene usted la palabra.

El Sr. **LLANO LANA** jaunak: Buenos días de nuevo, señora presidenta.

Tira, nire lehen berbaldian, Elkarrekin Podemosek aurkeztu dauen mozinoaren maminari emon deusat lehentasun gehiago eta, bigarren txanda honetan, arreteko Gobernuo taldeek aurkeztutako osoko zuzenketa-eskean ipinten saiaturko naz, jardun parlamentarioan ohikoa dan lez Gobernuo taldeek ez dabe-eta oposizino taldeen edozein proposamen zuzentzeko aukerea pasetan ixten.

Baina, tira, beharbada *estatu quo*-ari eusteagaitik izango da, edo gauzatzen jarraitzeari erreferentzia egiteagaitik, politika berberak garatzen jarraitzeagaitik. Osoko zuzenketa-eskearen maminari jagokonez, Gobernuo taldeek oinarritzko elikagaien salmenta-gunerik edo antzeko zerbitzurik ez daben udalerrak identifikearen alde egiten dabenean, harrigarria da Foru Aldundiak, etenbako entzumen-prozesu horretan, eskualde guztietan Ahaldun Nagusiak alkateakaz edo, behintzat, lurraldeko eskualde guztietako alkate adierazgarrienakaz izan dauen ustezko hartu-emon iraunkor hori ez aitatzea.

Gainera, emoten dau alde batera ixten dabezala Eskualdeko Plan Estrategikoetan lehendik dagozan diagnostikoak, baita landa-garapeneo agentzien lana bera be, esaterako, Enkarterrialde, Gorbeialde, Urremendi, Jata-Ondo, landa-garapeneo agentziak. Izan be, agentzia horreek eskualde bakoetean udalerrri guztien eta bakoetaren premia oinarritzkoenak ezin hobeto ezagutzen dabez.

Baina, zalantza horreek argitzeko nahikoa ez bazan, nahikoa izango zan Leader deialdira eta arreta berezizat hartzen diran guneetara joatea. Hain zuzen be, errepasso txiki bat egingo dogu. Bi lurralde-garriko handi dagoz gure lurraldean, ekialdean eta



mendebaldean. Ekialdean, Busturialdean, Busturia, Forua, Errigoiti, Morga, Ereño, Nabarniz eta Aulestia dagoz, eta Ziortza-Bolivar dago. Mendebaldean, Enkarterrin, Lanestosa Karrantza, Turtzios, Artzentaes eta Galdames. Eta gero, beste herriren bat dogu garriko bietatik kanpo, Uribe Meñaka, edo Arratia-Nerbioi, Arakaldo eta Ubidea.

Udalerrri horreez gain, Bizkaiko gainerako udalerrriak be, uriguneak izan ezik, izan leitekez Leader deialdiko laguntzen onuradun. Beraz, osoko zuzenketa-eskearen lehen atalari jagokonez, udalerrrien identifikazioari jagokonez, uste dogu daborduko gaitututa dagoan zeozer dala.

Zuzenketa-eskearen bigarren zatian jagokonez, izan be, erakundeen arteko lankidetzeari, elikagaien salmenta-gunerik ez dagoan lekuetan martxan jartea errazteko, gure ustez, adibide argiak emon doguz deialdi ugari dagozala adierazteko. Bai Jaurlaritzarenak, bai Landa Garapenerako Agentzienak, bai aldundienak, bai udalerrrienak. Baina, zerrenda horretatik harago, lehen esan dogun moduan, garrantzitsuenak establezimentu horreek mantentzeko bermea da, eta barriro dinot, benetan landa-ingurunerako funtsezko zerbitzua dala uste badogu.

Bi berbaldietan azaldutakoagaitik, Elkarrekin Podemosen mozinoa babestuko dogu, landa-ingurunean hornidura-puntuak martxan jartea eta mantentzeko hobekuntza kualitatiboa ez ezik, kuantitatiboa be ekarriko leuelako milaka bizkaitarrentzat. Eta, personen arteko edo udalen arteko alkartasunetik harago, borondate politikoari lehenetsuna emon behar jakola uste dogu.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Llano Lana.

Y una vez finalizado el debate, someteremos a votación la moción. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. En total, se han emitido 48 votos. Han sido 15 votos a favor; han sido 33 votos en contra; no ha habido ninguna abstención. Por lo tanto, no se aprueba la moción.

El punto tercero del orden del día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.12/E/2025/0001411](#))

**Autor:** Ilardia Olangua, Beatriz (EHB)

**Asunto:** Centros de crisis.

**Documento Principal:**

([R.E.12/E/2025/0001411](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (55A)

**Expediente:** ([12/B/20/0002055](#))

3.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu,

eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa ([12/E/2025/0001411SE](#))

**Egilea:** Ilardia Olangua, Beatriz (EHB)

**Gaia:** Krisi zentroak

**Dokumentu Nagusia:** ([12/E/2025/0001411SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (55A)

**Espedientea:** ([12/B/20/0002055](#))



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Ilardia Olangua, tiene usted la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos y a todas.

Bueno, en primer lugar, queremos decir que no es fácil. No resulta fácil poner en marcha un cambio profundo de paradigma. Y eso es lo que entendemos que supone este centro integral; un gran cambio de paradigma. Es un proyecto audaz y complejo y se ha puesto en marcha, y queremos reconocerlo. Y sabemos que un proyecto así no puede ser perfecto el primer año, ni puede serlo el segundo. Pero hoy, lo que venimos a decir aquí es que este ambicioso proyecto, este instrumento eficaz frente a la violencia sexual, esta ventana de oportunidad dará sus frutos siempre y cuando haya una disposición para aceptar propuestas de mejora, porque las soluciones y mejoras nunca vienen negando la existencia de problemas.

Este asunto no es nuevo en esta Cámara. El centro de crisis ha sido un tema que se ha tratado varias veces en estas Juntas: hemos solicitado documentación, hemos formulado preguntas orales, interpelaciones, ha habido comparencias de la diputada, y hoy volvemos a tratar esta moción. Y lo hacemos porque estamos convencidas de que la atención a las mujeres víctimas de violencia sexual debe ser una verdadera prioridad política, no un mero compromiso formal. En el último pleno, en el pleno de resoluciones, una de nuestras cinco propuestas de resolución iba en esa misma dirección: aumentar el número de personal psicológico y jurídico del centro y activar realmente los protocolos entre las diferentes administraciones, la gestión pública de los centros. Era una propuesta de resolución, una declaración de intenciones, una dirección... y no se aprobó. La Diputada General nos dijo que el centro funciona a la perfección y que es pionero. Y sí, es cierto: es pionero en la comunidad autónoma, pero solo desde un punto de vista cronológico, no porque destaque en los estándares internacionales que debería cumplir.

Eta, jakina, hor dago gure harridurea, gure harridura instituzionala, gura izan ezkerro, beste esparru batzuetan erresistentziak espero genduzalako, erresistentzia teknikoak, ezjakintasunagaitik erresistentziak, antolaketa-erresistentziak, administrazio ugari koordinetako konplejutasunagaitik erresistentziak, baita erresistentzia ideologikoak be. Baina, benetan, gatxa da ulertzea erakunde honetan ikusten ari garan erresistentziak, ebidentzietan, zentroaren memorian bertan, Ertzaintzak emoten deuskuzan datuetan oinarritutako proposamen zehatzak onartzerakoan, esaterako, zerbitzua hobetzea eta biktimen eskubideak bermatzea besterik bilatzen ez daben proposamenak onartzerakoan.

Eta ez dogu ulertzen erresistentzia hori. Barriro esango dot. Datuak mahai gainean jarrita, ez dogu ulertzen zelan esan leiteken dana ondo dabilela, zentroaren urteko memoria irakurriko dozulako berrikusi beharreko gaiak dagozala ikusteko, eta preminaz. Memoria horrek erakusten dauen moduan, artatutako emakume gehienak oinarrizko beste gizarte-zerbitzu batzuetatik heltzen dira, euren historia gizarte-langileari kontau ondoren, eta heltzen diranean, eta bideratu ondoren, zentroan sartzeko hitzordua dabe. Eta, beraz, zentroa ez da sarrerako ate nagusia, ezta hurrik emon be. Eta Ertzaintzak berak lortutako datuetan ikusi leiteken moduan, polizia-etxean sexu-eraso bat salatzea joaten diran emakume gehienak ez dira gero krisi-zentrorra bideratzen. Datu horrek, berez, erakusten dau erakundeen arteko protokoloak eta koordinazio-protokoloak ez dirala behar dan moduan funtzionetan ari. Hau da, emakume askok gizarte-langile bati kontetan deusie lehenengo euren historia, eta gizarte-langile horrek, gainera, ez dauka prestakuntzarik izan behar ez indarkerietan, ez sexu-indarkerietan, ez beste ezertan. Eta, kasurik onenean, profesional horrek krisi-zentrorra bideratzen ditu emakume horreek. Bertan, euren historia kontetan dabe ostera be, eta, ondoren,



eta behar izan ezkerro, zentroa ezarri aurretik egoan Esnatu programara bideratzen dabez, edo Clara Campoamorren kanpoko aholkularitza juridikora, edo Abogaduen Alkargoaren txandara (Alkargo Espezializaua deitzen jake), eta ez badakizue, eta ez daukazue zertan jakin, txanda espezializau horretan egoteko baldintza bakarra urtean ordubeteko online prestakuntzea egitea da, eta 10 galderako galdetegi bati erantzutea. Horrelan, indarkeriaren txanda berezian sartu zaitezke.

Halanda ze, emakume batek beharbada bere kontakizuna bi, hiru, lau edo bost aldiz errepetiduten badau, esan al geinke barriro biktimizetea saihestu dogula, hori da-eta zentro horreen helburu nagusietako bat? Erantzuna ezezkoa da. Eta, gainera, erakundeen arteko protokoloak be ez dira behar dan moduan funtzionetan ari, esan dogun moduan, Ertzaintzak berak autortzen dauelako 2025eko lehen bost hilebeteetako datuetan, eta horrelan esan eban Ahaldun Nagusiak ebazpenen Osoko Bilkuran: Ertzaintzaren arabera, 162 salaketa aurkeztu ziran sexu-erasoakaitik. Baina Ahaldun Nagusiak emondako datuen arabera, 14 emakume baino ez ziran bideratu Clara Campoamorren arreta juridikora. Zeozerk huts egiten dau argi eta garbi koordinazinoan.

Y esto no lo decimos desde una simple crítica, sino con total convencimiento. Este proyecto debe salir bien. ¡Este proyecto debe salir bien! Según la memoria del centro de crisis de 2024, fueron atendidas 428 mujeres. En el primer semestre de 2025, según la señora Etxanobe, son ya 344. El crecimiento es exponencial: en el primer semestre se ha llegado ya al 80% de los datos del año pasado. Y, sin embargo, que sepamos nosotras, la plantilla es la misma, sigue siendo la misma, al menos en cuanto a personal psicólogo y abogado.

¿Cómo se puede decir que se está respondiendo adecuadamente a la creciente demanda, sin la incorporación de más personal especializado? Es cierto que el centro está abierto y que siempre responde alguien al teléfono. Pero volvemos al fondo del problema: si se quiere evitar la revictimización, no se puede funcionar así. No puede haber una atención integral en un sistema lleno de derivaciones y esperas. La mujer en situación de crisis no debe escuchar un “mañana te llamaremos”, sino que debe ser atendida de forma inmediata, presencialmente, y recibir toda la ayuda que necesite. No lo hemos preguntado todavía, pero sería interesante saberlo: ¿cuántas veces ha cambiado el equipo de personas trabajadoras del centro desde su fundación? ¿Cuántas personas profesionales se han ido y por qué?. La estabilidad del personal también forma parte de la calidad de la atención.

Se me ha agotado el tiempo. Continuaré luego.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Ilardia Olangua.

El grupo Elkarrekin Bizkaia ha presentado una enmienda. Y por lo tanto, a continuación, el representante del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señor Vaquero Moreno, tiene usted la palabra.

El Sr. **VAQUERO MORENO** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta, y muchas gracias, señora Ilardia, por haber traído su propuesta aquí para poder debatirla.

Zure testuari aurkeztu deusagun zuzenketa-eskearen justifikazinoan proponiduten dogun moduan, uste dogu proponidutako itaunetik eratorritako mozinoaren helburua ulertzen dogula, baina gure eretxian hasierako aldaketak alde zurreko ebaluazino



batetik abiau behar dira. Gainera, nabarmendu gura dogu, gure ikuspuntuaren arabera, krisi-zentro bat edegitea ez dala espediente tekniko bat bakarrik betetea, ezpada erantzun feminista, publiko, unibersal, erreparatzaile eta eraldatzailea bermatzea sexu-indarkeriaren aurrean.

Premisa horretan oinarrituta, zuzenketa-eske bat aurkeztu dogu, eta, aurrez berba egin dogun moduan, emoten dau ez dala kontuan hartuko. Begira, gure hasierako jarrearen laburpen bat egitearren, ondo dakizun moduan, esango deutsut Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko Lege Organikoak, “Bai bakarrik da bai” Lege lez ezagutzen danak, aurrerapen historiko bat ekarri ebal; sexu-indarkeria egiturazko gai lez onartu eban, eta Estaduko lurralde osoan 24 orduko krisi-zentroen sare bat sortzeko betebeharra ezarri eban.

Halanda be, guk, Podemosen izenean, lege hori betetea ez dala nahikoa dinogu. Sexu-indarkeria desagerrarazo gura badogu, krisi-zentroak oinarri feminista, publiko eta eraldatzaileen gainean eregi behar dira, eta ez laguntza-baliabide lez. Izan be, krisi-zentroetan Legeak dinoazan hainbat kontu martxan jarri arren, guri ez jakuz nahikoa iruditzen. Eta azaldu egingo dot. Nahi-ta Legeak arreta integrala ezarten dauen, ez dau zehazten nahitaezko ikuspegi feministarik, ezta hori ziurtatzeko mekanismorik be.

Horregaitik, guri gustauko litxakigu zentroak ez izatea bakarrik larrialdi-zerbitzuak, ezpada feminismoan eta erreparazino kolektiboan oinarritutako ahalduntze eta laguntza jarraituko espazioak. Legeak aukerea emoten dau zentroak itun edo kanpoko zerbitzu bidez kudeatzeko, eta, horri esker, enpresa pribaduei edo sexu-indarkerian esperientziarik ez daben gizarte-zerbitzuei esleitu ahal izan jakez, Madrilen edo Gaztela eta Leonen jazo dan moduan. Halanda be, guri gustauko litxakigu zentroak publikoak izatea, edo irabazi-asmo bako erakunde feministek kudeatzea, kontrol demokratikoagaz, eta kontu-emoteagaz.

Legea berehalako arreteari urgentiazko erantzunean oinarritzen bada be, ez dau zehazten laguntza luzerako eskubidea, eta ez dau ziurtatzen fase horretarako finantzaketa egonkorrik. Halanda ze, guk jarraipen egonkor baten alde egiten dogu, laguntza psikologiko jarraituagaz, laguntza judizialagaz eta lanekoagaz, bai eta laguntza- eta erreperazino-sareakaz be.

Legeak be ez dau aurreikusten erabiltzaileek eta kolektibo feministek krisi-zentroetan parte hartu dagien mekanismorik be; arabere gehiago, diseinua administrazinoen esku ixten dau. Horregaitik, guri gustauko litxakigu bizirik atera diranek eta kolektibo feministek zentroen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazinoan parte hartu dagiela, berbarako, aholku-kontseiluen edo entzute-prozesuen bidez.

Legeak unibertsaltasuna aitatzen badau be, ez dau behartzen benetako sarbide-oztopoak kentzera, esaterako, hizkuntza, administrazino-estatusa, garraioa edo irisgarritasun fisikoa lako oztopoak. Eta, beraz, gustauko litxakigu krisi-zentroetan biktima guztiak artatu ahal izan daitezala, paper bako emakume migratzaileak, sexu-beharginak, emakume transak eta desgaitasuna daben emakumeak barne, azken baten, bazterketa-egoeran dagozan emakumeak, eta badakit, oraingoaz, egiten ari dirana.

Legeak hezkuntza-neurri orokorrak aurreikusten ditu, baina zentroeie ez deutse prebentzino-eginkizunik edo eginkizun komunitariorik esleitzen. Horregaitik, guk eskatzen dogu ikastetxeak ez daitezala bakarrik ha artatzera mugatu; prebentzinoan zeregin aktiboa izan dagiela eskatzen dogu, sexu-hezkuntzan, prestakuntza komunitarioan eta biktimarioakaz lan egitean.

Legeak ez dau finantzaketea be aitatzen. Aitatzen dau finantzaketea, baina beti dago eteteko arriskua, aurrekontu-lehentasanak aldatu ezker. Halanda ze, eta nahi-ta esan



leiteken hau ez dala kasua, guk aurrekontu finalista eta iraunkorrak defendiduten genduzan espazio guztietan, baina ez alde zureko ebaluazio bako kontratazioei lotutakoak, beste zerbitzu mueta batzuetako beharrak beteta eukitea aldatu leikienak.

Jakina, Legeak koordinazioa aurreikusten dauen arren, ez dau derrigortzen prozedura polizialak edo judizialak sakon berrikustera, biktima askok, zuk ondo esan dozun moduan, birbiktimizatzaile lez biziten jarraitzen dabe-eta. Horregaitik, gu erabat ados gagoz zure tesiagaz, eta apur bat harago goaz. Eta poliziaren, osasunaren, justiziaren eta gizarte-zerbitzuen arteko protokoloek giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia izan behar dabela dinogu, eta ez birbiktimizazioan.

Guk beti eskatu izan dogu zentroek berehalako harrerako gelak izan dagiezala, konfidentzialak, arreta mediko eta psikologikoa berehalakoak dabenak, ospitale edo komisarietara joatea nahitaezkoa eta preminazkoa ez daiten izan. Legeak horren betebeharra ezarten ez dauen arren, Euskadin egin dala uste dogu.

Eta, azkenik, Legeak, prestakuntzeari jagokonez, beharginak espezializauak izatea besterik eskatzen ez dauen arren, maminak, akreditazioa eta prestakuntza-metodologia definitu barik, guk prestakuntza arautu feministea eskatzen dogu, trauman eta laguntzan oinarrituta, ez paternalistea.

Hori guztia agertu gura izan dogu itaunetik eratorritako mozinoan, baina luzeegia iruditu jakun moduan, ulertu dogu gauza batzuk egiten ari dirala daborduko eta hobetu egin behar dirala, mozinoaren adostasuna lortzen saiatzeko, zeozelan Ganbera osoak onartu dagian. Eta, horregaitik, 1., 4. eta 5. puntuak arean aldatzeari ekin deusagu, eskaerea osotzeko gehiago. Eskaera hori gure ustez benetako beharrianak diranei hobeto egokitzen jaken, baina, tira, ikusten dot ez dala posible izan.

Zure argudioaren arabera, gure proposamena konplejuegia da, eta, gainera, ez ei dira sartzen segurutzat jotzen diran aginduak, baina, hain zuzen be, interpretazio horrek eragiten dau benetan garrantzitsua dan horretatik aldentzea. Zure proposamena, esan dodan moduan, egokia iruditzen jaku, ez dau gure ustez ezinbestekoak diran elementurik, eta horregaitik, erdibidekoa lortu gura izan dogu. Ez da posible izan. Beraz, aurrerantzean be saiatuko gara. Gugaz kontau eizue, itxi eiguzue persona guztientzat eta leku guztietan onuragarria dan lege bat sustatu izanaren esperientziatik ekarpenak egiten, eta, horregaitik guztiagaitik abstenidu egingo gara bozketan.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Vaquero Moreno.

A continuación, el representante del Grupo Popular Vizcaíno, señor Gómez-Guadalupe García Tejedor, tiene usted la palabra.

El Sr. **GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA TEJEDOR** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos y a todas. Egun on guztioi.

Bizkaiko Talde Popularrak sexu-indarkeriaren biktima guztiak babesteko, laguntzeko eta erreparetako beharra defendiduten dau, argi eta garbi, eta uste dogu hori gizartearen gehiengo handi bat horregaz bat datorrela. Eta, jakina, 24 orduko krisi-zentroak



egotearen eta sare koordinatu baten alde gagoz. Eta, gure ustez, garrantzitsua da osasunagaz, justiziagaz, Ertzaintzagaz, arreta psikologikoagaz, juridikoagaz eta sozialagaz koordinatuko sare bat, hatan be, berehalakotasuna bermatuko dauena, aurretik salaketarik egon barik be emakume biktimei arreteta emon ahal izango deusena, eta, edozelan be, berbiktimizazinoa saihestuko daben protokoloakaz.

Jakina, lehentasuna eskubideak eta emaitzak bermatzea da, erantzun-denpora azkarrak izatea, birbiktimizazinoa saihestea, laguntza osoa emotea, eta hori esperientzia erakusten dabenakaz batera egitea, esaterako, Aldundiko zerbitzu publiko espezializauak, alkarte edo profesional espezializauak, estandar eta kontrol publikoen pean, jakina. Printzipio horreek Istanbulgo Hitzarmenean finkatuta dagoz eta, gure ustez, Europa mailan adostasun handia dago horretan.

Baina, Alderdi Popularrean ez gatoz bat, eta ezin dogu bozkatu EH Bilduk gaur hona ekarri deuskun itaunetik eratorritako mozinoa. Eta horretarako oinarritzko 3 errazoi ditugu: lehenengo eta bat, Bizkaiko Foru Aldundiaren Krisi Zentroak, gure ustez, aplikau beharreko legea eta ordenamentu juridikoa beteten ditualako.

Bigarrenik, gure ustez, ezkerren topiko bat finkatzen dauen ekimen ideologiko bat dalako, hau da, izaera publikoa herritarren arazo guztien konponbide posible bakartzat hartzen dauen topikoa. Eta, horren haritik, biktimek behar daben laguntzea emoteko beste modu batzuk degradau egiten ditualako, gure eretxian. Eta horixe ikusi genduan gaur eztabaidatzen ari garan mozinoaren aurreko itaunean.

Lehenengo eta bat, legezketasunari jagokonez, esparrua zalantza bakoa da, Istanbulgo Hitzarmenak, jagokon Lege Organikoak, Biktimearen Estatutuak, Europako Zuzentarauak..., emaitza zehatz-zehatzak eskatzen dabez, esaterako, 24/7 Krisi Zentroa, arreta psikologikoa, juridikoa, soziala eta berehalakoa, irisgarria, aldez aurretik salaketarik jarri barik, koordinazino sanitario, forense, polizial eta judizialagaz eta, jakina, birbiktimizazinoa saihesteko helburuagaz. Hau da, ezarri beharreko ordenamentu juridikoak eskatzen dauena emaitzak dira, biktimentzako bermeak dira. Egokitzen al da Bizkaian ezarritako zerbitzua Ordenamentu horri? Gure eretxian, bai. Bizkaiko Krisi Zentroa hobetu al daiteke? Zerbitzuak bi urte baino gitxiago daroaz martxan, eta horren ebaluazinoa, jarraipena eta emaitzak agintaldi honetan bertan jakingo ditugu. Halanda be, legez kanpoko zerbitzua al da, edo aurreko Osoko Bilkuran ulertu genduan moduan, ezarri beharreko araudiaren aurkakoa al da? Ez.

Bigarrenik, zer lortu gura dau mozinoak? Bilduk aurkeztutako mozinoak ez dau ilegaltasun bat zuzentzen, eta ez dogu uste ilegaltasunik dagoanik. Kudeaketearen eredu politizau bakarra jarten saiatzen da, eta susmagarritzat jotzen dau hirugarren sektoreagaz edo profesionalakaz (abogadutzeagaz, esaterako) lankidetzan aritzea. Eta hori ez da ordenamentu juridikoak arlo horretan eskatzen dauena. Lehentasun ideologiko bat da, eta ezkerreko topiko bat. Eta, arabere okerrago, gure ustez, arkitektura hori daborduko koordinata dagozan zirkuito batzuk oztopatzerara heldu leiteke.

Ikusi daigun, aztertu daigun, ebaluau daiguzan emaitzak eta biktimei emoten jaken erantzuna, hori da-eta garrantzitsuena, baina ez daigun politikarik egin hain garrantzitsua dan gai bategaz.

Eta, azkenik, lankidetzeak edo gehitu edo gitxitu egiten dau. Gure ustez, publikoa ez da neurtzen prestazinoaren monopolioaren arabera, ezpada emaitzak emoteko gaitasunaren arabera. Eta hemen, ez dogu uste egokia danik biktimak artatzen dabezanen gaikuntza profesionala per se eztabaidatzea, dala behargin publikoak, dala beste profesional batzuk. Eta hitzarmenak, akordioak, alkarte espezializauakaz (Clara Campoamor, esaterako), edo Abogaduen Alkargoagaz akordioak egoteak batu egiten dauela erexten deusagu, positiboa



dala uste dogu. Izan be, zerbitzua indartu egiten dabela uste dogu, esperientzia juridikoa eta psikosoziala emoten dabe, azken baten, biktimei 24/7 arreta emoteko kapilaridadea eta prestasuna.

Elkarrekin Podemosen zuzenketa-eskeari jagokonez, egia da Bilduren proposamenean agertzen ez diran zehetasunak dagozana. Ez da onartuko, baina hori be ezkerren topiko horretan jausten dala uste dogu, esan dodan moduan, hau da, emoten dau publikoa bakarrik dala gai herritarren arazo guztiei erantzuteko.

Azken baten, Alderdi Popularraren eretxian, izan daiguzan berbabide hobekuntzak; sexu-indarkeriaren biktimentzako arreta hobetzeko adostasuna bilatu daigun, lehentasun argi bategaz, lurralde honetan biktimarik ez egotea, biktima guztiei laguntzea jasan daben oinaze guztia konpondu arte. Berba egin daigun zerbitzuaz, berba egin daigun hobekuntzei buruz, baina ezin dogu legezketasuna edo hirugarren sektoreko eragileakaz lankidetzeta zalantzan ipini. Eta hori guztia, ohiko topikoa dan horren pean, hau da, zuzeneko kudeaketa publikoak bakarrik funtzionetan dauela.

Besterik ez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

A continuación, la representante del Grupo Socialistas Vascos, señora Gil Llanos, tiene usted la palabra.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos y a todas.

Ostera be Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen arteko benetako bardintasunagaz eta Bizkaian indarkeria matxistea desagerrarazoteagaz daukan konpromiso irmea agirian ixteko aukerea emoten deuskun ekimen bat daukagu. Eta, lehenengo eta bat, barriri esan behar dot sozialistok burruka horren preminagaz bat egiteaz gain, ekintza zehatzakaz, aurrekontu indartuakaz, etenbako ebaluaziotik, gardentasunetik, lankidetzatik eta entzute aktibotik diseinutako zerbitzuakaz eta programakaz gauzatzen dogula, eta hori guztia biktimea erdigunean jarten dauen ikuspegi eraldatzaile batetik.

Eta konpromiso horrek azaltzen dau Sexu-indarkeriaren biktimei arreta osoa emoteko Zerbitzuaren sorrerea. Zerbitzu horrek gai horren preminari erantzuten deutso, eta hiru gai jorratzen ditu: krisialdian arreta, suspertze integrala eta herritarrari arreta.

Eta, eten barik zalantzan ipinten dozun arren, zerbitzu hori ez da promesa bat, ez da proiektu bat, ezpada errealidade bat. Errealidade horrek Lege Organikoak eta Istanbulgo Hitzarmenak eskatzen dabezan estandarrak beteten ditu, eta alderdi askotan gaudituz egiten ditu, Laespada andreak zure itaunaren aurrean gogorazoten eutsun moduan, eta azalduko deusut zergaitik.

Hara, esan deusuedan moduan, BLZ Zerbitzuaren arreta-ereduak biktimea erdigunean jarten dau, baina ez beste erabiltzaile bat lez, ezpada entzutea, segurtasuna eta indarbarritzea behar dituan persona bat lez. Horregaitik, zerbitzua eguneko 24 orduetan dago zabalik, urteko egun guztietan, sexu-indarkeriak ez dauelako ulertzen ez ordu ez data konturik, eta erantzunak be ez leuke egin behar.



Zerbitzu horrek ez dau eskatzen alde zureko salaketarik, ez ohiko egoera administratiborik, ez erroldatzerik. Lehenetsia ematen jake biktimen duintasunari, konfidentzialtasunari eta babesari, eta arreta dual bategaz egiten dau. Horixe da errealitatea, horixe da mundu guztiak ezagutzen dauden errealitatea, engainu barik; baina halanda be, EH Bilduk ez dau hori kontuan hartzen, behin eta berriz dinoalako zerbitzua ez dagoala operatibo, ez dagoala aurrez aurreko arretarik bulego-ordutegitik kanpo, beharginak ez dirala nahikoa, baliabidea ez dala ezagutzen, protokolorik ez dagoala edo dagozanak ez dirala eraginkorrak, eta horrek guztiak arreta txarra dakarrela, eta, arabere larriagoa dana, emakumeen birbiktimizazioa dakarrela.

Guzurra da, Ilardia andrea, eta ikusiko dozu. Esan dozu beharginak falta dirala eta 3 psikologo eta 3 abogadu kontratatu behar dirala. Eta esango deustazu zertan oinarritzen zaran hori esateko? Hiru, eta ez lau, edo bi? Izan be, memoriak dinoskunez, 2024an, laguntza psikologikoa eta juridikoa behar izan eben kasuen %100ek jaso eben zuzenean arreta Krisi Zentroan. Kasuen %100ek. Ez zan bakar bat be itxi arreta barik. Horrek, argi eta garbi adierazoten dau, gure ustez, ez dala behar beharginik.

Mozinoak ikusgarritasun faltea be aitatzen dau. Argi dago herritarrek zerbitzu publiko guztiak ezagutu behar dabezala, eurretara sartzeko eskubidea erabili ahal izan dagien. Baina, era berean, jakin eta autortu beharko zeunkie Bizkaiko Foru Aldundiak zabalkunde-kanpaina espezifikoak egin dituala komunikabideetan, sare sozialetan, ikastetxeetan, espazio sanitario eta sozialetan. Informazio-euskarriak banatu dira, webgune seguru bat aktibatu da, hirugarren sektoreko erakundeakaz lan egin da batez be zaurgarriak diran kolektiboetara heltzeko. Eta ahaleginak egiten jarraitu behar dogu, jakina, eta egiten jarraituko dogu. Eta gazteei, emakume migratuei eta lehen mailako arretako profesionali zuzendutako ekintza barriak jarriko dira abian. Eta espero daigun EH Bilduk onartzea nozoz ahalegin hori.

Zuek koordinazio eta protokolo faltea aitatu dozue, edo eraginkorrak ez diran protokoloak aitatzen dozue. Baina eskatzen deuskuzue martxan dago. Zerbitzuaren funtsezko zutabea dira, eta goi-mailako erakunde arteko akordio baten barruan kokatzen dira. Izan be, indarkeria matxistaren biktimei arreta koordinatu emoteko hirugarren akordiotik goaz. Akordio horrek jardura-jarribide koordinatuak eta homogeneoak ezarten ditu inplikautako erakunde guztietan: osasuna, polizia, justizia eta gizarte-zerbitzuak. Gainera, protokolo espezifikoak eten barik berrikusten dira, eta berehalako deribazioaren printzipioa ezarten da, alde zureko balorazio barik, zerbitzuaren oinarrietako bat lez.

Birbiktimizazioa be aitatu deuskuzue. Baina hori saihestea ez da konpondu bako kontu bat; zerbitzuaren beraren printzipio gidari bat da, hain zuzen be, biktimek euren kontakizuna behin eta berriz errepetitu behar ez izateko diseinutako zerbitzua dalako, agirian jarriko dauzan edo ahulduko dauzan labirinto instituzional batetik ibiltera behartuta egon ez daitezkan. Eta hori arreta integrala, konfidentzialtasuna eta koordinazioa darabilzan ereduagaz egiten dabe, lehen hartu-emonetik alkarregaz lan egiten daben psikologoen, gizarte-langileen eta legetarien talde bategaz. Eta, gainera, esan deusuedan moduan, Aldundiaren eta Emakunderen protokoloak ditugu.

Horregaitik, ostera be errealidadetik kanpo zagoze, protokolo horreen existentzia edo birbiktimizazioaren aurkako neurriak zalantzan jarten dozuezan. Eta berriz be esango dot, desinformateaz gain, profesionalen lanari zilegitasuna kentzen deustazue, arreta duina eta konpontzailea ahalbidetzen ari diranean. Beraz, mesedez, hortik ez daizuela jarraitu eskatuko neuskizu.

Era berean, aitatu deuskuzue mozinoaren bosgarren eratorria, eta hortik be ez eizue jarraitu, errazotzeko aurkeztu dozen mozinoaren bosgarren eratorria, harenbaten. Argi eta garbi esango deustut: BLZ zerbitzu publikoa, unibertsala eta doakoa da, eta Bizkaiko



Foru Aldundiak bermatzen dau. Eta, erakunde espezializauakaz lankidetzan aritzeak ez dau pribadu bihurtzen; alderantziz, aberastu egiten dau, erakunde horreek esperientzia, sentsibildadea eta erantzuteko gaitasuna emoten dabelako eta horreek guztiek ekintza instituzionala osotzen dabe.

Horregaitik, amaitzeko, indarkeria matxistearen biktimei arretea emotea ez da aukera bat, ezpada betebeharra; horregaz bat gatozan guztioi dei egiten deusuet; zerbitzu hori publikotik eskaini behar jakela uste dogun guztioi, berme nahikoakaz, biktima horreek mimoz eta eskuzabaltasunez artatzen dabezanen lana batere erraza ez dala baloretan dogunoi, biktima bakar bat dagoan bitartean beste aldera ez begiratzeko konpromisoa hartzen dogulako, zuzen-zuzenean; gehiago alkartzeko, ahaleginak batzeko, daukaguna balioesteko eta prestigiatzeko deia egiten deusuet. Izan be, beti hobetu daiteke, jakina, hobetu daiteke, baina ziurtau ahal deusuet bizitzak salbetan dituala, eta sano une gogorretan bizitzak babesten dituala. Aurkaria ez dago hemen, Batzar Nagusietan, hor kanpoan dago, hiltzen daben matxistak dira, genero-indarkeria ukatzen daben matxistak. Ez gaitezan arerioaz erratu.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Gil Llanos.

A continuación, la representante del grupo Nationalistas Vascos, señora Gómez Devesa, tiene usted la palabra.

La Sra. **GÓMEZ DEVESA** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos y a todas.

EH Bilduk Krisi Zentroari buruz planteetan deuskun itaunetik eratorritako mozino honek hainbat gai planteetan dituala uste dot, bai justifikazinoari jagokonez, bai proposamenari jagokonez, eta interesgarria litzateke apurka-apurka jorratzen joatea. Halanda be, ekimenaren zehetasunetan sartu aurretik, egokia iruditzen jat berbabide dogun gaia perspektiban jarrea, batzuetan, osotasunaren zati bat aztertu ezker, nahasmena sortu leitekkelako. Eta, hori saihesteko, uste dot komenigarria dala argi ixtea Krisi Zentroa ez dala arretarako eta harrerarako baliabide isolatu bat, ezpada egituratutako zerbitzu-sare baten zati bat, sexu-indarkeriaren biktima diran emakumeei babesa, arrimua, suspertzea eta laguntzea emoteko zerbitzu integral bat eskaintzen dauena.

Eta orain bai, mozinoaren planteamentuan bete-beteen sartuta, justifikazinoagaz hasiko naz. Izan be, lehen paragrafoan honakoa dino: “Krisi Zentroa Bizkaian sortu zan sexu-indarkeriaren biktima diran emakumeei arreta integrala, espezifikoa eta berehalakoa bermatzeko, legezko aginduaren arabera ezarritako gitxieneko estandarrak betez”.

Ados gagoz bete-beteen. Bat gatoz azpiegitura hori abian jartearen garrantzian, funtsezko baliabidea da-eta Bizkaiko babes-sisteman. Halanda be, gero eta urrunago joango gara justifikazino horren hurrengo paragrafoetan; izan be, ez dituala beteten krisi-zentro batek bete behar dituan gitxieneko estandarrak dinozuenean eta, bestetik, bulego-ordutegitik kanpo emakumeak ez dirala zentroetako baten artatzen, eta, beraz, ordutegi horretatik kanpo, emakumeek ezin dabela arreta presentziala eta berehalakoa jaso dinozuenean ezin gara bat etorri.



Bi gai horreekaz ezin gara egon ados, objektiboki uste dogulako ez dala horrelan. Eta, gainera, argi dago planteamentu horreek, motibatzaileak izan beharrean, nahasmena eta segurtasunik eza ekarri leikiela. Eta hori saihestu egin behar dogu; izan be, Bizkaian sexu-indarkeriaren biktima diran emakumeek zerbitzu integrala jasoten dabe, eguneko 24 orduetan, asteko 7 egunetan eta urteko 365 egunetan artatuak izan daitezcan. Sailaren webgunera sartzea baino ez dago. Bertan, 900-840 977 telefono zenbakia agertzen da eta egiaztatu besterik ez dago. Eta hori argi itxi behar da, ez dogu inor nahastuko. 900-840 977; 24 ordu egunean; zazpi egun astean; 365 egun urtean.

Eta, bestalde, zure justifikazio-zatian planteatu dozun bigarren gaiari jagokonez (gure eretxiz, hori be ez litzateke zuzena izango), krisi-zentro batek bete beharreko gitxieneko estandarrak ez dirala beteten adierazi dozu. Eta ez gatoz bat, legezko agindura bertara jo besterik ez dalako egin behar. Istanbulgo Hitzarmenaren arabera estatuak behartuta dagoz biktimei laguntzeko zerbitzu-erako sarbidea bermatzera, eta horrek esan gura dau zentro horreek 24/7/365 edegita egon behar dirala, diskriminazio barik laguntza integral eta konfidentziala eskaintzen daben behargin gaituakaz.

Eta, beste alde batetik, 10/2022 Legeak administrazio publikoek laguntza integrala, espezializaua eta irisgarria jasoteko eskubidea sustatuko dabela ezarten dau, eta, horretarako, zerbitzuak eskainiko dabezala, esaterako, 24 orduko krisi-zentroak, arreta psikologikoa, juridikoa eta soziala emoten dabenak, etenbako arretearen eta preminazko jarduketaren erispideen arabera. Zerbitzu horreek arrimua eta laguntzea emongo dabe krisi-egoeretan, biktimentzat, familientzat eta inguruko personentzat, bai eta oneratzeko-zerbitzu integralak be, suspertze psikologikoko eta gizarte-, hezkuntza-, lan- eta lege-arloko laguntzako diziplinarteko zerbitzuak diranak.

Halanda ze, legezko aginduan jasotako gitxieneko estandarrak beteten ez dirala esatea errealidade guztietatik kanpo legoke; izan be, Bizkaian sexu-indarkeriaren biktima diran emakumeei berme guztiakaz erantzuten jake, eta sistema horrek arreta emoten dau krisi egoeran, suspertze integrala eta, gehiagora joanda, baita herritarrei be. Eta Bizkaiko zerbitzu integral horrek krisi egoerarako arreta-zentroa dauka, larrialdiko 24/7/365 baliabidea, edozein unetan laguntzea emoten dauena telefonoaren, posta elektronikoaren, webgunearen, whatxappen eta sare sozialen bidez. Bertara sartu daiteke inongo oztopo barik, eta bertan arreta presentziala emoten da, biktimak eskatzen dauen lekuan, ekipoak lekualdatzen diralako, lehen sorospen psikologikoak, juridikoak edo behar dan beste edozein arlotakoak egiten diralako, eta osasun-ibilbidean, epaitegian eta polizian laguntza personala emoten da. Eta persona hori arriskuan badago, biziteko ostatua izango dau.

Gainera, Bizkaian arreta integraleko zentroa dago, eta bertan epe luzeagoko suspertze psikologikoa eta laguntza soziala edo juridikoa landu eta ondoizate personala eta ahalduak jorratzen dira. Eta, gainera, Bizkaiak herritarrentzako arreta-zerbitzua dauka, zerbitzura sarbide lez, informazio-, laguntza- edo orientazio-konsultei erantzuteko.

Halanda ze, ez gatoz bat mozino honen oinarriagaz, eta, gainera, erabiltzaileak nahastu ahal izango leukezala uste dot, erabiltzaile potentzialak, euren hurrekoak, eta baita herritarrek be, orokorrean, ekimen honek gitxienez egoera kaotikoa erakusten dauelako, eta horrek ez dauka zerikusirik benetan emoten dan zerbitzuagaz. Izan be, beharrezko eta espezializatuak beharginak falta diran zerbitzu bat deskribiduten dau, protokolorik eza, zerbitzu ezezaguna eta kudeaketa zalantzarria daukala dino. Ba, horri jagokonez, uste dot egokia dala adierazotea Bizkaiak kalidadezko zerbitzu integrala bermatzen dauela, diziplina anitzeko taldeak osotzen dabezcan profesional akreditauk artatzen dabela, sortu leiteken edozein beharrezanetan laguntzeko.

Eta proposamen-zatiaren bost puntuak jagokonez, bigarren txandan



errazoitzen saiatuko naz. Halanda be, eta proposamena justifiketan dauen argudioagaz bat ez gatozan lez, uste dot argi dagoala nekez onartuko geunkezala horreetatik eratorritako eskaerak, baina, tira, gero denpora gehiagogaz garatuko dot.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Gómez Devesa.

A continuación, la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Ilardia Olangua, tiene usted la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Muchas gracias de nuevo.

Zuon azalpenak idatziz ekarri dozuezan ezker, idatziz ekarri dozuen hori esan dozuela ulertzen dot. Baina nik, edozelan be, ez dot hondamen-egoerarik aitatu. Izan be, hasieratik autortu dot proiektu honek ez dauela lehenengo eta bigarren urteetan funtzionauko. Gabeziak dituala, bai, eta gabezia horreek zuzentzeko eta aurrera egiteko erresistentziak ez ditugula ulertzen. Horixe esan dot. Katarsirik ez. Eta lehen ez dot esan, baina Gil andreak esan dauenaren ondoren, orain adierazo gura dot profesional guztiek zentro horretan egiten dabean lanari balioa emon gura deusadala, zuzen-zuzenean dakit-eta zein dan; eta profesional horreek be ahal dabena egiten dabe. Hori be aitatu behar dot.

Nire ustez, sano praktika ona da abangoardia diran eta hain urrun ez ditugun beste esperientzia batzuk behatzea, Asturiasko esperientzia, berbarako. Asturiasko Printzerriak 1.016.000 biztanle ditu, Bizkaian baino gitxiago, eta era honetako ezaugarriak dituan krisi-zentro bat dauka. Zazpi aholkulari juridiko eta zortzi psikologo ditu; horreetatik bana, hau da, psikologo batek eta abogadu batek, 12 urtetik beherako emakumeei bakarrik emoten deutsee arrete. Kudeaketa publikoko zentro bat da, Istanbulgo Hitzarmenetik eta Lege Organikotik eratorritako legezko aginduaren aurretik sortua. Eta hori bada zentro aitzindaria izatea. Hori bai, hori esperientzia aitzindaria da, kronologikoki ez ezik, egitureagaitik, profesionaltasunagaitik eta ikuskera integralagaitik. Izan be, kontua ez da kritika politikoak egitea. EH Bildu ez dago antipodetan; ez dauz kritikak egiten egiteagaitik, zentro hori kudeatzen dauen alderdi politikoa beste kolore batekoa dalako. Izan be, Asturiasko zentro hori PSOeren Gobernuak kudeatzen dau politikoki, eta gu bere lan ona goraiatzera gatoz hona. Hau da, hau ez da kritika bat. Izan be, hasieratik esan dogu, eta esaten jarraitzen dogu, ekarpenak egitera gatozala. Eta gabeziak ditu, eta aurrera egiteko funtsezkoa da gabeziak dituala onartzea.

Halanda ze, bai, biztanle gitxien dituan Asturiasko zentroak zazpi psikologo ditu eta zortzi abogadu ditu. Bata edo bestea, edo profesional asko ditu soberan, edo guri falta jakuz. Izan be, ez ditut egingo kasura ez datozen beste konparazino batzuk. Izan be, dana ondo doala esateak ez gaitu helburuetara hurbiltzen, eta falta dana onartzeak, bai. Onartzea. Orain dala hilebete batzuk ahalduntze instituzionalari buruzko nazinoarteko jardunaldi baten entzun neban idea sano argia iruditu jatan; izan be, erakundeek ez dabe autoridaderik galtzen gabeziak onartuta, ezpada irabazi. Eta uste dot hori dala puntua. Kontua ez da akatsak adierazotea, ezpada gizataldea hobetzeko eragile bihurtzea. Izan be, Gobernuak dinoanean beti dagoala hobetzeko espazioa, eta batez be gai honetan bere adierazpen guztietan dino hori, badakigu modu atseginean dinoana, zeozelan, baina benetako mamin barik. Izan be, hobetzeko espazioa beti dagoala dinozuen espazio hori gauzatu egin behar da, identifikatu egin behar da hobetu beharrekoa, emakume beharginei, bizirik atera diran emakumeei,



sexu-indarkerian adituei eta alkarte feministei entzunda, eta denpora gehien daroen eta esperientzia gehien daukien zentroetatik ikasita. Ebaluau, berrikusi, hobetu eta ikasi, dana ondo doala esateagaz konformau beharrean.

Y por eso nuestra moción propone medidas concretas, realistas y perfectamente viables. No propone nada que la ley no prevea. Lo que propone es aumentar la mitad de las personas profesionales que tiene el centro asturiano. La mitad.

Zergaitik hiru, edo lau, edo bost? Ez, gugaitik balitz askoz gehiago izango lirakeke. Baina hemen memoria dago, hemen memoria dago, eta koordinazioa ondo dabilela esaten deustazue. Baina hori gai enpirikoa da-eta, Ertzaintzak 180 sexu-eraso jaso dituala dinoalako eta ez dakit zenbat sexu-erasuren salaketa, eta zuek Clara Campoamor zentrorra 14 bideratu dirala dinezue laguntza juridikoa jaso dagien. Ez dago funtzionetan dauen koordinaziorik. Ez dala katarsi bat? Ondo, baina hemen hobekuntza handia dagoala egiteko? Bai, eta horretan laguntzera gatoz, ez esatera “hor dozue webgunea, ezin hobea da, telefono-zenbaki bat...”. Indarkeria jasan daben emakume horreei guztiei galdetuko deutsegu, jasan daben indarkeriez berba egin daben emakumeei, hobeto esanda, ebaluau dagien, Ertzaintza Etxean balorazino bat egin dagien. Salaketea jartera datorrenean, erantzun dagiela, baten batek Krisi Zentrorra bialdu ditu, baten batek jaso dau horren berri. Zelan izan da? Tira, ebaluau daigun.

Como he dicho, hemos traído este tema en varias ocasiones. A veces hemos utilizado el tono de la queja, a veces hemos exigido, a veces con frustración, pero siempre con una actitud constructiva. Y hoy volvemos a ello, a ofrecer colaboración, para mejorar lo que todos y todas las que estamos aquí sabemos que puede y debe mejorarse, y para que este centro cumpla de verdad su verdadero objetivo fundacional: acoger, ayudar y recuperar a las mujeres sin revictimizarlas de nuevo.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Ilardia Olangua.

El representante del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señor Vaquero Moreno, tiene usted la palabra.

El Sr. **VAQUERO MORENO** jaunak: Muchas gracias.

Tira, nire berbaldia laburtzen saiatuko naz, Gil andreagaz ados nagoalako, hau da, aurkaria ez dago edo, behintzat, ez dau emoten Batzar Nagusietan dagoanik. Gauza bat bakarrik, Gómez-Guadalupe jauna, Zerbitzua eta Gizarte Zerbitzuak publikiketari jagokon ezkerreko topikoaren aurrean, eskuinaren ohiko topikoa pribatizazioa defendidutea da; horixten deusut. Proposamenak askoz be gauza gehiago aitutzen ditu, espero dot kontuan hartuko zenduzala.

Nik, nire aldetik, berbaldi honetan, EAEko arau-esparruaz berba egiteko asmoa neukan, eta, batez be, espazio guztietan azaltzen dan esaldi bat aitatu gura dot, hau da, indarkeria matxistea jasaten dabenek gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze espezializaua izateko eskubidea dabela. Eta, horren haritik, gaur argi geratu beharko litxakigu krisi-zentroak beharrezkoak dirala, indarkeria matxistea egiturazkoa dalako eta alderdi anitzekoa dalako; ez dala nahikoa salaketa jarrea edo poliziaren babesa eskatzea.



Ondorio psikologiko, ekonomiko, sozial eta sanitario ugari dagoz eta zentro horreek ondorio horreei modu global edo integralean heltzeko aukerea emon behar dabe. Argi izan behar dogu, espazio horreek ez balegoz biktima asko isolatuta geratu leitekezala nora jo jakin barik, eta euren segurtasun fisiko eta emozionala lehenetsuzkoa dala. Egiatauta dago zentro horreek biktimearen bizitza normalizetan laguntzen dabela; bere bizitza berregiteko, integretako, bere autonomia berreskuratzeko babes emoten deusie, erasotzailearen edo laguntza puntualen mende bakarrik egon ez daiten. Baina batez be, ezinbestekoak iruditzen jakuz, ikasketa bikarioaren bidez be laguntzen dabelako, hau da, indarkeria areagotzea edo ondorio larriagoak prebeniduten laguntzen dabelako.

Halanda ze, gure ustez, ezinbestekoa da Bizkaiak eredu propio bat bermatu dagiala, arreta integraleko sare publiko bat sendotuko dauena, feminismoagaz, giza eskubideakaz eta biktimen indarbarritzeagaz konpromisoan oinarrituta kudeatuko dana. Kontua ez da bakarrik publikoa izatea. Gure eretxian, Bizkaiko Foru Aldundiak, indarkeria matxistearen biktima diran emakumeei arreteta emoteko sareko erreferentziazko erakundea dan aldetik, zeregin aktiboa hartu behar dau Bizkaiko Krisi Zentroak eta etorkizunean egon leitekezan era horretako zerbitzuek erispide horreek beteten dabezala bermatzeko eta arreta publiko eta feministearen erreferente bihurtzen dirala bermatzeko.

Uste dot danok gagozala horretan, esan dodan moduan, eta ea hurrengoan ados jarten garan hobetzen jarraitu daigun.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Vaquero Moreno.

La representante del grupo Socialistas Vascos, señora Gil Llanos, tiene usted la palabra.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Eskerrik asko ostera be, mahaiburu andrea.

Lehenengo berba-txandan erabili diran esamolde batzuk zehazten saiatuko naz. Begira, Ilardia andrea, zintzotasun osoagaz dinotsut. Niri eta nire taldeari gustauko jakun gaur tribuna honetan sano berbaldi desbardina egitea. Baina zuk, zure baieztapenakaz, ez deuskuzu leku handirik ixten alkarregaz eregiteko. Sentiduten dot, benetan sentiduten dot.

Laespada andreak, Kontroleko Osoko Bilkuran, gai hau bera eztabaidatu zanean, baieztapen-joerea zeunkala esan eutsun. Egitateak eta behin eta barriro errepetiduteak kontuan hartuta, nire ustez, esango deusut zurea zentroagaz burugogorkeria baino ez dala. Zerbitzua Batzordean aurkeztu zan lehenengo unetik, jarrera kritikoa jarri zinan hasiera-hasieratik. Bestelan, aktak irakurriko ditugu. Mesfidantzazko jarrera. Eta denporan jarrera hori areagotu egin jatzu, diputadu andreak emondako azalpen zabalak gorabehera, edo zentrorra izan zenduan bisitaldian beharginakaz izan zenduzan alkarrizketa zuzenak gorabehera, edo gaur tribuna honetan egin dozuzan baieztapen asko desegiten daben memoriak eurek ezagutzen dozuzan arren.

Berbaldiak etxetik prest dakarguzala esan dozu; baita zeuk be. Nik, nire lehenengo berbaldian, zuk mahai gainean ipini dozun ekimenari erantzun behar izan deusat,



hau da, mozinoari. Eta nire berbaldia puntuz puntu joan da, eta mozinoan erabili dozuzan argudioak desegiten saiatu naz. Eta arabere gehiago iruditzen jat, eta nahiko txundituta ixten nau zuk, halanda be, jarraitzea esaten langileak behar dirala, zentroko beharginek eurek ezetz esan eutsuenean, zuzen-zuzenean. Galdetu egin zenduan eta ezetz esan eutsuen. Eta, behin baino gehiagotan diputadu andreak berak esan dau Legebiltzarrean eskariaren bilakaareak gora egitea eskatzen badau, hazi egingo dala. Geu gara kalidadezko zerbitzu bat emoteko interes handiena daukagunak. Izan be, guretzat indarkeria matxistearen aurkako burrukea gure kezka eta okupazio nagusia bada, ez dakit zergaitik zagozan eten barik mesfidantzaz.

Eta, gainera, nik ez dakit zelan jarraitzen dozun baieztapenak egiten mozinoan bertan, bulegoko zerbitzuari bakarrik erantzuten jakola esaten, memoriak, sei, zazpi eta zortzigarren orrialdeetan, arreta-ordutegiaren azterketa zehatza egiten dauenean, erabiltzaileen eskariaren arabera. Eta memoriak dino erabiltzaileen %65ek goizez eskatzen dauela zerbitzu hori, arrastietan %25era jaisten dala, eta gaubez %6,31 baino ez dala eskatzen. Astegoienetan %8 baino ez da eskatzen zerbitzu hori, eta goizaldean, hain zuzen be, astegoi horreetan, %1.

Eta ez al dozu esan bulego-orduetan baino ez dala artatzen? Edo memoriak be guzuzra esaten al dau jasoten dituan datuetan? Hara, protokoloei buruz egin dozun baieztapen bakotxagaz joan naiteke, zentroari berari buruz be. Baina, tira, autortu behar dot zeozer aurreratu dogula, Batzordean zentroa bera be ez zendualako aintzat hartzen. Orain, behintzat, zentroa onartzen dozu hobetu behar dala esateko, eta horretan behintzat aurrera egin dogula onartu behar dot.

Baina, hara, Ilardia andrea, sentipenetan eta pertzepzinoetan oinarritzen diran kontakizunek dohain zoragarri bat dabe, frogarik ez dabela behar, hatan be. Izan be, edozein istorio egiazkoa izan daiteke kontetan dauenarentzat, pertzepzinoak hain dira malguak ze. Eta uste dot zure kontakizuna gainbegiratu egin beharko zeunkela.

Eta gogoeta bategaz amaituko dot, zehetasun teknikoetatik edo taldeen arteko desbardintasunetatik harago doan gogoetea. Izan be, sexu-indarkeria berbabide dogunean, ez gara bakarrik kudeaketa-ereduei, protokoloiei edo aurrekontuei buruz eztabaidatzen ari. Eraso egin deutseen, isilarazo dabezan emakumeen bizitzea dogu berbabide, eta erakundeak euren neurrira egon daitezala behar dabe. Eta horretan, Vaquero jaunak esan dauen moduan, danok alkartuta egon beharko geunke.

Euskal Talde Sozialistearen eretxian, feminismo instituzionala ez da neurtzen nik tribuna honetan esan neikezan berben arabera, ezta zuk zeuk be, ezpada konpromisoen eta abian jarritako politiken arabera. Eta horixe da, hain zuzen be, Bizkaiko Foru Aldundiak egin gura izan dauena, sexu-indarkeriaren biktimei arreta integrala emoteko zerbitzua diseinatu zanean.

Badakigu bide luzea dagoana egiteko, alderdi batzuk hobetu egin behar dirana, eta horretan ari gara. Horretan ari gara. Eta zuk ez dozuz onartzen memorian jasota datozen aurrerapenak be, eta politika barriak ezarri dira. Baina horregaitik be, lortu doguna behintzat onartu daizula eskatzen deusugu, eregitakoa ikusiezin bihurtzeak ez deutse-eta biktimei laguntzen, eta sexu-indarkeriaren aurkako burrukea liskar politikorako eremu bihurtzeak be ez dau laguntzen.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Gil Llanos.



A continuación, la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Gómez Devesa, tiene usted la palabra.

La Sra. **GÓMEZ DEVESA** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Nire bigarren txandeari ekingo deusat esaten gai honek danok batera joateko izan behar dauela, alkarregaz lan egin behar dogula, eta edozein gatazka politikotatik kanpo itxi behar dogula. Eta, hori esanda, mozinoaren proposamen-zatiari helduko deusat, ez deust-eta astirik emon nire lehenengo berbaldian.

Lehenengo puntuari jagokonez, urtebetean plantillea 3 psikologo eta 3 juridikogaz handitzea planteetan danean, hasiera baten, uste dot beharrezkoa dala esatea Bizkaiko Arreta Integraleko Zerbitzua sexu-indarkeriaren biktima diran emakume guztientzat bermatuta egon dala, dagoala eta egongo dala. Bai 2024an, memorian jasotako datuek erakusten daben moduan, eta baita 2025ean zehar be, edozein arreta-gunetara (Krisi-egoerarako Arreta-zentrora, Suspertze Integralerako Zentrora edo Arreta Zerbitzura) joan diran emakume guztiak artatu izan dabezala talde profesionalek, euren preminetan eta eskakizunetan.

EH Bilduren proposamenak kopuru zehatz bat planteetan dau, 3 psikologo, 3 juridiko. Ez dakigu zein txosten teknikotan oinarritzen dan proposamen hori, ze beharizan-azterlanetan oinarritzen dan, ze aurreikuspen tekniko edo profesionali buruz ari dan, edo emondako zerbitzuagaz ze desadostasunetan oinarritzen dan. Ez da ezer aurkeztu horren inguruan; hiru, gitxi gorabehera, zergaitik? Izan be, Asturiasek zazpi ditu, tira.

Txostenek eta espedienteek, ostera, bermatu egiten dabe diziplina anitzeko zerbitzu integrala emon jakela halan eskatu daben erabiltzaile guztiei. Eta, edozein eremutan plantillea handitu beharko balitz, inongo arazo barik egingo litzateke. Laespada andreak bere berbaldiren baten esan dauelako: Zerbitzua eten barik ebaluetan da, eta birdimentsionau egiten da beharren arabera, ez ausaz, edo premina-txosten barik.

Ikusgarritasuna handitzeko kanpainei jagokonez, dibulgazino-ekintzak egin dira, bai 2024an, bai 2025ean, prentsa-oharrak, 40.000 liburuxka banatu dira, ikus-entzunezko kanpaina sano indartsua egin da. Eta, tira, guztion interesekoa da ahalik eta emakume gehienakana heltzea, eskura ditugun baliabideak ezagutu dagiezan. Horren haritik, ekintza garrantzitsuak egin dira, eta horretan lan egiten jarraituko dogu.

Protokoloai jagokonez, badagoz, ebaluau eta eguneratu egiten dira, eta horreen artean indarkeria matxistearen biktimei arrete emoteko erakundeen arteko hirugarren akordioa dago, eta gizarte-zerbitzuen, osasunaren, justiziaren, poliziaren, hezkuntzaren, enpleoaren eta etxebizitzaren arloan jarduteko eta koordinetako jarraibide orokorrak jasoten ditu. Eta 2023ko urtarrilekoa da. 2024ko zemendian, sexu-indarkeriaren biktimei laguntza integrala emoteko zentroakaz koordinetako protokoloa daukagu, sexu-indarkeriaren biktimei laguntza integrala emoteko zerbitzuaren funtzionamentu- eta koordinazino-protokoloa.

Halanda ze, gure eretxian, zerbitzua esku-hartzaileakaz protokolizauta dago, eta denporaren joan-etorrian gainbegiratu dabe, sortu leitekezan aldagaien arabera.

Eta, azkenik, zentroaren kudeaketa publikoari buruz. Ez da Ganbera honetan gai horri buruz berba egiten dogun lehenengo aldia, eta eztabaidetan alderdi politiko bakotxaren erduei buruzko jarrerak finkatzen dira. Eta, lehen be aitatu dodan ezkerko emakumeen sexu-erasoen biktimei arrete emotearen gaia kutsu politikotik atera gura dodala, horri jagokonez, zerbitzu integral hori beste erakunde batzukaz lankidetz-eredu baten bidez



bermatzen dala baino ez dot esango, eta ez doguz inoiz zalantzan jarriko berbabide doguzan arloetan zerbitzua emoten daberen talde profesional publikoak edo erakundeetako kide diran talde profesionalak.

Akreditazioa daukien profesionalak dira, abogaduak, psikologoak eta gizarte-hezitzaileak. Sexu- eta genero-indarkerian eta trauman espezializazio espezifikoak dabe, eta euren maileak, prestakuntzea eta profesionaltasuna erakusten dabe, eta horrek kalidadezko zerbitzua emotea bermatzen dau.

Azkenik, Elkarrekin Bizkaiak aurkeztutako zuzenketa-eskeari jagokonez, badakit ez dana onartu, baina, tira, eutsi egin deutse jatorrizko ekimeneko gai batzuei, eta daborduko argudiatu dogu horreen inguruan daukagun desadostasuna. Halanda ze, tira, ez dogu gehiago sakonduko. Eta azaldutako guztiagaitik, gure taldeak horren aurka bozkatuko dau.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Gómez Devesa. Y una vez finalizado el debate, someteremos a votación la moción. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 48 votos. Han sido 13 votos a favor; han sido 33 votos en contra, 2 abstenciones. Por lo tanto, no se aprueba la moción.

El punto cuarto del orden del día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Proposición no de norma ([R.E.12/E/2025/0001237](#))

**Autor:** González Díez-Andino, Raquel (GPV/BTP)

**Asunto:** Disputa legal entre los municipios de Sukarrieta y Busturia por el enclave de San Antonio.

**Documento Principal:**

([R.E.12/E/2025/0001237](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (41A)

**Expediente:** ([12/B/26/0001998](#))

4.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Arauz besteko proposamena ([12/E/2025/0001237SE](#))

**Egilea:** González Díez-Andino, Raquel (GPV/BTP)

**Gaia:** Sukarrieta eta Busturia udalerrien arteko lege-azua, San Antonio enklabea dala-ta

**Dokumentu Nagusia:** ([12/E/2025/0001237SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (41A)

**Espedientea:** ([12/B/26/0001998](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: En este caso, les doy la bienvenida de nuevo al alcalde y a los y las vecinas que se han acercado de Sukarrieta. Y una vez dicho esto, le daremos la palabra al grupo que ha presentado la iniciativa. Señora González Díez-Andino, representante del Partido Popular Vizcaíno, tiene usted la palabra.



La Sra. **GONZÁLEZ DIEZ-ANDINO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Egun on guztioi.

Nik be bat egiten dot gaurkoan honaino etorri diran Sukarrietako alkateari eta beragaz batera dagozan bizilagunei agurra egiterakoan, bilkurea zuzenean jarraitzeko lana hartu dabelako. Eta, tira, ba, izan zaitezte ondo etorriak gure etxera.

Alderdi Popularrak, proposamen honegaz, Arauz Besteko Proposamen honegaz, Sukarrietako bizilagunakaz zuzenean lankidetzan, benetako amaiera bilatu gura dau, amaiera onargarria eta inplikautako alderdi guztiek onartzeko modukoa bilatu gura dogu, inor seinalau barik, iraganeko azalpenak eskatu barik, gaitasunak edo erabagiak edo gai honen aurreko bozketak be arpegiratu barik. Izan be, danetik egon da, zauri hau zabalduta egon danetik, hamarkada bat baino gehiagoz, ia bi hamarkadaz. Eta “danetik egon dala” dinodanean esan gura dau Gobernuko alderdien abstentzinoak egon dirala (eta gaur kontra bozkatuko dabela dinoe), eta gaur aldeko botoa emongo daben alderdiak be badirala, (bere egunean abstentzinoa bozkatu ebenak).

Hau da, 2017ko abenduko osoko bilkura haretan, gauza bera bozkatzeko argi eta garbi egoan dana, ez egoan zalantzarik, eta, nire ustez, horixe da horrelango gai baten geure buruari eskatu beharko geunskion gitxienekoa. Ez gaitetzan engainau, orduan kontua ez zan Foru Araua apliketan zan ala ez erabagitea, ezta Arau horretan edo beste baten oinarrituta epai bat apliketan zan ala ez erabagitea. Orduan bi herriren etorkizuna erabagiten zan; izan be, herri horreetako bat kalte ekonomiko larria jasaten ari zan, osoko bilkura haretan bertan jaso zan moduan, salbuespenezko neurri bategaz, bost urteko gabezia moduko bategaz, eta epai bat behar bezala justifikauta egoan ala ez be bozkatzen zan, modu sinisgarrian eta aplikagarrian.

Kontuz, hemen inork ez dau zalantzan jarten orduan emon zan epaia, egoanaren arabera eta une haretako txostenak oinarri hartuta. Gogoratu daigun 2013ko maiatzetik datorrela, Busturiak pentsau ebanean, fede txar barik, Abiña auzoa, garai haretan Sukarrietakoa zana, bere lurraldeen parte izan beharko zan enklabe bat zala.

Eta hor, “enklabe” berbeagaz hasiko da dana, eta azalpen labur bat egiten saiatuko naz, sano erraza, puntu hau sareen bidez entzuten ari diran bizkaitarrentzat, ea jarraitzen gaituen eta ea ulertzen daben dinodana, ez daitezkan galdu.

Enklabe bat lur-eremu bat da, eta bere inguruan ezaugarri politiko, administratibo edo geografiko desbardinak dituan beste espazio edo lurralde bat dago. Abiña “jurisdikzino-itsasoaren” mugapean dago. Garai haretan, Gobernu zentralak baino ez eukan jurisdikzino-itsasoa marketako edo mapa baten kokatzeko eskumena. Eta, jatorriz eta historikoki, itsaso horrek geografikoki Abiña Sukarrietagaz lotzen eban, eta, beraz, Sukarrietako lurralde lez.

Izan be, hor egozan “Pedernalesko” udaleku ospetsuak, gure iraganean danok izan doguzan udalekuak; danok gogoratzen ditugu, bai uneren baten udaleku horreetan parte hartu dogulako, bai lagunen bat joialako, senideren bat joialako. Kontua da ia mundu guztiak ezagutzen dituala, edo entzun dauela eta badakiala non dagozan udaleku horreek, eta beti izan dirala “Pedernalesko udalekuak”, gaur egun Sukarrieta deitzen dana, baina beti izan dira udaleku horreek.

Horregaz azaldu gura dodan gauza bakarra da hori ez dala Bizkaiko lurraldean espazio bat gehiago lortzeko edozein eztabaida, ezpada espazio bat, lurralde bat, sano berezia, karga historiko handikoa eta Sukarrietari sano lotua. Han dago elizatea be, San Andres, jatorrizkoa, Sansinderi ugartekoa.

Sukarrieta berezko nortasuna eukan elizatea izan zala erakusten dabe



toponimiak eta dokumentazio historikoak; mendeetan zehar izenak eta mugak aldatu ditu, beti be Urdaibaiko itsasadarren geografia konpleju baten inskribauta. Biografia lokal luze hori garrantzitsua da, mugen arteko eztabaidak ez dira-eta mapa baten agertzen diran trazu hutsak. Bizilagunen, erabilitako bideen, ondasunen eta oroitzapenen istorioak dira.

Era berean, gogoratu behar da, zehatz eta errespetuz, Sukarrietaren eta Busturiaren arteko lurralde-eztabaida ez zala ezerezetik sortu. 1947an, Geografia Institutu Nazionalaren mugaketa-lanek, kaietako eta trenbideen garapen-lanen ondorioz, gizakiak eta itsasoak eraldatutako lurraldearen errealidade aldakorak islatzen ebezan plano barrietan. Lan kartografiko hareek hamarkadak iraun dabezan barrirakurketa administratibo eta judizial batzuen hasierea markau eben. Jarduera tekniko bakotzak, padurako betelan-jarduera bakotzak, administrazio-espedito bakotzak aztarna bat itxi dau, eta gaur horreek argitzea eskatzen da.

Eta konplejutasun horren aurrean, gure eskaerea 2017ko Osoko Bilkura haretan hartutako erabagia berrikusi daitela eta barriro aztertu daitela da. Eta, barriro dinot, ez dau Osoko Bilkuren areto honek irain lez hartu behar, erabagi justu, zuzen, errazoizko iragan tekniko eta soziala itzultzeko tresna egoki lez baino, gaur egungo errealidadera gehiago egokituko dana. Izan be, azaldu gura izan dodan moduan, zalantzak mugak eta epaiak berrikusteaz ari garanean, edo, hobeto esanda, zehaztubakoak, azken baten, ondarea eta gure historia babesteaz ari gara, bai eta erakunde lez daukagun sinisgarritasuna eta konfiantza indartzeaz be.

Epai bat edo Osoko Bilkurearen akordio bat berrikusi leitekela onartzen danean, ez dira arriskuan jarten orduan parte hartu ebenak; izan be, bere buruari zuzentzeko aukerea emoten deusan erakunde batek bakarrik izan leike-eta benetan zuzena, egokia eta zehatza izateko asmoa. Akats bako kudeaketa baterantza jo beharko geunke, eta, horretarako, onartu behar da egiazkotzat jo zana beharbada ez dala halan izango; frogatuzat jo zana inguruabar barrien edo txosten barrien eraginpean egon leitekela; edo orduan gauza batzuetarako sarbiderik ez zala egon eta orain bai; eta horixe da jazo dana. Edo zuzentzat jo ez zana, edo hobeto esanda, praktikotzat jo ez zana, denporearen porasuz desegoki edo neurribako agertzen dala orain, edo biak, eta dana gainbegiratu leiteke.

Epai bat dago, bai, hori ez da zalantza jarten. Zalantza jarten dana da zelan aukeratu genduan bere garaian epai hori betetea, ez geunkan-eta argi. Eta hori ez dau Alderdi Popularrak zalantza jarten, ezpada katedradunen txostenek, zuok guztiok ezagutzen dozuezanak, Batzordeetan irakurri genduzalako. Eta bai, gauza epaituak oinarrizko balioa dauka, segurtasun juridikoa, hatan be. Baina segurtasun juridikoa ez da koartada bihurtu behar akats ezaguterrazak egiteko, egiaztagarriak diran eta probau diran akatsak. Zalantza errazoizkoa baino gehiago danean, historiak, kartografiak edo proba teknikoak mugaketa baten zehaztasuna edo berrikuspina zalantza jarrea ahalbidetzen dabenean, erabagitakoaren babesa justiziaren eskakizunagaz baketzeko bidea da.

Ustezko horreetan ez berrikusteak balizko bidebakokeria bat blindetea esan gurako leuke. Nire ustez, segurtasun bako edo zehaztasun bako erabagi baten berrikuspina onartzea ez da gaitzespen bat; alderantziz, sendotasun instituzionaleko ekintza bat da. Bere burua zuzentzen dauen erakunde batek konfiantza gehiago emoten dau bere akatsetan babesten dan erakunde batek baino, arretatsu baino handigura gehiagogaz. Eta uste dot horrelan barruntetan dabela herritarrek.

Horregaitik, txosten tekniko eta juridiko barriak entzun, aztertu eta aplikau daitezala proponidu dogu gaur. Kartografia historikoa eta egungoa haztatzeko eskatzen dogu auzo- eta ondare-interesak bermatzeko, eta, batez be, azken erabagia komunitatearen bakea eta bidebakoa izan leitekenaren prestaketea bateratzeko gai izan daitela.



Gero jarraituko dot. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora González Díez-Andino.

A continuación, la representante del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTIN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Ondoetorri, ostera be.

Buenos días también a Izagirre Loroño y Etxanobe Landajuela.

¿Cuántos procesos judiciales, sentencias, informes periciales, informes jurídicos, órdenes forales, comisiones y plenos se han sucedido a lo largo de más de medio siglo para hablar de San Antonio de Abiña?

Muchos, demasiados diría yo. Es imposible ocultar la importancia y el interés que despierta Abiña en los municipios de Sukarrieta y Busturia. Y al mismo tiempo, la intensidad con la que se argumenta por parte de Busturia y de Sukarrieta da cuenta del valor emocional que tiene San Antonio.

Desde que en 2017 las Juntas Generales “aprobasen” cumplir la sentencia del Tribunal Supremo, Sukarrieta y Abiña han continuado estando sobre la mesa. Desde entonces hemos reflexionado y debatido en numerosas ocasiones sobre la forma en que se produjo el acuerdo, sobre la forma en que el Tribunal llegó a esa sentencia y sobre las consecuencias de la aplicación de la sentencia.

La propuesta que trae hoy para su debate el Partido Popular es un ejemplo de que el expediente no está cerrado después de 8 años.

Ernegua sortu leiken arren, espedientea zabalik dago, espedienteak bizirik irauten dau. Izan be, aurtengo urtarrilaren 31n bildu ginan azkeneko gai horri buruz berba egiteko, Eskaeretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordean. Orduan, Busturia Bizirik zan Sansideri plataformeak aurkeztutako txostenari erantzun ahal izateko agerraldia eskatu ebana. Bertan, Administrazio Zuzenbideko katedradun emeritu batek adierazo eban akats juridiko larriak jazo zirala, eta horrek egoera barriro aztertzea ekarri eikela. Horren aurrean, Busturia Bizirik plataformeak Administrazio Zuzenbideko beste katedradun batek egindako beste txosten bat aurkeztu eban, aurreko txostena bertan behera itxi nahian.

Batzorde haretan bertan, Busturia Bizirik plataformearen txostena sinatu ebanaren berbaldea amaitu ondoren, han gengozan taldeok, batzordeko presidentearen eskutik, bi txostenak Bizkaiko Foru Aldundiari helarazotearen alde bozkatu genduan, informazioa aztertu egian. Bai Sansideri plataformeak aurkeztutakoa, bai Busturia Bizirik plataformeak aurkeztutakoa.

Ordurik hona, ia 9 hilebete igaro dira, eta Aldundiak ez dau inongo erantzunik emon dokumentuen azterketari buruz, nahi-ta dakian gai honek zelako interesa sortzen dauen.

Baina, gainera, gogorarazo gura dot, gaur hemen eztabaidatzen ari garan



honen harira, Aldundiak hainbat konpromiso hartu ebazala jente-aurrean Kontrolerako Osoko Bilkura baten.

En ese pleno nuestro grupo, Elkarrekin Podemos, hizo una pregunta a la Diputada. Concretamente le preguntamos: ¿Va a dar algún paso la Diputación para resolver la situación?, y le dábamos dos opciones posibles. La primera, tener en cuenta las soluciones que planteaba el catedrático en el informe, o una segunda opción, que fuera la Diputación quien sugiriera otras soluciones.

Y la respuesta de la Diputada General fue adquirir dos compromisos. Por un lado, hacer un análisis jurídico exhaustivo del informe; y, por otro lado, presentar sus conclusiones en forma de toma de decisiones.

Desde entonces ha transcurrido un año y no han respondido. Por tanto, nosotras entendemos que la aprobación de esta propuesta es el siguiente paso necesario para poder avanzar. Por lo que por parte de Elkarrekin Podemos apoyaremos la misma.

Proposamen horren alde egingo dogu, planteetan dauena ez dagoalako sano urrun lehendik hartutako konpromisoak betetearen eskaeratik.

Alde batetik, egoerea barriro neurtu daitela proponiduten dau, agertu diran txosten barriak kontuan hartuta. Daborduko bete behar zenduena baino ez da, eta bi aldiz hartu dozue horretarako konpromisoa. Bata orain dala urtebete, eta bestea orain dala 9 hilebete.

Horrez gainera, proposamenak jasoten dau neurketa barri horrek, logikoa dan moduan, Aldundiak ondorio barriak aterateko balioko dauela, eta gure taldearen ustez, urtebete igarota, Foru Aldundiak daborduko eginda izango ditu eta argi izango ditu ondorio horreek.

Eta, gainera, proponiduten dau ondorio horreen arabera, udalerrri bien arteko bitartekaritzea egin dagiala, alde guztientzat egokia izango dan konponbidea bilatzeko. Eta gure ustez, Elkarrekin Podemosentzat, “bitartekaritzea” edozein gatazka konpontzeko beharrezkoa dan aurretiazko urratsa da.

Jakina, ondoren, edozein alderdik aukerea izango dau ostera be epaitegietara joateko. Baina uste dogu konponbide adostuak bilatzea beti dala hobe.

Beraz, esan deusuedan moduan, urtebete igaro da eta ordurik hona Aldundiko Gobernuak ez dau bizi-seinalerik emon. Ez deusie erantzun ez plataformen ez gure taldearen eskaerari, eta ez deutsee erantzun jente-aurrean hartutako konpromisoei.

Badakigu gai gatxa dana, ez dogu ukatuko; ez da berez konponduko, badakigu, ezer egin barik. Eta aurrera egin ahal izateko urratsak emon behar dira. Eta gaur aukerea daukazue.

Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martin.

A continuación, el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso, tiene usted la palabra.



El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Señora presidenta, señores y señoras, buenos días a todos y a todas.

Beste proposatzaileakaz bat egiten dot neuk be, Sukarrietako ordezkari ei egindako harreran eta agurrean. Lehenengo eta bat, Sukarrietako udal ordezkarien lana, kemena eta konpromisoa autortzen hasi gura dot. Gaiztasunak gaiztasun, euren udalerrientzat bidezkozat joten daben aldarrikapen bat bizirik mantenidu daben ordezkari publikoak dira. Jarrera horrek, tokiko interesen defentsearen zentzun horrek, Ganbera honetako talde guztien errespetua merezidu dau. Izan be, azkenean, erakundeetako kide garanok helburu bera daukagu, herritarrei serbidutea eta gure herrietako bizimodua hobetzea.

Halanda be, hori esanda, talde sozialistek ezin dau Arauz Besteko Proposamen hau babestu. Eta ez dogu babesten, ez interesik ez daukagulako, ez Sukarrietako udalerriaz sentsibilidaderik ez daukagulako, ezpada legezketasuna, eskumen-esparrua eta segurtasun juridikoaren printzipioa errespetetan doguzalako, arau izan behar dabe-eta gure jarduera guztietan.

Proposamena lurralde-enklabe bati eta haren administrazio-ondorioei buruzko gai baten ingurukoa da, eta daborduko ondorio horreen inguruko erabagi judizial irme bat dago. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren epai batek ebatzi eban auzi hori, eta prozedurari amaiera emon jakon. 2021ean, Auzitegi horrek ez eban Sukarrietaren errekurtsua onartu, eta ebazpena irme bihurtu zan. Halanda ze, epaituta dagoan gai bat dogu berbabide, epai irmea dauka, eta erakunde guztiek onartu beharrekoa da, baita erakunde honek be.

Zuzenbide-estatu baten, independentzia judiziala eta ebazpen irmeei begirunea funtsezko zutabeak dira. Eta auzitegi batek behin betiko ebatzia emoten dauenean, Aldundiak ezin dau jardun, ezta Batzar Nagusiek be, ebazpen hori egongo ez balitz lez. Gainera, eta hori azpimarratzea oso garrantzitsua da, Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan lurralde-enklabeak definiduteko eskumena Batzar Nagusi honeena da. Ez da eskumen eskuordetua, ezta partekatua be. Beren-beregi autortuta dago gure foru-esparru juridikoan, bai eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuan be, lurralde bakotzeko administrazio-mugak eta administrazio-zatiketak zehazteko ahalmena emoten deusela Batzar Nagusiei.

Halanda ze, Arauz Besteko Proposamen honek, daborduko epaituta dagoan gai bati buruz zeozer eskatzeaz gain, Aldundiari ez jagokozan jarduerak egin daizala eskatzen deutso, argi eta garbi gairitzen dabezalako bere eskumenak. Hau da, Bizkaiko Lurralde Mugapeei buruzko abenduaren bosteko 9/2012 Foru Araua *de facto* ez dagiala errespetau eskatzen deusagu. Izan be, jarduera horreek Ganbera honen berezko erabagi-eremua inbadiduko leukie, eta hori ezin dogu babestu.

Talde Sozialistak sano argia izan gura dau. Udal-autonomia defendiduten dogu, eta udalen bidezko erreklamazioak ulertzen doguz, baina erakundeen arteko koherentzia eta daukagun eskumen-esparruaz errespetua be defendiduten doguz. Eta, hain zuzen be, esparru horren errespetuagaitik, ezin dogu foru-erakunde bati bere eskumenetik kanpo eta epaitua izan dan gai bati buruz jarduteko eskatzen deusan proposamen bat babestu.

Halanda be, aitatu dan moduan, egoerearen berrikuspen judiziala justifikau leikien egitatezko edo zuzenbidezko elementu barriak balegoz, horixe izan leiteke jarraitu beharreko bidea. Hori izan leiteke bide zuzena, legezketasun-printzipioa eta administrazioen arteko oreka instituzionala errespetetan dituana.

Baina, halanda be, izan gaitazan argiak. Bidezkoa iruditzen jakun guztia ezin da bide politikotik konpondu, bide juridikoa itxita dagoanean. Horrek ez dau esan gura amore emon behar danik, ezpada erantzukizunez jokatu behar dala, tresna egokiak erabili



behar dirala, eta erakundeakan eta zuzenbide-estaduagan konfiantzeari eutsi behar jakola.

Horregaitik, Talde Sozialistearen izenean, beste behin be autortu behar doguz Sukarrietako udal-ordezkarien duintasuna, konpromisoa eta ekina, bidezkotzat jotzen dabena eskatzen jarraitzen dabelako. Eta bide egokietatik jarraitzera animau gura doguz, informazino barria emonda, edo oinarri barriak emonda, baina beti be erakunde baktxaren arauak eta eskumenak errespetauta.

Horregaitik guztiagaitik, Talde Sozialistek ez dau Arauz Besteko Proposamen hau babestuko; izan be, asmo onak dituan arren, ez dauka ibilbide juridikorik, eskumen-esparrua urratzen dau, eta auzitegiek irme ebatzi daben gai bati buruzko eretxia emoten dau. Azken baten, aldarrikapena errespetetan dogu, sentimentua ulertzen dogu, baina zuzenbide-estadua, segurtasun juridikoa eta erakundeari begirunea defendiduten doguz. Eta horreek dira, ez daigun ahaztu, bizikidetza demokratikoa eta gure erakundeen sinisgarritasuna eregiteko oinarriak.

Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Otermin Eraso.

A continuación, el representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor López Vázquez, tiene usted la palabra.

El Sr. **LÓPEZ VÁZQUEZ** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta, y buenos días a todos y a todas. Y un saludo también al alcalde de Sukarrieta y a los vecinos y vecinas que han venido desde Sukarrieta.

Hoy debatimos y votamos la Proposición No de Norma presentada por el Grupo Popular en relación con el conflicto legal que mantienen los pueblos de Sukarrieta y Busturia en torno al barrio de Abiña. En la misma, se insta a la Diputación a que revise la decisión adoptada el 14 de diciembre de 2007 con el objetivo de llegar a una nueva conclusión.

Los miembros de los partidos que han hablado con anterioridad han dado algunos datos sobre este histórico conflicto de Abiña. No voy a repetirlos todos y procederé directamente a exponer los pasos que se han dado en esta legislatura. Antes también los ha explicado un poco la señora De Madariaga.

A lo largo de esta legislatura se han presentado dos informes en la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía de las Juntas Generales.

El 17 de octubre de 2024 se presentó el informe elaborado por el Ayuntamiento de Sukarrieta a petición de la plataforma Sansinderi, y el 31 de enero de 2025 se presentó el informe elaborado por el Ayuntamiento de Busturia en nombre de la plataforma Busturia Bizirik, en respuesta al primer informe de Sukarrieta. Ambos informes presentan diferentes argumentos a fin de ratificar las posiciones mantenidas siempre por ambos pueblos y ayuntamientos. Respetamos los dos informes, pero son totalmente opuestos, y cada uno da la razón al ayuntamiento que hizo el encargo.

Como consecuencia, Sukarrieta pide a la Diputación que revise la



situación, y Busturia pide que la situación se mantenga.

Por lo tanto, la primera conclusión que podemos extraer es que el conflicto se mantiene intacto y las opiniones y posiciones entre las partes no se han acercado. Si se hace el ejercicio de dialogar con las personas de ambos municipios, y lo hemos hecho, eso se ve claramente. Cada uno defiende con firmeza lo suyo y entendemos que es legítimo hacerlo, como anteriormente se ha comentado.

Es un asunto que afecta seriamente a los sentimientos de las personas de ambos pueblos, y entendemos y respetamos las opiniones y los argumentos de cada una de las partes, pero, elevando un poco la mirada y desde una perspectiva de país, desde una perspectiva de Bizkaia, nos resulta políticamente imposible dar la razón a solo una de las dos partes. Creo que los y las portavoces que me han precedido, salvo alguna excepción, han manifestado que tienen dificultades para ello.

Y eso es, en definitiva, lo que nos pide la propuesta de hoy. Dicho de otra manera, tras analizar la documentación y los informes jurídicos, los procedimientos y los dictámenes de los juzgados, y tras estudiar los debates y las opiniones de ambas partes, no disponemos de ningún argumento para dar la razón políticamente a una de las dos partes.

En nuestra opinión, nos encontramos ante una cuestión jurídica compleja y profunda, que en este momento supera el debate político entre los partidos de las Juntas Generales. Si una parte ve claro que las decisiones o sentencias adoptadas con anterioridad son inadecuadas o imposibles de cumplir, le corresponde estudiar las vías legales, y si se emite un nuevo dictamen, será el turno de las Juntas Generales y de la Diputación.

Así ha sucedido con este tema anteriormente, y la situación actual es consecuencia de una resolución dictada en los tribunales. El asunto llegó a los juzgados porque era imposible lograr un acuerdo político. Y los tribunales determinaron que Abiña debía integrarse en Busturia. Después hubo diferentes recursos y hoy en día la sentencia es firme. También en torno a este tema han facilitado explicaciones las personas que me han precedido en la palabra.

En resumen, entendemos que lo que plantean los diferentes informes jurídicos es un debate jurídico que debe resolverse en los tribunales. Por tanto, no apoyaremos la Proposición No de Norma y votaremos en contra.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor López Vazquez.

Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Bagan Urtiaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BAGAN URTIAGA** jaunak: Señora presidenta, señora Diputada General. Buenos días a todos y a todas, y sean bienvenidos/as.

Talde Popularrak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamenean planteamentu zehatz bi dagoz, nahi-ta bigarrena, bere garapenean, lehenengoaren mende dagoan.

Lehenengoak honako hau dino berbaz berba: “Bizkaiko Batzar Nagusiek



Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusie barriro aztertu daiala 2017ko abenduaren 14ko Osoko Batzarrean hartutako erabagia eta egoera barriro neurtu daiala agertu diran txosten barriak kontuan hartuta”.

Horren irakurketa hutsetik, berehalako gogoeta bat sortzen da. Talde Popularra eskatzen ari al da Bizkaiko Foru Aldundiak, bere proposamenean berbaz berba dinoanaren arabera, Batzar Nagusien Osoko Bilkureak hartutako erabagi bat barriro aztertu dagiala? Osoko honek hartutako erabagi bat? Erabagia barriro aztertzeko, egoera berrikusteko eta ondorio barri batera heltzeko? Talde Popularrak uste al dau Aldundiak Batzar Nagusien Osoko Bilkurearen akordio bat berrikusi, aldatu edo bestelakotu leikela? Ez al dakizu planteetan dozuna podere-banaketearen oinarritzko printzipio demokratikoa argi eta garbi urratzea dala? Edo, beste era batera esanda, Batzar Nagusiei bakarrik jagokezan ahalmen batzuk Aldundiari helarazoteko asmoa daukan proposamen baten aurrean gagoz, esaterako, Batzar Nagusiek hartutako Osoko Bilkurearen erabagi bat barriro aztertzeta. Azken baten, Talde Popularra planteetan ari dana Podere Betearazlea Podere Legegilearen zereginetan sartzea al da?

Egia esan, proposamen hori, hasteko, ezin da defendidu, eta argi eta garbi adierazoten dau ez dala ezagutzen zein dan lurralde historiko honetako erakunde-funtzionamentua, edo ez dala arretarik jarri Arauz Besteko Proposamena idazterakoan. Ez dakigu bietako zein dan. Nire eretxian, ez batuk ez besteak ez zaituee leku onean ixten. Kasurik onenean, lege-proposamena txarto formulautu dago, eta Batzar Nagusi honeen subiranotasuna errespetau gura badogu (eta errespetu hori, nire eretxian, batzarkide-talde guztioi jagoku), aplikau ezin dan proposamen bat helarazoten deuskuzue. Hasteko, gure taldearen eretxian, behintzat, gatxa da horrelango proposamen bat onartzea, ezinezkoa ez esatearren.

Edozelan be, ez dogu saihestuko Talde Popularraren ekimenaren azpian dagoan sakoneko eztabaidea. Ekimen horrek, azken baten, Busturiako mugen barruan San Antonioko enklabea kentzea onartu eban 2017ko abenduaren 14ko Batzar Nagusien Osoko Bilkurearen erabagia berrikusi eta aldatu gura dau, eta, bertan adierazoten danaren arabera, beste ondorio batera heldu daitela. Halanda be, planteamentu hori ez dator bat Bizkaiko Foru Aldundiko bozeroaleek behin eta barriro mahaigaineratu daberen errealidade juridiko tematiagaz, (azken urte honeetan Batzar Nagusietan jorratu dabena), hau da, akordio horren aldatuezintasuna, gauza epaituaren printzipioaren konkurrentzian oinarrituta. Akordioaren aldatuezintasuna, gauza epaituaren printzipioan oinarrituta.

Ostera be gogoratu behar da enklabea egoteak eta berori kendu behar izateak ibilbide judizial luzea izan ebela, eta parte hartu ebela ez bakarrik Bizkaiko Foru Aldundiak, ezpada Sukarrietako Udalak, Busturiako Udalak eta Sansinderi Plataformeak be, eta udalek momentu guztietan jarrera bateratuezinak izan ebezala. Ez da egon udalen artean inongo akordiorik lortzeko aukerarik, ez enklabea egoteari edo ez egoteari jagokonez, ezta ha kentzeko prozedureari jagokonez be. Batzar Nagusietan aurkeztu eta landu barri diran txosten juridikoek be ez dabe kontrakoa pentsetako biderik emoten. Prozesu horretan guztian, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarrera argia, gardena eta koherentea izan da, eta enklaberik ez dagoala defendidu dau, hasieran administrazio-bidean eta gero egoitza judizialean.

Halanda be, eztabaidea kontrako norabidean ebatzi zan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak epai irmeak emon ebazan; enklabea baegoala eta ezabatu beharra egoala adierazo eben epaiak emon ebazan, bai eta ha gauzatzeko prozedura be, eta auzitegi horrek ebatzitakoaren betearazpena izapidetzea ekarri eban. Aldi berean, betearazpen horren ondorioz, Batzar Nagusiek 2017ko abenduaren 14an hartutako erabagia berrikusi gura da orain, eta ez da kontuan hartu akordio horren aurkako errekurtsioa aurkeztu ebela Sukarrietako Udalak eta Busturiako Udalak, eta biak ezetsi zizala 2019ko garagarriaren 9ko 197/2019 eta 2020ko urtarrilaren 15eko 2/2020 epaien bidez, hurrenez hurren.



Gainera, bi epaien aurka kasazino-errekurtsoak prestau ebezan bi udalek, eta Auzitegi Gorenak ez ebazan onartu. Beraz, irmeak izan ziran ondorio guztietarako, eta eztabaidea behin betiko ebatzi zan. Halanda ze, eztabaidatuezina da gauza material epaituak eragotzi egiten dauela, eta barrero esango dot, eragotzi egiten dauela 2017ko abenduaren 14ko erabagia ofizioz berrikustea, hau da, Sukarrietako mugen barruan San Antonioko enklabea kentzea ebatzi eban erabagia. Eta enklabea kentzea gauzatzeko, ondorio guztietarako, Busturiaren zatia balitz lez geratu zan, horren barruan. Kontrakoa esateak itxaropen faltsuak izetzea besterik ez dakar, eta horrek frustrazioa baino ez dau sortuko.

Jakina, gure taldeak ez dau hori egingo; erantzukizunez jokatu dogu eta Talde Popularrak aurkeztutako proposamenaren aurka bozkatuko dogu.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Bagan Urriaga.

Pasaremos al turno de réplicas. Para ello, la representante del Grupo Popular Vizcaíno, señora González Díez-Andino, tiene usted la palabra.

La Sra. **GONZÁLEZ DIEZ-ANDINO** andreak: Eskerrik asko ostera be, mahaiburu andrea.

Gaur orduan hartutako akordioa berrikusi daitela eskatu dogu, eta hori hasierako zatia zan. Baina zuk, Bagan jauna, bigarren zatia alde batera itxi dozu. Arauz Besteko Proposamen hau Sukarrietako bizilagunek sustatu dabe eta horren jakitun dagoz, eta onartu ezezik zehaztu be egin eben erabagiaren bigarren puntu hori be egon eitela, berrikuspen horrez gain, honako hau dinoalako: “ebazpen barria onartzea, edozein dala be, auzotarren arteko liskarrak eta ezbaiak behin betiko baretzearren, beti be bake sozialaren mesederako”.

Halanda ze, azken bake hori lortzen laguntzeagaitik eta erakunde lez bitartekaritza-lanak egiteagaitik baino ez bada be, 2017ko abenduan hartutako akordio ha berrikusi daitela onartu beharko geunke, eta hasieratik hasi. Gai labana da, bai, gatxa da, jakina, eta sano ezohikoa be bai. Labana, ondo egin ez zan zeozer zuzendu behar danaren itxurea emon ahal dauelako, eta ez da ezer zuzentzen. Berrikustea da, alde batera itxi ezin diran txosten barrietara egokitzea; eta ez zan ezer txarrik egon, baina derrigorrezkoa da zeozer hobia egotea.

Aurreko Osoko Bilkuran Lekerikabeaskoak zera inoan: besteek dinoena entzun barik ateraten garala hona irakurtera (Ilardia andreak gogorarazo dauela uste dot), eta neurri baten errazoa emoten deusuet, Bagan jauna, zuk Aldundia gogo handiz defendiduten dozulako, grina horregaz, eta hori autortzen deusut. Baina inor ez dago Aldundiaren aurka, inor ez dago inoren kontra. Arauz Besteko Proposamena izugarri aseptikoa da, 20 aldiz berrikusi zan, inork ez dagian pentsau seinalauta dagoala edo zalantzan jarten dala. Emoten dau ez dogula lortu. Eta, hain zuzen be, horren erakusle da hondinokarren be alde handia dagoala, beharbada egundokoa, batzuen eta besteen artean, eta zauria edegita dagoala.

Ez doguz beste aldagai batzuk sartu gura izan, kokapena, esaterako, eta beste gai batzuk nahastu, inork ez dagian sentidu gaia desbideratu egin behar zanik. Ez gara datu ekonomikoan bakarrik sartu, sano eragin handikoa izan dana. Izan be, datu ekonomikoaz gain, alde historikoa eta, batez be, emozionala dago.

Hara, abuztuaren 13an lehen aitatu doguzan udaleku ospetsuen



mendeurrena zan, eta ez da ezer egin. Aukera zoragarria galdu da inguru hori ikusarazoteko, ospakizun bat egiteko, ekarpen ekonomikoa egiteko. Ezebez. Eta hori, zergaitik?

Katedradunen txosten batzuen arabera, erabagi horrek epai zehaztubakoa eta beteteko gatxa edo ezinezkoa zana betearazo eban, eta aldeko zazpi botogaz eta 40 abstentzinogaz atera zan hemendik. Benetan dinostazue gaur seguru gagozala eta sinisten dogula hemen egin behar zana egin zala? Mundu guztia seguru egoala gertatzen ari zana? Benetan, ez al da baztertzen Arauz Besteko Proposamen hau gaintetik kentzearren, konbentzimentuz baino? Izan be, orduan ia inork ez eban babestu akordioa, bagenkialako ez egoala zuzen.

Lehen be esan dot, froga barriak badagoz, ez dago ezer ohoragarriagorik eta miresgarriagorik norbere burua zuzentzea baino. Eta, kasu honetan, hutsetik hastea eta akordio hori berrikustea, txosten eta froga guztietan oinarritutako behin betiko erabagi barri bat bilatuta, daborduko ez litzateke ezta zuzentzea be izango; jardutea litzateke, kudeatzea litzateke, jokatzea litzateke, horrenbeste esatea gustetan jatzuen era aktiboan entzutea litzateke, eta horren arabera gauzatzea.

Ez dogu epaia berbabide, ezpada Osoko Bilkurearen erabagia. Izan be, bere garaian bozketa jakin baterako bidea egin eban moduan, guztiz kontrako bidea be hartu leike, dagozan txosten barriakaz. Eta horrek ez leuke esan gura kontrako egiten ari garanik, ezpada zuzena dana egiten ari garala, informazino barrien arabera. Inork ez dau esan orduko akordioa zuzena zanik, perfektua, ezta dana ondo adostuta egoanik, ezta danok harro gengozala egindakoaz.

Epaiak Aldundiari jarduteko eskatzen eutsan, eta Aldundiak ez ekian zelan egin, eta aplikau zan Foru Arauak ez eban dana beteten. Akordioa berrikustea ez leuskigu bildurrik emon behar, ezta arazoren bat sortu be; praktikan eta balioetan jarteko biztugarriak izan beharko leuke, bitartekotzaz gain, hori be bajagoku-eta. Gaur akordio bat hilten itxiko dogu, danok dakigun arren ez zala egokia izan. Eta ez gara ausartzen konpontzen. Hori helarazoko jake gaur hemendik, Sukarrietako bizilagunei batez be, baina Bizkaiko herritarrei be bai orokorrean; ez gara ausartzen gu be konbentziduta ez gagozan akordio bat konpontzen. Ez gara ausartzen. Goiburu txarra Ganbera honetarako, jaun-androk.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Gonzalez Diez-Andino.

A continuación, la representante del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martin, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTIN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Tira, nik uste dot Alderdi Popularrak planteetan dauen proposamena beste modu batera irakurri behar dogula. Esango dot nondik. Talde horren eretxia honako hau da: uste dot Sukarrietak luzaro, denpora luzez eskatu deutsela babesa Aldundiari eta Batzar Nagusiei, 2017ko abenduan Ganbera honetan bertan erabagia hartu aurretik be.

Arauz Besteko Proposamen horrek zera jasoten dau, hain zuzen be:



Sukarrietaren eta bertako bizilagunen beste laguntza-oihu bat da. Babesa eskatzen ari dira, babesa eskatzen ari jake Ganbera honi.

Eta bizilagunak entzun ondoren eta, gainera, Bagan jaunak esan dauen moduan, EAJk eta Gobernuak enklaberik ez dagoala uste badabe, uste dot katedradunaren txostenaren barruan planteetan diran proposamenak be kontuan izango zenez, Sansinderi Plataformeak proponiduta, eta arretaz aztertuko zenez, eta horri buruzko eretxia izango dozuela. Hau da, hain seguru bazagoze Abiñako San Antonio ez zala enklabe bat, ez erabagia hartu aurretik ezta ondoren be, eta halan defendidu dau Bagan jaunak eta, horrezaz gainera, gure ustez ondo oinarrituta dagoan katedradun baten txostena eskura badaukazue (eta uste dogu ondo oinarrituta dagoala egintzea baliobakoa dala guztiz, mamina ezinezkoa daukalako), ez dot ulertzen zergaitik Aldundiak ez deutsen zeozelako babesa eskaintzen, ahal dan neurrian, Sukarrietako bizilagunei eta Sukarrietako Udalari.

Izan be, bi unetan, eta barriro esango dot, horreetako bat orain dala urtebete, konpromiso batzuk hartu ziran eta ez dot ulertzen zergaitik ez dituan bete Aldundiak. Ahaldun Nagusiak erantzun bat emoteko konpromisoa hartu eban. Beti be klabe juridikoan pentsau geinke, gura izan ezker: epaituta dagoan egintzea dan lez, ba erabagia daborduko ez da... Baina bizilagunei entzun egin behar jake, eta ea txosten horregaz batera eskatzen ari diran eskaera eta babes-oihu hori zeozelan bideratu geinkezan. Eta Sukarrietak erantzun hori noz helduko itzaroten dau, eta Aldundiak ez dau emoten. Ez dau emoten.

Ez dakit modu ona dan ala ez, eta une honetan ez dot hori epaituko, Arauz Besteko Proposamenaren bidez formuletea modu egokia ete dan. Baina Aldundia ez dala Sukarrietari eta bere bizilagunei erantzuten ari, hori errealidade bat da. Eta, horren adibide lez, honeek dira Ahaldun Nagusiaren berbak. Nire galdereari, berak horrelan erantzun eutsan:

“¿Qué va a hacer ahora la Diputación? En primer lugar, ya hemos solicitado a las Juntas Generales toda la documentación presentada por la plataforma Sansinderi para realizar un análisis jurídico detallado de este hecho. Y también quiero decirle que los Ayuntamientos de Busturia también han sido requeridos para su análisis jurídico. Y una vez hechos estos estudios, decidiremos si podemos hacer algo sobre este tema ”.

Halanda ze, non dago Sansinderi plataformeak aurkeztutako dokumentazio guztiaren azterketa juridiko zehatz hori? Eta esaiguzue zein dan horren erabagia eta zein ondorio atera dituzuen. Entzun behingoz eta erantzun Sukarrietako bizilagunei, Aldundiaren babesa gitxienez 8 urte daroez-eta eskatzen

Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martin.

El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso, tiene usted la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Eskerrik asko.

Nire berbaldian batez be 2017ko bozketan zer jazo zan argitu gura dot, gutako asko abstenidu egin ginalako, eta zergaitik aldatu dogun botoaren zentzuna argitu gura dot. Justizia Auzitegi Nagusiaren lehen epaia 2013an izan zan, eta Abiñako San Antonio zelan



geratuko zan zehaztu eban; izan be, enklabe lez desagertu eta Busturiara igaroten zan. Helegite batzuk aurkeztu ziran.

2015. urtea: udal- eta foru-hauteskundeak. 2016an, Ganbera honetan erabagitakoa ezarten dauen Foru Agindua garatzen hasi zan. 2017. urtean, eztabaidea hona ekarri zan, ebazpen horregaz ados ez egozalako, eta, bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian helegite bat aurkeztu zala jakinarazo jakun.

Eta, beraz, talde gehienok zera esan genduan: Justizia Auzitegi Nagusiaren epai irme bat egon arte, *de facto*, goragoko mailea daukalako, ba itxaron egingo dogu berretsi beharrekoa berretsi arte.

2019an, epaia emon zan, eta ostera be azpimarratu zan 2013an onartutakoa. 2021ean, beste helegite bat aurkeztu zan, baina ez zan onartu, eta behin betikotzat jo zan. Halanda ze, Ganberako alderdien jarreran ez daitela barruntau erispide-aldaketarik; alderantziz, guk kontuan hartu ezin izan genduzan inguruabar batzuk egon ziran, beste barik.

Enklabea, enklabe lez, bere horretan, 1840. urte inguruan sortu zan, Busturia eta Sukarrietako udalak definidu ziranean, Pedernales, Sukarrieta. Eta, une haretan, San Antonio ermitearen inguruan dagoan lursail bat Sukarrietako enklabe izatea ebatzi zan. Ordurik hona, arazoak izan dira, kudeaketa-arazoak, ze, jakina, zerbitzu asko emon behar zituan Busturiak, bere eskumenekoa ez zan baina bere mende egoan lurzoru baten inguruan. Eta hori da funtzionau dauena. Ondoren, historiak dinosku 1940. eta 1960. urteen artean hainbat betelan egon zirala, Herri Lan Ministerioak agindutakoak, betelanak, saneamentua, etab., eta kartografia dan guztia aldatu zala neurri baten. 2010ean, Abiñako San Antonio Busturiako Sukarrietako enklabe lez agertzen da hondino be, baina 2013tik aurrera aldatu egin zan. Eta hortxe daukagu arazoa.

Unada honeetan sano erraza da esatea: errazoi dozue, eta oker be egon gara; eta justiziak, Batzar Nagusien autortzaz, epai baten aurrean zuzenketa-eske bat bere buruari aurkeztu degiola. Baina hori ez da bidea, eta Aldundiak be ez dauka eskumenik: Ganbera honena da eskumena, geurea da. Halanda ze, guk ez badogu aldaketarik proponiduten, Aldundiak ezin dau ezer egin. Baina, planteauko bagendu be, auzia epaituta dago daborduko, epai irmeak, prozesu luzea. Izan be, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusira, Gorenera, heldu arte, behar izan ezker, asko dira itxaron beharreko urteak. Orain, dokumentu barriak agertu dira; egoera horrek ekarri lei dana ostera be aztertzea? Horixe da bidea, baina ez Aldundiarena. Eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak bidea itxi badau, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak zabaldu dagiala berriro, horretarako errazoirik badago.

Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Otermin Eraso.

El representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor López Vázquez, tiene usted la palabra.

El Sr. **LÓPEZ VÁZQUEZ** jaunak: Muchas gracias.

Bueno, creo que en el primer turno he expuesto nítidamente nuestra



posición, pero por si acaso en este segundo turno voy a intentar subrayar y dejar claras algunas ideas.

Como hemos dicho anteriormente, entendemos el malestar que genera este tema en Sukarrieta y en Busturia. Entendemos también las decisiones e iniciativas adoptadas por los dos ayuntamientos en defensa de sus intereses, entre las que se encuentran la elaboración de informes jurídicos y la deducción de diferentes interpretaciones.

Entendemos la sensación de injusticia que se vive en Sukarrieta y el deseo de dar por cerrado el tema en Busturia. En este sentido, no vemos mal que después de que la Diputación analice los informes, no sé, nos explique voluntariamente cuál es la valoración que hace de ese informe. Pero por subrayar de nuevo una idea. Creemos que este tema requiere cautela, y preferimos actuar con prudencia. Otros grupos políticos tienen claro ahora cuál es su posición, antes hubo quienes defendieron lo contrario, y también es legítimo, evidentemente. Existen dos informes jurídicos nuevos. Ambos ponen sobre la mesa argumentos lógicos, y nosotros/as, en este momento, tenemos grandes dificultades para explicar y tener claro nuestro posicionamiento. Parece que algunos grupos políticos han cambiado su posición ahora, pero creo que todos los que estamos aquí hemos actuado con bastante precaución.

Por lo tanto, bueno, nos ratificamos diciendo que no apoyaremos esta iniciativa y que votaremos en contra.

Y sin más. Muchas gracias.

